ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, IRUNGO 6.3.01 "ALARDE" EREMUAN DAGOEN "C" LURZATIAN BABES OFIZIALEKO 10 ETXEBIZITZA ETA DAGOZKION ERANSKINAK EGITEKO OBRAK PROZEDURA IREKI ARRUNT BIDEZ ESLEITZEKO LIZITAZIO PUBLIKOA ARAUTUKO DUENA

AURKIBIDEA

I.- LEHIAKETAREN XEDEA ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEA 6

I. 01.-LEHIAKETAREN XEDEA.....6

1. klausula. Xedea..... 6

2. klausula. Proiektua 6

3. klausula. Kontratuaren araubide juridikoa..... 6

4. klausula. Aurrekontua 7

5. klausula. Gauzatzeko epea 8

6. klausula. Kontratatzailearen profila 8

I. 02.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA 8

7. klausula. Proposamenak aurkeztea..... 8

8. klausula. Aurkezpen telematikoa edo ez telematikoa 8

9. klausula. Jakinarazpenak eta komunikazioak..... 10

10. klausula. Kontratazio Mahaia..... 10

11. klausula. Fitxategi Elektronikoak irekitzea 11

12. klausula. Eskaintza bakarra 11

13. klausula. Kontratatzeko ahalmena..... 11

14. klausula. Ekonomia eta finantza kaudimenaren eta kaudimen tekniko edo profesionalaren betekizunak. Sailkapena..... 12

15. klausula. Kontratatzeko debekuak..... 13

II.- DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZAK ETA KONTRATUA ESLEITZEA.....13

II .01.-DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZAK 13

16. klausula. Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean eta EAEko Kontratisten Erregistro Ofizialean erregistratzea 14

17. klausula. Dokumentazioa 14

18. klausula. Agiria onartzea 15

19. klausula. Lizitazioaren prozedura..... 15

20. klausula. Lizitazioaren publizitatea 15

21. klausula. Proposamenak aurkeztea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa 15
II 02.- KONTRATUAREN ESLEIPENA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZAK 18
22. klausula. Eskaintzak baloratzeko irizpideak 18
23. klausula. Txostenak 18
24. klausula. Kontratazio organoa 18
25. klausula. Kontratuaren arduraduna 18
26. klausula. Esleipena 19
27. klausula. Esleitu aurreko betekizunak 20
28. klausula. Esleipena, ebazpena emanez gero 22
29. klausula. Kontratua formalizatzea 22
30. klausula. Lagapena 23
31. klausula. Aseguruak 23
III.- KONTRATAZIOAREN BALDINTZAK 26
III .01.- ARAU ERREGULATZAILEAK 26
32. klausula. Erregulazioa 27
33. klausula. Kontratistaren funtsezko kontratu betebeharrak 27
34. klausula. Zehapenak 28
35. klausula. Errekurtsoak eta Auzitegiak 30
36. klausula. Aldeen arteko komunikazioak 30
37. klausula. Datu Pertsonalen babesa 30
III .02.- PREZIOA ETA ORDAINKETA 31
38. klausula. Honenbesteko prezioa 31
39. klausula. Prezioak berrikustea 31
40. klausula. Prezioan sartutako kontzeptuak. 31
41. klausula. Segurtasuneko eta Osasuneko aurrekontua 32
42. klausula. Gastuak eta gestioak 32
43. klausula. Goren mugako prezioaren aldaezintasuna 33
44. klausula. “Neurketaren araberako” prezioa lur mugimenduetan, zimenduetan, hormigoizko egituran eta urbanizazioan 33
45. klausula. Prezioa ordaintzea 34
46. klausula. Transferentzia bidez ordaintzea 34
47. klausula. Behin-behineko ordainketak eta kontura onerakoak 34
48. klausula. Azpikontratistei ordaintzeko baldintzak 34
49. klausula. Ordaintzeko baldintza 36
50. klausula. Zorrak konpentsatzea 36

51. klausula. Kobrantza eskubideak eskualdatzea 36
III.03.- BERMEAK 37
52. klausula. Behin betiko bermeak eta berme osagarriak. Atxikitzea 37
53. klausula. Berme epea 40
54. klausula. Konponketak 41
55. klausula. Bermeak konfiskatzeko jarduera protokoloa 42
56. klausula. Behin betiko bermeak, berme osagarriak eta lizentzia itzultzea 42
III.03.bis- SALDU OSTEKO JARDUKETA NEURRIAK 44
57. klausula. Kontratistaren saldu ondoko zerbitzua 44
III.04.- OBRA EGITEKO EPEA ETA ZIGORRAK 45
58. klausula. Obra egiteko epea 45
59. klausula. Obren hasiera 45
60. klausula. Obrak etetea 45
61. klausula. Kontratua suntsiaraztea epeak ez betetzeagatik 46
III.05.- OBRA EGITEA 46
62. klausula. Proiektua 46
63. klausula. Arriskua eta mentura 46
64. klausula. Eraikuntza enpresaren betebeharrak 47
65. klausula. Zuinketa akta 47
66. klausula. Proiektuko aldaketak 47
67. klausula. Neurketak handitzea eta likidazioa 50
68. klausula. Obren koordinazioa eta jarraipena 50
69. klausula. Obra osatugabeak, akastunak, onartezinak, etab. 51
70. klausula. Ikuskapenak eta erabilitako materialak 51
71. klausula. Baliabide teknikoak eta giza baliabideak 52
72. klausula. Urbanizazioa 53
73. klausula. Lursail mugakideak 53
74. klausula. Zabortegiak 53
75. klausula. Instalazioak 53
76. klausula. Obrak jabetzak nahi bezala egitea 53
77. klausula. Publizitatea 54
III.06- SEGURTASUN NEURRIAK ETA HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEAK 54
78. klausula. Segurtasun eta osasun plana 54
79. klausula. Enpresa jardueren koordinazioa 55

80. klausula. Gorabeheren liburua 55
81. klausula. Segurtasun neurriak 55
82. klausula. Istripuak 56
83. klausula. Hirugarrenentzako kalte ordainak 56
III.07.- ZERGA, LAN, GIZARTE SEGURANTZA ETA ASEGURUEN ARLOKO LEGEZKO XEDAPENAK BETETZEA 56
84. klausula. Zerga, lan, gizarte segurantza eta aseguruen arloko legezko xedapenak betetzea 56
85. klausula. Tributuen Lege Orokorreko 43. artikuluaren arabera emandako ziurtagiria egiaztatzea 57
86. klausula. Lan prekarietatea 57
III.08.- AZPIKONTRATAZIOA 58
87. klausula. Azpikontratatzeko baldintzak 58
88. klausula. Beto eskubidea 58
89. klausula. Kontratak azpikontratistekin dituen betebeharrak 59
90. klausula. Azpikontratistek lan eta gizarte arloko araudia betetzea 59
91. klausula. Azpikontratazioko bermeak 60
92. klausula. Azpikontratazioaren mugak 60
93. klausula. Eskubideak eta betebeharrak lagatzea 60
III.09.- OBRA HARRERA 61
94. klausula. Obra harrera egin aurreko jarduketak 61
95. klausula. Obren garbiketa 62
96. klausula. Obren harrera 62
97. klausula. Instalazioak martxan jartzea 64
98. klausula. Obren likidazioa 64
99. klausula. Obren harrera, kontratua suntsiaraziz gero 64
100. klausula. Obren likidazioa, kontratua suntsiaraziz gero 65
101. klausula. Obraren jabetza eta erabilera 66
102. klausula. Obrara sartzea 66
III.10.- KONTRATUA ALDATZEA, SUNTSIARAZPEN ETA KALTE ORDAINEN KASUETAN 66
103. klausula. Kontratua, azterlanak, zerbitzuak edo lan osagarriak aldatzea 66
104. klausula. Suntsiarazteko arrazoiak 68
105. klausula. IRUNVIk atzera egitea 69
106. klausula. Kontratistak kontratua suntsiaraztea 69

I ERANSKINA: PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN ETA FORMULAK APLIKATUTA AUTOMATIKOKI EBALUATZEN DIREN IRIZPIDEEN EREDUA 72

II. ERANSKINA: ONARPEN ETA AKABERAKO IRIZPIDEAK 75

III. ERANSKINA: BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO KONPROMISOA. 77

IV. ERANSKINA: ABALAREN BERMEAREN EREDUA 78

V. ERANSKINA KAUZIO-ASEGURUAREN ZIURTAGIRI BIDEZKO BERMEAREN EREDUA 79

VII. ERANSKINA: KONTRATISTEN ERREGISTROAN JASOTAKO DATUEN INDARRALDIAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA 81

VIII. ERANSKINA: Kontratazio-agiri europar bakarraren (KAEB) inprimaki normalizatua eta aholku-batzordearen jarraibideak 82

I.- LEHIAKETAREN XEDEA ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEA

I. 01.-LEHIAKETAREN XEDEA

1. klausula. Xedea

Kontratuaren xedea agiri honen karatulako 1. klausulan adierazitakoa da, betiere proiektuan zehaztutako baldintzei jarraikiz eta, hala badagokio, SPKLaren 204. eta 205. artikuluetan izapidetu daitezkeen aldaketei jarraikiz.

Xedea lotetan zatituta dagoenean, lote bakoitzaren xedea karatularen 1.3 klausulan zehaztuko da. Loteen esleipenaren mugak, kasuan kasu, aipatutako klausulan adieraziko dira, bertan adierazitako irizpideen arabera.

Agiri honetan kontratua edo esleipenduna aipatzen diren bakoitzean kontratuaren xedea banatzen den lote bakoitzari buruz ari direla ulertuko da, kasuan kasu.

Kontratuaren bitartez bete beharreko beharrak espedienteko beharren txostenean jasotakoak dira.

2. klausula. Proiektua

Obrak egiteko, Irungo Udalak 2021eko ekainaren 16an emandako obra lizentzia eta Obrako Lanen Proiektua hartuko dira kontuan. Proiektua osatzen duten dokumentuak kontratutzat hartuko dira, eta zuzendaritza fakultatiboak une bakoitzean ezartzen dituen jarraibideak beteko dira. IRUNVIk izendatuko du zuzendaritza hori. Erredakzio taldea eta zuzendaritza taldea karatulako 10. klausulan daude jasota.

3. klausula. Kontratuaren araubide juridikoa

Kontratua pribatua da, eta jarraian aipatuko diren arau eta agiriek arautzen dute:

a) Baldintza partikularren agiri honetan jasotako klausulak, agirian bildutako karatulako zehaztapenen arabera.

b) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, kontratua esleitzeko prozeduraren deialdia argitaratu zen unean indarrean zegoen bertsioan (SPKL).

c) 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena, SPKLan aurreikusitakoari aurka egiten ez dion heinean.

d) 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra (HAKLAO) onartzen duena, SPKLan aurreikusitakoari aurka egiten ez dion heinean.

e) 38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, eraikingintzaren antolamenduari buruzkoa.

f) 32/2006 Legea, urriaren 18koa, eraikuntzaren sektoreko azpikontratazioa arautzen duena.

g) Kontratutzat hartzen diren dokumentuak.

Estatuko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, erkidego honetan aplikatzekoak badira.

Agiri hau eta erantsitako gainerako dokumentuak kontratutzat hartuko dira. Agiri hau eta gainerako kontratuzko dokumentuak bat ez badatoz, agiri hau gailenduko zaie.

Kontratuaren klausuletako zehaztasunak, kontratuzko dokumentuak eta hitzartutakoa betearazteko aplikatu beharreko jarraibide edo arauak ez ezagutzeak ez du esleipenduna horiek betetzeko betebeharretik salbuesten.

Esleipena prozedura irekiaren bitartez egingo da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (azaroaren 8ko 9/2017, aurrerantzean SPKL) 156. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Kontratu hau erregulazio harmonizatutik kanpo dago.

4. klausula. Aurrekontua

Kontratuko lizitazioaren aurrekontua agiri honen karatulako 3. klausulan ageri da, eta klausula horretan ezarritako loteetan banatuta dago, hala badagokio. Prezioa zehazteko erabili den sistema aipatutako karatulako 3. klausulan ageri da.

Kalkulua egiteko, kontratuzko dokumentuen eta indarreko legeriaren arabera esleipendunaren konturakoak diren gastu eta balorazio faktore guztiak hartu dira kontuan, bai eta edozein motatako tributuak ere, Balio Erantsiaren gaineko Zerga izan ezik; azken hori partida independente gisa agertzen da.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen duten proposamenak baztertu egingo dira. Kontratuaren prezioa esleipenaren zenbatekoa izango da, eta inola ere ez da izango lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino handiagoa.

Balio zenbatetsia karatulako 12. klausulan ageri da.

Zenbateko hori prozedura publiko egiteko eta lizitatzaile posibleei informazioa emateko baino ez da adierazten, baina horrek ez du esan nahi, inolaz ere, IRUNVIk gastu konpromisorik hartzen duenik.

5. klausula. Gauzatzeko epea

Kontratua gauzatzeko kontratuzko epea agiri honen karatulako 5. klausulan zehaztu da, eta enpresa kontratistak ezin izango du aldatu bere eskaintzan.

Zuinketaren egiaztapenaren aktarekin batera hasiko da epe hori kontatzen. Nolanahi ere, epeak luzatu ahal izango dira enpresa kontratistak ezin baditu bete lepora ezin zaizkion arrazoiengatik.

6. klausula. Kontratatzailearen profila

Kontratazio organoaren kontratatzailearen profilera sartzeko, IRUNVIren webgunea erabili beharko da, URL helbide honetan:
https://www.irunvi.com/eu/gardentasuna/kontratatzailearen-profila/kontratatzailearen-profila-actual
IRUNVIren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira espedienteko datu eta informazio guztiak.

Lizitatzaileek agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehiago eskatu ahal izango dute, lizitazioaren iragarkian eskaintzak jasotzeko ezarritako azken eguna baino 12 egun lehenago. Proposamenak aurkezteko epea amaitu baino sei (6) egun lehenago emango da informazio hori. Kontsulta eta informazio eskaera horiek posta elektronikoko kontu honetan egin beharko dira: Irunvi@irun.org

I. 02.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

7. klausula. Proposamenak aurkeztea

Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita edo ofizialki itzulita aurkeztu beharko da.

Karatulako 15. klausulan kontratua esleitzeko prozedura izapidetzeko bitartekoak elektronikoak ez direla adierazten ez bada, eskaintzak bitarteko elektronikoen bitartez aurkeztuko dira, Euskadi Lizitazio Elektronikoko Sisteman dagoen Kontratazio Publikoa Euskadi - Plataforma Contratación Pública en Euskadi izeneko aplikazioa erabilita.

Prozeduran interesa duten enpresek karatulako 16. klausulan adierazitako epean (eguna eta ordua) aurkeztu beharko dituzte karatulako 19. klausulan aipatutako dokumentuak.

8. klausula. Aurkezpen telematikoa edo ez telematikoa

8.1. Kontratazio prozeduraren izapideetarako lizitazio elektronikoaren sistema erabiltzeko baldintzak:

1 Administrazio baldintzak:

a) EAEko Administrazioak izapidetze elektronikorako baimendu duen ziurtagiri digital bat izatea. Gaur egun, honako hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:

- Izenpe (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria)
- FNMT (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria)
- e-NANa
- Camerfirma (entitatea, herritarra, ziurtagiri horiekin oso jende gutxi sartu da aplikazioan

b) Egoera hauetakoren batean egotea:

i. Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda egotea eta indarreko ziurtagiria izatea.
ii. Aldi baterako gaikuntza sisteman alta emanda egotea.
iii. Operadore ekonomiko bi edo gehiago elkartuta aurkezten badira, eta esleipendun izanez gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoa hartzen badute: ABEEaren konpromisoak aldi baterako gaikuntza sisteman erregistratuta egon behar du.

2. Baldintza teknikoak:

Baldintza teknikoei buruzko informazioa esteka honetan eskura daiteke:

https://apps.euskadi.eus/w32content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/cambios_configuracion.html

3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko laguntza zerbitzua: 945 016 298.

8.2 Aurkezteko modua:

a) Agiri honetako 21. klausulan adierazitako dokumentuak erantsi behar dira, aplikazioan agertzen diren gutun azaletan sartuta, klausula horren arabera.
b) Biltegiratutako dokumentuei dagokienez, luzapen jakin batzuk dituzten dokumentuen kasuan soilik bermatzen da irakurri eta izapidetuko direla; honoa hemen luzapenak: .doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf., .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg, .bmp, .tiff, .zip, eta .7z
c) Birusen presentziak sistemaren eraginkortasunean izan dezakeen eragina minimizatzeko, dokumentuak .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuetan bidaltzea gomendatzen da.
d) Eskaintza dagokion aurkezpen epean jasotakotzat hartuko da, baldin eta transmisioa epe horren barruan hasi eta behar bezala amaitzen bada.

8.3 Bitarteko ez elektronikoak edo paperean:

1.- Aurkezteko modua:

a) Agiriak gutun azal itxietan aurkeztuko dira, operadore ekonomikoak edo haren ordezkariak sinatuta. Gutun azal bakoitzaren barruan, bertan sartutako dokumentuen aurkibide zenbakitu bat txertatuko da eta, kanpoaldean, honako datu hauek adieraziko dira:

i. Dagokion gutun azalaren identifikazioa (A, B, C edo beste batzuk), agiri honetako 21. klausulan xedatutakoaren arabera.
ii. Kontratuaren identifikazioa: espediente zenbakia eta xedea.
iii. Lizitatzailearen identifikazioa: pertsona juridikoa bada, sozietatearen izena eta IFZ adieraziko dira; eta pertsona fisikoa bada, izen-abizenak eta NANaren edo agiri baliokidearen zenbakia.
iv. Eskaintza sinatzen duen pertsona fisikoaren identifikazioa: izen-abizenak eta NANaren edo agiri baliokidearen zenbakia.

b) Gutun azalak lizitazioaren iragarkian ezarritako epearen –eguna eta ordua– barruan aurkeztuko dira, karatulako 16. klausulan adierazitako erregistroan, edo postetxean, gero bidaltzeko.

1.1. Eskaintzak paperean aurkeztea baimenduz gero, dokumentazioa postetxean aurkezten bada, lizitatzaileak posta elektronikoz jakinarazi beharko du, egun berean, bidalketa egin duela, karatulako 11. klausulan agertzen den helbidera mezua bidalita. Posta elektronikoz bidalitako jakinarazpena baliagarria izango da honako hauek jasota geratu badira: mezuaren transmisioa eta harrera, datak eta komunikazioen eduki osoa; eta igortzailea eta hartzailea ere modu fidagarrian identifikatu behar dira. Kasu horretan, mezuaren kopia inprimatu eta erregistratu egingo da, eta espedientean sartuko da.

1.2 Bidalketaren berri ematen duen mezuan kontratua eta lizitatzailea identifikatu behar dira. Horrekin batera, postetxeko bulegoak emandako ezarpen-egiaztagiria aurkeztuko da. Lizitazioaren iragarkian adierazitako dataren segidako hamar (10) egun natural igarotzen badira dokumentazioa jaso gabe, dokumentazio hori ez da inolaz ere onartuko.

9. klausula. Jakinarazpenak eta komunikazioak

9.1 Jakinarazpenaren eta komunikazioaren xede diren jarduketak

Esleipen erabakia jakinaraziko da, bai eta SPKLaren 44.2 artikuluan definitutako izapide egintzak ere.

Jakinarazpentzat joko dira honako hauek: argibide eskaerak, akatsak edo omisioak zuzentzeko errekerimenduak, agirian aurreikusitako dokumentuak aurkezteko errekerimenduak eta SPKLaren 44.2.b artikuluan jasotako beste izapidezko egintza batzuk.

9.2 Eskaintzak bitarteko elektronikoen bitartez aurkeztea

Jakinarazpenak eta komunikazioak lizitazio elektronikoaren sistemaren bitartez egingo dira.

10. klausula. Kontratazio Mahaia

Kontratazio Mahaiko kide izango dira honako hauek: Administrazio Kontseiluko lehendakaria edo hark eskuordetzen duen kontseilaria, zuzendari kudeatzailea edo hark eskuordetzen duen pertsona, Administrazio Departamentuko burua edo hark eskuordetzen duen pertsona, eta Sozietatearen aholkulari juridikoa edo hark eskuordetzen duen pertsona; azken hori izango da Mahaiko idazkari. Kontratazio Mahaian parte hartuko dute, halaber, parte hartu nahi duten kontseilariek. Kontratazio Mahaiak kontratuaren xedearekin loturik beharrezkotzat hartzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu bere proposamena egin aurretik.

11. klausula. Fitxategi Elektronikoak irekitzea

Kontratazio Mahaiak A fitxategi elektronikoen edukia aldez aurretik aztertuko du, eta garaiz eta behar bezala aurkeztutako Erantzukizunpeko Adierazpenak egiaztatuko ditu. Egiaztapen hori egiteko, Kontratazio Mahaiko lehendakariak gutun azalak irekitzeko aginduko du. Mahaiak ikusten badu aurkeztutako dokumentazio horretan akats materialak daudela, enpresa interesdunei jakinaraziko die, eta enpresa lizitatzaileari hiru egun baliodunetik beherako epea emango dio akatsa konpon dezan.

Aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatu eta, hala badagokio, hautemandako akatsak edo omisioak zuzendu ostean, Kontratazio Mahaiak lizitaziorako onartutako enpresak zeintzuk diren zehaztuko du, eta berariaz adieraziko du zer enpresa baztertu diren eta zergatik.

Hala badagokio, Kontratazio Mahaiak C fitxategi elektronikoak irekiko ditu (balio judizioaren arabera haztatu beharreko irizpideei dagokien dokumentazioa). C fitxategi elektronikoak ireki ondoren, haietan jasotako dokumentazioa balorazioaz arduratzen den organoari entregatuko zaio.

Kontratazio Plataforman adierazitako tokian, egunean eta orduan, B fitxategi elektronikoak irekitzeko ekitaldi publikoa egingo du Kontratazio Mahaiak. Fitxategi horietan, onartutako enpresa lizitatzaileek aurkeztutako proposamen ekonomikoak jasoko dira.

Ekitaldi horretan, eta B fitxategi elektronikoak ireki aurretik, A fitxategi elektronikoetan sartutako Erantzukizunpeko Adierazpenak egiaztatzearen ondorioz lizitaziorako onartutako eta baztertutako enpresa lizitatzaileak zeintzuk diren jakinaraziko da, eta C fitxategi elektronikoetan jasotako dokumentazioan aipatzen diren proposamenen alderdi teknikoen balorazioa irakurriko da.

12. klausula. Eskaintza bakarra

Enpresa bakoitzak eskaintza bakarra aurkeztuko du, eta ez da eskaintza horren aldaerarik onartuko. Bakarka aurkezten bada, lizitatzaileak ezin izango du ezein proposamen sinatu beste enpresaburu batzuekin aldi baterako elkartea eginda, edo ezin izango du aldi baterako enpresa elkarte batean baino gehiagotan agertu. Debeku horiek urratuz gero, ez dira onartuko lizitatzaile horrek izenpetutako proposamen guztiak.

Eskaintzen balio epea SEI (6) hilabete izango da, proposamen ekonomikoak irekitzen diren egunetik zenbatzen hasita.

13. klausula. Kontratatzeko ahalmena

Lizitazio honen esleipena eskuratu ahal izango dute pertsona naturalek nahiz juridikoek, espainiar nazionalitatekoek edo atzerritarrek, baldin eta jarduteko erabateko gaitasuna badute, ez badute kontratu bat egiteko debekurik eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo profesionala egiaztatu badute, edo behar bezala sailkatuta badaude.

Era berean, aurreko paragrafoan adierazitako betekizunak betetzen dituzten eta legez aurreikusitako baldintzen arabera ABEE batean elkartutako pertsonek ere parte har dezakete.

Gainera, pertsona juridikoen kasuan, agiri honen xede diren kontratuetako prestazioak haien sozietate estatutuen edo fundazio arauen arabera berezkoak dituzten helburu, xede edo jarduera eremuaren barruan egon behar dira.

Europar Batasunetik kanpoko enpresa atzerritarrek, gainera, SPKLaren 68. artikuluan ezarritako baldintzak ere bete beharko dituzte eta, esleipendun izanez gero, SPKLaren 68.2 artikuluan ezarritakoa bete beharko dute.

14. klausula. Ekonomia eta finantza kaudimenaren eta kaudimen tekniko edo profesionalaren betekizunak. Sailkapena

Kaudimen hori agiri honen karatulako 17. klausulan adierazitako sailkapenaren bitartez egiaztatuko da, betiere kontratuak sailkapenaren betekizuna bete behar badu (sailkapena nahitaezkoa denean) edo, bete behar ez badu (nahitaezkoa ez bada), lizitatzaileak kaudimena egiaztatzea erabakitzen badu, klausula horretan adierazitako sailkapenaren bitartez. Sailkapena ez bada nahitaezkoa, lizitatzaileak edo hautagaiak karatulako 17. klausulan xedatutakoaren arabera egiaztatu ahal izango du kaudimena.

Kasu horretan, dagokion Erregistroak emandako zerrenda baloratuaren bitartez adierazten den talde, azpitalde eta kategoria bereko edo goragoko obra kontratuak egiteko sailkapena indarrean duela egiaztatu beharko du lizitatzaileak edo hautagaiak. Zerrenda baloratu horrekin batera, enpresak Erantzukizunpeko Adierazpena aurkeztu beharko du, ziurtagirian jasotako inguruabarrak ez direla aldatu adieraziz.

Sailkapena ezingo zaie eskatu Europar Batasuneko kide edo Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioaren sinatzaile diren estatuetako enpresaburu ez espainiarrei, beren aldetik edo elkarte baten barruan aurkezten diren gorabehera, baina horrek ez du esan nahi kaudimena egiaztatzeko betebeharra bete behar ez dutenik.

Kontratu jakin bat egiteko beharrezkoa den kaudimena egiaztatzeko, enpresaburuak beste erakunde batzuetara jo dezake haien kaudimena eta baliabideak erabiltzeko, edozein dela ere haiekiko dituzten harremanen izaera juridikoa. Nolanahi ere, kasu horietan, kaudimen eta baliabide horiek kontratua gauzatzen den denbora guztian egiazki erabil ditzakeela frogatu beharko du, eta gainera beste erakunde horrek ez du kontratatzeko inolako debekurik izan behar.

Baldintza berberetan, SPKLaren 69. artikuluan aipatzen diren aldi baterako elkarteetan elkartuta lehiatzen diren enpresaburuek aldi baterako elkartetik kanpoko erakundeen gaitasunak erabili ahal izango dituzte.

Hala ere, gaitasun tekniko eta profesional gisa eta esperientzia profesional gisa aipatzen diren ikasketa tituluei eta lanbide tituluei buruzko irizpideei dagokienez, enpresek beste erakunde batzuen gaitasunak erabili ahal izango dituzte, baldin eta gaitasun horiek beharrezkoak dituzten obrak egingo badituzte.

Enpresa batek beste erakunde batzuen gaitasunak erabili nahi baditu, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztuko du. Idatzizko konpromiso horretan adierazi beharko da bien erantzukizuna solidarioa dela.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak soilik aurkeztuko du konpromisoa, justifikaziorako dokumentazioa aurkezteko eskatzen zaionean, SPKLaren 150.2 artikuluaren arabera.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 75.4, 76.1 eta 76.2 artikuluen ondorioetarako, karatulako 17.4 klausulan adierazitako giza baliabideak kontratuaren gauzatzeari atxikitzeko konpromisoa hartuko dute lizitatzaileek.

Konpromiso horiek kontratuan txertatuko dira, funtsezko betebehar gisa, SPKLaren 211. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta agiri honetan ezarritako zigorren arabera.

Kaudimenaren irizpideak edo baliabideak adskribatzeko betekizunak betetzen ez badira, Kontratazio Mahaiak ez du lizitatzailea onartuko prozedura honetarako.

15. klausula. Kontratatzeko debekuak

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan xedatutako kontratatzeko debekuak beteko dira.

Era berean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluaren 3. zenbakian xedatutakoa aplikatu beharrekoa izango da kasu honetan, kontratatzeko debekuaren eragina hedatzeari dagokionez: zuzendaritzan dauden pertsonei edo bestelako inguruabarrei erreparatuta, pentsa badaiteke enpresa horiek kontratazio debekua jaso duten beste enpresa batzuen jarraipena direla edo eraldatze, bat-egite edo ondorengotza bitartez haiengandik datozenak direla.

Artikulu horretako 1. zenbakiaren c), d), f), g) eta h) letretan aipatzen diren kontratatzeko debekuak IRUNVIk baloratuko ditu zuzenean, eta indarrean jarraituko dute debeku horiek ezartzen dituzten inguruabarrek dirauten bitartean. Gainerako kasuetan, kontratatzeko debekua ezartzeko, IRUNVIk adierazpena egin beharko du aldez aurretik, horretarako prozedura baten bidez, eta debekuaren iraupena zehaztu beharko du.

II.- DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZAK ETA KONTRATUA ESLEITZEA

II .01.-DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZAK

16. klausula. Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean eta EAEko Kontratisten Erregistro Ofizialean erregistratzea

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko erregistro ziurtagiriak, bertan jasotakoaren arabera eta kontrako frogarik ezean, enpresaburuaren gaitasun baldintzak egiaztatuko ditu, bere nortasunari eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari, gaitasun profesional edo enpresarialari, kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesionalari, sailkapenari eta erregistratutako gainerako inguruabarrei dagokienez, bai eta bertan jasotako kontratatzeko debekuak betetzen diren ala ez ere.

Halaber, Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean erregistratzeak aurreko paragrafoan jasotako inguruabar berberak egiaztatuko ditu.

17. klausula. Dokumentazioa

Agiri hau, honekin batera doazen Proiektuen dokumentuekin eta Irungo Udalak 2021eko ekainaren 16an emandako obra lizentziarekin batera, lehiaketaren dokumentazioaren zati bat da, eta kontrataziorako ez ezik, kontratuaren prestazioa gauzatzeko ere oinarria izango da.

Eskaintzak aztertu eta aurkezteko oinarrizko dokumentazioa honako hauek osatzen dute:

a) Klausula Administratiboen Agiri hau, Obrako Lanen Kontratuarekin batera.

b) Irungo Udalak 2021eko ekainaren 16an emandako obra lizentzia.

c) Obraren proiektu teknikoa; honako dokumentu hauek sartzen dira:

- Memoria
- Memoriaren eranskinak:
  - Azterketa geoteknikoa
  - Eraikinaren instalazioak
  - HE-Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria eta HS betetzea
  - Passivhaus auditoretza, proiektu fasean
  - Ingurumen inpaktuaren azterketa
  - Kalitate Kontrolaren Plana
  - Segurtasun eta Osasun azterketa
  - Hondakinen kudeaketaren azterketa
  - Txosten akustikoa
- Planoak
- Baldintza Agiria
- Segurtasun eta Osasun azterketa
- Aurrekontua

d) Telekomunikazioko azpiegitura komunen proiektua; honako dokumentu hauek sartzen dira:

- Memoria

- Planoak
- Baldintza Agiria
- Aurrekontua

18. klausula. Agiria onartzea

Eskaintzak aurkezteak zera esan nahi du, lizitazioa arautzen duten agirietan araututakoa eta agiriekin batera doazen dokumentuak berariaz onartzen dela, baldintzarik gabe, eta haiei men egiten zaiela. Agiri hau nahitaez bete beharko du lehiaketa esleitzen zaion enpresa kontratistak, bai eta, eskaini dituen baldintzen artean, Agirian ezarritakoak hobetzen dituztenak ere.

19. klausula. Lizitazioaren prozedura

Kontratua lehiaketa publiko bitartez esleituko da, prozedura irekia erabilita, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 316. artikuluan 156. artikuluari eta hurrengoei buruz xedatzen denaren arabera.

Prozedura ireki horretan, enpresa interesdun guztiek aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak, baldin eta eskatutako kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak betetzen badituzte eta kontratatzeko debekurik ez badute.

20. klausula. Lizitazioaren publizitatea

Lehiaketarako deialdia IRUNVIko Kontratatzailearen Profilean argitaratutako iragarkiaren bitartez egingo da.

21. klausula. Proposamenak aurkeztea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

21.1.- Lizitatzaileek honela osatu beharko dute eskaintza:

- "A" gutun-azala.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

a) Operadore ekonomikoaren Kontratazio Agiri Europar Bakarra (KAEB), behar bezala beteta. Helbide honen bitartez bete behar da: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espdweb/filter?lang=es; eta kontratatzailearen profilean argitaratutako xml fitxategia.

b) Behin-behineko bermea, karatulako 6. klausulak hala eskatzen badu.

c) Baliabideak adskribatzeko konpromisoa, agiri honen III. eranskinaren arabera.

d) Operadore ekonomikoak emandako informazioak konfidentzial izendatzea.

e) Enpresa talde bateko kide diren enpresek –halakotzat hartzen dira Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko kasuren batean daudenak– taldea osatzen duten bazkideei

buruz artikulu horretan aipatzen diren alderdiei buruzko adierazpena aurkeztu beharko dute. Esleipenean banaka parte hartzeko proposamen bat baino gehiago aurkezten badute, baldintza hori jasotzen duen adierazpena aurkeztu beharko dute, lehiakideen izena adierazita. Era berean, enpresa talde bateko kide ez diren lizitatzaileek hori dioen adierazpena aurkeztu beharko dute.

f) Esleipenaren aurreko fasean aldi baterako elkartea eraginkorra izan dadin IRUNVIri dagokionez, enpresaburu guzti-guztiek klausula honetan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte, bai eta konpromiso solidarioko idazki bat ere, honako alderdi hauek adieraziz: elkartea osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak; horietako bakoitzaren partaidetza; esleipendun izanez gero, aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa bere gain hartzen dutela eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarraren izendapena, kontratuaren ondoriozko eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordea duena. Elkartea osatzen duten enpresa guztietako ordezkariek izenpetu beharko dute dokumentu hori.

   Kontratua aldi baterako enpresa elkarte bati esleitzen bazaio, elkarte horrek kontratua eskritura publiko bidez egiaztatuko du eratu dela, bai eta elkarte horri kontratua formalizatu aurretik esleitutako IFK ere. Kontratuaren iraupenarekin bat etorriko da elkartearen iraupena, kontratua azkendu arte.

g) Ingurumena kudeatzeko sistemaren ziurtagiria.

h) Enpresa kontratistaren zinpeko adierazpena, bere profesionaltasuna eta jarraitutasuna bermatzen duen enpresako langile finkoen ehunekoa betetzen duela ziurtatzeko, betiere Eraikuntzaren Sektoreko Azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legean adierazitako baldintzetan, hau da: gutxienez % 10 Legearen indarraldiko lehen 18 hilabeteetan, gutxienez % 20 hemeretzigarren hilabetetik hogeita hamaseigarren hilabetera bitarte, eta gutxienez % 30 hogeita hamazazpigarren hilabetetik aurrera.

i) Lehiaketaren esleipendun izanez gero, enpresak honako konpromiso hauek hartzen dituela dioen adierazpena egin beharko du arduradunak:

   1.- Eraikuntza enpresaren konpromisoa, eskaintza aurkezten denetik obra hartzen den arte lantaldeari eusteko. Saldu ondoko arduradunak bermeak itzultzen diren egunera arte iraun beharko du.

   2.- Obrako lanen kalitatea Bermatzeko plana egitea, "UNE-EN ISO 9001:1994 araua eraikuntza enpresetan aplikatzeko gida" liburuan ezarritako gutxieneko edukiarekin. Esleipena egiteko, aipatutako dokumentu hori aurkeztu beharko da.

j) Azpikontratistei dagokien zerrenda eta informazioa: enpresak, hala badagokio, kontratuaren zati bat gauzatzeko hitzartuko dituen azpikontratisten zerrenda biltzen duen adierazpena aurkeztuko da, eta bertan adieraziko dira kontratuaren zein zati azpikontratatuko den, azpikontratazioaren zenbatekoa eta enpresaren izena edo profila, azpikontratisten kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen arabera zehaztuta.

21.2.- Europako Ekonomia Erkidegoko kide diren herrialdeetako enpresa ez espainiarrek eta atzerriko gainerako enpresek "A" gutun azalean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, honela egiaztatuko da:

- Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresaburu ez espainiarrak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu dutenak direnean, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, profesionalen edo merkataritza erregistro batean erregistratuta egon beharko dute, dagokion Estatuko legeriak betekizun hori eskatzen duenean; edo, bestela, obra kontratuetarako kaudimen tekniko gisa adierazten diren ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

- Sektore publikoarekin kontratatzeko gaitasuna izango dute Europar Batasuneko Estatu kideetako enpresa ez espainiarrek, finkatuta dauden Estatuko legeriaren arabera dena delako prestazioa egiteko gaitasuna baldin badute. Enpresa horiek finkatuta dauden Estatuko legeriak baimen berezi bat edo erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen badu dagokion prestazioa egin ahal izateko, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

- Aurreko paragrafoan sartzen ez diren atzerriko enpresak direnean, txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko Estatuak onartzen duela Espainiako enpresek sektore publikoko erakundeekin egindako kontratazioetan parte hartzea, funtsean modu bertsuan. Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du txosten hori eta aurkezten den dokumentazioarekin batera joango da. Erregulazio harmonizatu baten mende dauden kontratuetan, ez da elkarrekikotasun txostenik aurkeztu beharko Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresei dagokienez.

- Horretaz gain, obra kontratuen esleipendun suertatzen diren Europar Batasunetik kanpoko enpresei Espainian sukurtsal bat irekitzea eskatzen zaie, eragiketetarako ahaldun edo ordezkariak izendatzea eta Merkataritza Erregistroan erregistratuta egotea.

- Kontratua egiteko behar den enpresa edo lanbide gaikuntza egiaztatzeko dokumentazioa.

- Amaitutako azken hiru urteetatik negozio bolumen handieneko urteari dagozkion urteko kontuak, onartuak eta erregistratuta egon behar duen Erregistro ofizialean gordailututakoak.

- Azken bost urteetan etxebizitzak eraikitzeko egin diren obren zerrenda (2014ko azarotik 2021eko irailera bitarte obra amaierako ziurtagiria jaso duten proiektuak), eta kontratuari dagokion sailkapeneko talde edo azpitalde bereko edo, kontratuan hainbat talde edo azpitalde sartzen badira, horietan garrantzitsuena den talde edo azpitaldeko hiru obra, gutxienez, egin direla egiaztatu beharko da, betiere obra horien balioa kontratu honen balio zenbatetsiaren berdina edo handiagoa izanik.

- Atzerriko enpresek dokumentazioa gaztelaniara edo euskarara era ofizialean ekarrita aurkeztuko dute.

- Adierazpen baten bitartez, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien

jurisdikzioaren mende jarriko direla adieraziko dute eta, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari uko egingo diotela.

- "B" GUTUN AZALA.- ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUTA EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

Gutun azal hori karatulako 19. klausulan jasotako baldintzen arabera aurkeztu beharko da.

- "C" GUTUN AZALA.- BALIO JUDIZIOAREN BITARTEZ APLIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK

Gutun azal hori karatulako 19. klausulan jasotako baldintzen arabera aurkeztu beharko da.

II 02.- KONTRATUAREN ESLEIPENA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZAK

22. klausula. Eskaintzak baloratzeko irizpideak

Eskaintzak baloratzeko irizpideak karatulako 18. klausulan adierazitakoak izango dira.

23. klausula. Txostenak

Eskaintzen edukiari buruz beharrezkoak diren txosten teknikoak egiteko eskatu ahal izango du Mahaiak.

24. klausula. Kontratazio organoa

Kontratazio Organoa IRUNVIren Administrazio Kontseilua da.

25. klausula. Kontratuaren arduraduna

Kontratua gauzatzeko eta jarraipena egiteko eginkizun arruntak alde batera utzi gabe, kontratuaren arduradunari dagokio lanak gainbegiratzea eta ikuskatzea, eta honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Prestazioa behar bezala egiten dela bermatzeko behar diren jarraibideak idatziz ematea.

b) Obrako zerrenda baloratuak onartzea.

c) Prestazioa behar bezala egin eta hartu dela egiaztatzea.

d) Kontratistak kontratuaren arabera bere gain hartutako betebeharrak betetzen dituela gainbegiratzea eta egiaztatzea, gerta litezkeen ez betetzeen berri ematea kontratazio organoari eta, hala badagokio, kontratua suntsiarazteari edo zigorrak ezartzeari buruzko informazioa ematea.

e) Kontratua gauzatzeari derrigorrez atxiki ziren giza baliabideen eta baliabide materialen aldaketari buruzko informazioa ematea.

f) Beharrezkoak diren aldaketak proposatzea.

g) Gauzatzean atzerapenik izanez gero, atzerapena kontratistari egotz dakiokeen zehazten duen txostena egitea.

Kontratuaren arduraduna eta kontratazio organoa ez badatoz bat kontratua betetzeari eta gauzatzeari dagokienez, kontratazio organoaren irizpidea gailenduko da.

26. klausula. Esleipena

Jasotako txosten teknikoak eta Mahaiak gutun azaletako dokumentazioari buruz egiten duen balorazioa ikusita, Kontratazio Mahai horrek esleipen proposamena egingo dio IRUNVIko Administrazio Kontseiluari, kontratazio organoa den aldetik. Lizitazioa lotetan banatuta badago, karatulako 1.3 klausulan ezarritakoa beteko da horiek esleitzeko. Balorazio irizpideen arabera, oro har, eskaintza ekonomiko onena egin duen enpresaren edo enpresaburuaren alde egingo da esleipen proposamena, baina ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzaileari begira. Nolanahi ere, Kontratazio Kontseiluak kontratua egindako proposamenaren arabera esleitu ezean, erabaki horren zergatia adierazi beharko du.

Kontratazio Mahaiak egindako esleipen proposamena ikusita eta aipatutako espezialitateak aintzat hartuta, IRUNVIko Administrazio Kontseiluak oniritzia emango dio esleipen proposamenari, eta Kontratazio Mahaiari ahalmena emango dio ekonomikoki onena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileari hurrengo klausulan eskatzen den justifikazioko dokumentazioa aurkez dezan eskatzeko, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta behin-behineko bermea konfiskatuko zaio. Eta dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, Administrazio Kontseiluak emandako oniritziarekin eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran. Kasu horretan, hamar egun balioduneko epea emango zaio lizitatzaile horri aipatutakoa betetzeko.

IRUNVIk dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean esleituko du kontratua, eta esleipendunari eta gainerako lizitatzaileei jakinarazteaz gain, IRUNVIren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua esleitu eta errekurtsoak aurkezteko epean halakorik aurkezten ez bada, proposamenei erantsitako dokumentazioa interesdunen esku geratuko da. Esleipena jakinarazi den egunetik hilabeteren buruan interesdunek ez badute dokumentazioa erretiratzen, IRUNVIk ez du hura zaintzen jarraitu beharrik izango.

27. klausula. Esleitu aurreko betekizunak

Kontratazio Organoak mahaiaren proposamena onartutakoan, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari 10 laneguneko epea emango zaio, errekerimendua jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita, jarraian adierazitako dokumentazioa aurkezteko:

1. Jarduteko gaitasuna egiaztatze aldera:

   a) Eskritura eta estatutuak: enpresa esleipenduna pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan erregistratutako eraketa eskritura, aldaketa eskritura eta indarreko estatutuak aurkeztu beharko ditu, baldin eta aplikatu beharreko merkataritzako legeriaren arabera eskakizun hori bete beharrekoa bada. Hala ez bada, haren eskritura edo eratze dokumentua, aldaketakoa, estatutuak edo jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituen eratze ekintza aurkeztu behar dira; dokumentu horiek, hala badagokio, dagokion Erregistro Publikoan erregistratuta egongo dira, pertsona juridikoaren motaren arabera.

   b) Europar Batasuneko estatu kideetakoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuetako lizitatzaile ez espainiarrek SPKLaren 84. artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dute beren jarduteko gaitasuna.

   c) Gainerako lizitatzaile atzerritarrek SPKLaren 84.3 artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

2. NANa: norberaren izenean edo ahaldun gisa eskaintza edo parte hartzeko eskaera sinatu duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala.

3. Ahalordetzea: eskaintza edo parte hartzeko eskaera sinatu duen pertsonak bere izenean jarduten ez duenean, edo enpresa esleipenduna sozietate edo pertsona juridiko bat denean, sinatzaileak horretarako behar besteko ahalordea aurkeztu beharko du. Enpresa interesduna pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan erregistratuta egon beharko du. Ekintza zehatz baterako ahalordea denean, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan erregistratzea, Merkataritza Erregistroaren Araudiaren 94.1.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. Enpresa edo lanbide gaikuntza: karatulan zehazten bada, enpresa edo lanbide gaikuntza egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.

5. Kaudimena: karatulako 17. klausularen arabera gutxieneko kaudimen baldintza batzuk bete behar direnean, lizitatzaileak klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du, egiaztatzeko, salbu eta baldintza horien ordez sailkapena aurkeztu bada. Sailkapena eskatzen bada, esleipendunak karatulan adierazitako talde, azpitalde eta kategoria bereko edo handiagoko obra kontratuak egiteko indarrean dagoen sailkapen ziurtagiria aurkeztu beharko du, Erregistro eskudunak emandako ziurtagiriaren bitartez. Ziurtagiri horrekin batera, enpresak Erantzukizunpeko Adierazpena aurkeztu beharko du, ziurtagirian jasotako inguruabarrak ez direla aldatu adieraziz.

6. Lizitatzaileak, hala badagokio, kontratuaren gauzatzeari derrigorrez atxiki behar izan dizkion baliabide materialak eta giza baliabideak erabilgarri izatea.

7. Beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak eskuragarri izatea kontratua indarrean dagoen bitartean, baldin eta lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak erabili baditu.

8. Kontratatzeko debekurik eza: SPKLaren 85. artikuluaren arabera kontratatzeko debekurik ez dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.

9. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

10. Behin betiko bermea, esleipen aurrekontuaren zenbatekoaren % 5ekoa (kontrata bidez egitea, BEZik gabe).

11. Irungo Udalak 2021eko ekainaren 16an emandako lizentzian ezarritako fidantzak eratzea, agiri honen 42.b) klausulan ezarritako zenbatekoekin eta modura.

12. Aldi Baterako Enpresa Elkartea. Aldi Baterako Enpresa Elkartea formalizatzeko eskritura, esleipenduna ABEE bat bada, Enpresen Aldi Baterako Elkarte eta Batasunen Araubide Fiskalari buruzko maiatzaren 26ko 18/1982 Legearekin eta hura aldatzen duten arauekin bat etorriz. Baita Identifikazio Fiskaleko zenbakia ere.

13. Epearen konpromisoa. Obra guztietarako guztizko epea eta elementu garrantzitsu hauek amaitzeko epe partzialak betetzeko konpromisoari buruzko dokumentazioa aurkeztea: zimenduak berdintzea, zero kota amaitzea, estalkia amaitzea, trenkadak amaitzea eta obra amaitzea.

14. Prezioaren konpromisoa. Esleipendunaren eskaintzaren neurketen egoerarekin berariazko adostasuna adierazten duen dokumentu bat sinatzea. Beraz, gauzatu beharreko unitateen kopuruetan eta, errealitatearekin alderatuta, neurketetan sor daitezkeen aldeak, gutxi gorabehera, ez dute inolako aldaketarik eragingo goranzko prezio globalean.

15. Kontratistak datuak tratatzea. Obra egiteagatik kontratistak datuak tratatu behar baditu, adierazpen bat aurkeztu beharko du zera adierazteko, non kokatuko diren datuak gordetzeko zerbitzariak eta nondik emango diren horiei lotutako zerbitzuak. Kontratuaren iraunaldian adierazpeneko informazioan aldaketarik gertatuz gero, horren berri emateko betebeharra jaso beharko da adierazpenean.

27.2.- Lehentasun arauak, dokumentazioan kontraesanak egonez gero.

1. Kontratuko estipulazioen eta beste edozein dokumenturen (Agiria, Obrako Lanen Proiektua…) edukia bat ez badatoz, kontratuan adierazitakoak izango du lehentasuna.

2. Obrako Lanen Proiektua osatzen duten dokumentuak bat ez badatoz, Agiri honetan zerrendatutako dokumentuen hurrenkera gailenduko da (Planoak, Preskripzio Tekniko Partikularren Agiriak, Proiektua, Memoria, Kontratazio baldintzen Agiria, Neurketak, Aurrekontua).

Kontratua sinatu ostean, kontrata esleipendunak ezin izango du inolako erreklamazio edo uzi ekonomikorik aurkeztu kontzeptu horiengatik, eta erabakiak hartzea zuzendaritza fakultatiboaren iritzi onari egokituko zaio.

28. klausula. Esleipena, ebazpena emanez gero

Hasierako esleipendunari kontratua suntsiarazten bazaio, arrazoia edozein dela ere, IRUNVIk kontratu berria lehiaketan parte hartu duten enpresetako bati esleitzeko ahalmena izango du (ahal dela, lortutako puntuazio ordenaren arabera, IRUNVIren ustez lehentasun horri ez jarraitzea komenigarritzat jotzeko arrazoiak daudenean izan ezik, eta eskainitako baldintzak aldatu gabe), edo lehiaketan parte hartu ez duen hirugarren enpresa bati, baldin eta, IRUNVIren iritziz, erabaki horren egokitasuna justifikatuta badago eta betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitako kasuekin bat etorriz.

29. klausula. Kontratua formalizatzea

Kontratua hamabost egun balioduneko epean formalizatuko da, esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta SPKLaren 154. artikuluan ezarritako moduan argitaratuko da.
Kontratua formalizatu aurretik, nahitaezkoa izango da honako hauek aurkeztea:

- Neurtu beharreko obra unitate bakoitzerako unitateko prezioak, honako hauek barne hartuta: materialen prezioak, eskulana errendimenduaren eta orduko kostuaren arabera kuantifikatuta, beharrezko baliabide osagarriak, zeharkako gastuak, gastu orokorrak eta mozkin industriala. Eskainitako prezioek ezin izango dute aldatu proiektuan obra unitateetarako zehaztutako materialen definizioa, zehaztapenak edo zenbatekoak, ezta horietako bakoitzaren prezioa osatzen duten zuzeneko eta zeharkako kostuen definizioa ere. IRUNVIk agiri hori onartu beharko du, kontratua formalizatu baino lehen.

- Azpikontratistak. Prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi den adierazi behar da, bai eta azpikontratistaren identitatea, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak ere, eta behar bezala justifikatu behar da azpikontratistak prestazio hori egiteko duen gaitasuna, dauzkan elementu teknikoak, giza baliabideak eta esperientzia kontuan hartuta; era berean, azpikontratistak kontratatzeko debekurik ez duela ere egiaztatu behar da.

Formalizazioa IRUNVIren Kontratatzailearen Profilean argitaratu beharko da.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada adierazitako epean formalizatu, behin betiko bermea konfiskatuko zaio, zigor gisa.

Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera eta esleipenari dagokion klausulan ezarritako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Kontratua ez formalizatzearen arrazoiak IRUNVIri egotzi ahal bazaizkio, berandutzeak eragin diezazkiokeen kalte eta galeren ordaina emango zaio enpresa kontratistari.

Kontratua ezin izango da gauzatu formalizatu baino lehen.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua formalizatzerik ez badago, esleipenerako baldintza ez dela bete ulertuko da, eta IRUNVIk hurrengo lizitatzaileari esleitzea erabaki ahal izango du, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera.

30. klausula. Lagapena

30.1.- Agiri honetan aipatzen den lizitazioaren esleipendun ateratzen diren enpresek ezin izango dituzte laga kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak, IRUNVIk berariaz baimenik ematen ez badie.

30.2.- Enpresa kontratistek beren eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

a) IRUNVIk, aldez aurretik eta berariaz, lagapena baimentzea.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20 gutxienez gauzatua izatea. Baldintza hori ez da aplikatuko enpresa kontratista konkurtsoan badago, nahiz eta likidazio fasea hasita egon, edo konkurtsoaren adierazpena egiteko eskumena duen epaitegiari jakinarazi badio negoziazioak hasi dituela edo birfinantzaketarako akordio bat lortzeko, edo hitzarmenaren proposamen aurreratu baten aldeko atxikipenak lortzeko, konkurtso legerian aurreikusitako moduan.

c) Lagapen hartzaileak IRUNVIrekin kontratuak egiteko gaitasuna izatea, bai eta beharrezkoa den kaudimena ere, kontratua gauzatzeko fasearen arabera; horretaz gain, behar bezala sailkatuta egon beharko du, lagatzaileari betekizun hori eskatu bazaio, eta ez du kontratatzeko debeku kausarik izan behar.

d) Lagapena esleipendunaren eta lagapen hartzailearen artean formalizatzea, eskritura publikoan.

30.3.- Lagapen hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

31. klausula. Aseguruak

Dagokion jarduera garatzeko nahitaezkoak diren beste aseguru guztiez gain, erakunde kontratistak bere kontura hitzartu beharko ditu, kontratua gauzatzen hasi aurretik, jarraian adieraziko diren aseguru polizak, betiere ezarritako kontzeptu, zenbateko, estaldura, iraupen eta baldintzen arabera:

a) Obra honetarako berariazko poliza, eraikuntza lanen eta bermearen aldirako, eta pertsonei, higiezinei, mugakide eta hurbilekoei, ondasun higigarriei eta abarri eragindako kalteengatik sor daitekeen erantzukizun zibila estaliko duena. Eta, oro har, obren ondorioz sor daitekeen edozein kalte estaliko duena, bukaerako edo akaberako elementuei eragiten zaizkien kalteak barne, edo langileen, enplegatuen eta mendeko langile iraunkorren edo noizbehinkakoen, haien makineriaren eta ekipo nahiz baliabide osagarrien, Dumperren eta abarren egintzen ondorio izan daitezkeen kalteak, bai eta esleipenaren xede diren eta kontratu harremana betez obrako lanak egitearen ondorio direnak ere. Poliza horrek 3.000.000 euro aseguratuko ditu. Polizaren iraupena agiri honen xede den obra amaitu eta ema artekoa izango da, eta bermealdirako luzatuko da. Poliza horretan aseguratu gehigarri gisa agertuko dira erakunde kontratatzailea eta haren langileak (ez diote utziko, horregatik, kalte ordaina jaso dezaketen hirugarren izateari), sozietate esleipenduna, kontratistak eta azpikontratistak, eta obretan parte hartzen duen edozein pertsona edo erakunde. Erantzukizun zibileko aseguruan sartu beharreko gutxieneko estaldurak honako hauek izango dira:

   - Ustiapeneko Erantzukizun Zibila: aseguratuak, erantzukizun zibila duen aldetik, hirugarrenei ordaindu beharko lizkiekeen kalte ordainak pertsonei edo ondasunei eragindako kalteengatik, dela egitez edo ez egitez, dela erantzukizun zuzenagatik edo subsidiarioagatik, obra egitearekin zerikusia duten istripuen ondorioz, bai eta aseguratutako lanengatik eta aseguratuaren erantzukizunpekoak diren lanengatik IRUNVIren aurka jarritako edozein erreklamazio ere.

   - Erantzukizun Zibil Patronala.
   - Erantzukizun Zibil Gurutzatua.
   - Azpikontratisten Erantzukizun Zibil Subsidiarioa.
   - Lanen ondorengo Erantzukizun Zibila.

   Aseguratzaileak IRUNVIri jakinaraziko dio asegurua berritzean edo haren ordainketan izan daitekeen edozein gorabehera, halako moldez, non ez den inolako etenik izango haren indarraldian. Hala badagokio, ordaintzeke dagoen ordainagiria IRUNVIri helaraziko zaio, eta horrek enpresa esleipendunaren kontura ordainduko du, obra ziurtapenen eta, hala badagokio, behin betiko bermearen kontura. Inola ere ezin izango da arrisku horien estaldura aldatu edo ezeztatu IRUNVIren berariazko eta idatzizko baimenik gabe, eta esleipendunaren kontura izango da beti primak eta frankiziak ordaintzea, hala badagokio; baldintza eta debeku horiek sinatutako polizan jaso beharko dira. Era berean, aseguru polizan adierazi beharko da lizitazio hau arautzen duten Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen arabera jaulki dela, eta erantzukizun zibileko polizaren eta klausula honen artean kontraesanik egonez gero, Agiri honetan xedatutakoa nagusituko dela.

b) Eraikuntzaren arrisku ororen poliza, lizitazioaren xede den obrarako berariazkoa eta esleipenaren zenbatekoagatik, betiere honako arrisku hauek estaltzen dituela: Obrek

eraikuntza lanen eta bermearen aldian jasan ditzaketen kalteak, eta esleipenaren zenbatekoaren mugaraino, ohiko arriskuek eragindakoak: sutea, tximista, leherketa, lapurreta eta espoliazioa, ibilgailuen talka, aireontzien erorketa, talka eta abar. Naturaren arriskuek eragindakoa: haizea, harri jasa, elurra, euria, ekaitza, urakana, zikloia, izoztea, urtzealdia, gainezka egitea, uholdea, itsasoaren oldarrak, hondoratzea, luizia, harkaitz jausia, elur jausia, lurrikara, bolkanismoa eta abar; baita honako hauek eragindakoa ere: greba, matxinada, sabotajea, konmozio zibila, terrorismoa, ekintza bandalikoak eta asmo txarrekoak, etab. Diseinuko akatsa, fabrikatzailearen arriskua eta abar. Zabarkeria, trebetasunik eza eta abar. Eta aipatu ez den beste edozein arrisku. Era berean, lehendik zeuden ondasunei eragindako kalteak ere estali behar dira, honako gastu hauekin batera: aparteko gastuak, hondakinak kentzea, eraiste lanak, agintaritzak hartutako neurriak eta abar.

Obren esleipendunaz gain, aseguratu gisa sartu beharko dira IRUNVI eta azpikontratistak, hala badagokie, eta, oro har, obran interesa duen oro. Eraikuntza aldian jatorria duten arrazoien ondorio diren galerek edo kalteek estaldura izango dute, eta baita etapa horretan edo ondorengoetan obra kontratuan ezarritako baldintzak behar bezala betetzeko gauzatzen diren lanen ondorioz gertatzen direnek ere. Aseguratutako kapitalek egin beharreko obraren balioaren berdinak izan beharko dute, egindako obretako lan materialaren azken kostuaren % 100 sartuta eta, hala badagokio, honako hauek ere sartuta: ordainsari profesionalak eta laborategiei nahiz kontrol teknikoei dagozkien gastuak eta, oro har, obrak kontratatutako kalitateekin eta behar bezala egiteko, edo ezbeharra jasan duen obraren zatia edo fasea errepikatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak.

Egin beharreko obraren zenbatekoa handituz gero, aseguruaren hartzaileak zenbateko berean handitu beharko ditu aseguratutako kapitalak. Sinatzen den aseguru polizan, halaber, honako baldintza eta debeku hauek ere jaso beharko dira, besteak beste:

Ezbeharren bat gertatuz gero, aseguratzaileak ez dio ezer ordainduko esleipendunari, aldez aurretik IRUNVIk baimenik ematen ez badu eta ezbeharraren ondorioz Sozietate Publiko horri eragindako kalte eta galera guztiak ordaindu arte. Aseguratzaileak IRUNVIri jakinaraziko dio asegurua berritzean edo haren ordainketan izan daitekeen edozein gorabehera, halako moldez, non ez den inolako etenik izango haren indarraldian. Hala badagokio, ordaintzeke dagoen ordainagiria IRUNVIri helaraziko zaio, eta horrek enpresa esleipendunaren kontura ordainduko du, obra ziurtapenen eta, hala badagokio, behin betiko bermearen kontura. Inola ere ezin izango da arrisku horien estaldura aldatu edo ezeztatu IRUNVIren berariazko eta idatzizko baimenik gabe, eta esleipendunaren kontura izango da beti primak eta frankiziak ordaintzea, hala badagokio; baldintza eta debeku horiek sinatutako polizan jaso beharko dira. Era berean, aseguru polizan adierazi beharko da lizitazio hau arautzen duten Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen arabera jaulki dela, eta eraikuntzako arrisku orotarako aseguru polizaren eta klausula honen artean kontraesanik egonez gero, Agiri honetan xedatutakoa nagusituko dela.

c) Hamar urterako bermearen poliza, Eraikingintzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legean xedatutakoaren arabera, eraikinak obrak hartzen direnetik 10

urteko epean jasan ditzakeen kalteak estaltzeko (1.623.508,22 €). Obra handituz gero, esleipendun kontratistak aseguratutako zenbatekoa igoera horrekin berdindu beharko du. Igoera horren prima behin bakarrik ordainduko du kontratistak, eta poliza hori eta primaren ordainagiri bakarra behar bezala ordainduta aurkeztu beharko dizkio IRUNVIri kontratua formalizatu aurretik. Poliza horren estaldurak honako hauek izango dira, gutxienez:

- Obraren sendotasunean edo egonkortasunean eragiten duten kalte materialak (zimenduak, egiturak, itxituren eta estalkien egiturazko elementuak), betiere diseinuko akatsen, materialen akatsen edo obrako lanen ondoriozkoak badira.
- Eraiste lanen eta hondakinak kentzearen gastuak, polizak babestutako ezbeharren ondorioz.
- Obra hondoratzeko mehatxua desagerrarazteko nahitaez egiten diren gastuak.
- Estalkien, fatxaden, terrazen eta teilatuen estankotasuna.
- Eraikuntzako elementuen edo instalazioen akats edo gabeziek eraikinean eragindako kalte materialak, bizigarritasun baldintzak ez betetzea eragiten badute. Ez da inolako frankiziarik onartuko ezein kontzeptugatik, aplikatu beharreko araudiak horretarako aukera ematen ez badu. Hamar urterako poliza horretan aseguratu gisa agertu beharko dute IRUNVIk eta eraikina edo haren zati bat erosten dutenek.

Esleitutako obrak aurreikusitako data baino geroago amaitzen badira, kontratista esleipendunak atzerapen horren ondorioz poliza horretan sortutako primak eta gastuak ordaindu beharko ditu.

d) a), b) eta c) letretan aipatutako aseguruez gain, esleipendunak bere kontura sinatu eta mantendu beharko ditu, bai lanak egiten diren bitartean, bai bermealdian, honako aseguru kontratu hauek:

- Langileen lan istripuen asegurua eta gizarte aseguruak, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Nahitaezko asegurua, bai ibilgailu propioena, bai obraren esleipendunak erabilitakoena, erantzukizun zibila mugarik gabe bermatuz.
- Bizitza edo istripu poliza, bai eta indarrean dauden hitzarmen kolektiboen arabera, bai lege nahiz kontratu bidezko betebeharren arabera esleipendunari eskatzen zaion beste edozein aseguru ere. Klausula honetan aipatutako aseguruak kontratatzeak ez ditu murriztuko kontratistak, kontratuko gainerako estipulazioei jarraikiz, bere gain hartutako betebeharrak eta erantzukizunak. Kontratatzailearen oinarrizko erantzukizun zuzena ere ezin izango da murriztu, leundu edo subrogatu aseguratzaileen baldintzengatik edo jarduketagatik.

III.- KONTRATAZIOAREN BALDINTZAK

III .01.- ARAU ERREGULATZAILEAK

32. klausula. Erregulazioa

Kontratazio hau Administrazio Klausulen Agiri honetan eta eranskinetan jasotako klausulen arabera arautuko da.

Subsidiarioki, honako hauen arabera ere arautuko da:

a) Esleitzeko prozedurari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen II. liburuko I. tituluko I. kapituluko 1. eta 2. ataletan eta 319. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Estatuko Legearen aipatutako kapitulu horiek garatzeko Eusko Jaurlaritzak onar ditzakeen xedapen orokorren arabera.

b) Kontratazioaren gainerako alderdiei dagokienez, aipatutako xedapenen eta Kode Zibilaren 1.588 eta 1.599 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan goren mugako gaikuntza edo prezioarekin egindako obrei buruz ezarritakoa.

33. klausula. Kontratistaren funtsezko kontratu betebeharrak

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 202. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta adieraziko diren ondorioekin, kontratistaren funtsezko kontratu betebeharrak honako hauek dira:

1. Kontratistaren eta bere azpikontratisten lan eta segurtasun arloko legezko eta kontratu bidezko betebeharrak betetzea, eta obren segurtasun eta osasun koordinatzaileak arlo horretan emandako jarraibideei jarraitzea.
2. Soldatak ordaintzea eta obra kokatuta dagoen lurraldeko eraikuntzako hitzarmen kolektibotik eratorritako soldata baldintzak aplikatzea.
3. Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako betebeharrak betetzea.
4. Kontratuaren epeak betetzea (eskaintzako obra plangintzaren epe partzialak eta amaiera).
5. Kontratistak eskaintzan bere gain hartutako konpromisoak eta hobekuntzak betetzea; esleipen irizpideen bitartez baloratuko dira.
6. Kontratistari egotz dakizkiokeen eraikuntza akats edo gabeziak konpontzearekin lotuta, IRUNVIk, zuzendaritza fakultatiboak edo erakunde ofizialek emandako jarraibideei jarraitzea, betiere jarraibide horietan adierazitako gehieneko epearen barruan.
7. Agirian azpikontratazioaren betekizunei buruz ezarritako baldintzak betetzea.
8. Agirian azpikontratistei ordaintzeari buruz ezarritako baldintzak betetzea. Bereziki, kontratak azpikontratistei egindako ordainketei eta ordaintzeko legezko epeak betetzeari buruzko informazioa IRUNVIri emateko betebeharrari dagokionez.
9. Kontratistak esleitutako eskaintzan adierazitako baliabide materialak eta/edo giza baliabideak obrari benetan atxikitzea.

34. klausula. Zehapenak

Enpresa kontratistak funtsezko kontratu betebeharrak bete behar ditu, esleipenaren xede izan ziren baldintzetan, akatsak konpondu behar ditu, eta kalte eta galeren ordaina eman; betebehar horiei guztiei eutsi egiten zaie, bai eta kontratua suntsiarazteko aukerari ere. Horietaz gain, kontratazio organoak honako zigor hauek ezarri ahal izango dizkio kontratistari:

- Obra Plana, aurreikusitako epe partzialak eta guztizkoa ez badira betetzen, honela jokatuko da: epe partziala betetzen ez bada, IRUNVIk atzerapenagatiko zigorra aplikatu ahal izango du hilero, hau da, aurreikusitako eta gauzatu gabeko obraren zenbatekoaren % 20, hileko ordainketatik kenduko dena, edo, hala badagokio, obraren likidaziotik; guztizko epea betetzen ez bada, atzerapenagatik zigor bat aplikatu ahal izango du IRUNVIk, aurreikusitako eta obrako plangintza berria onartu arte gauzatu gabeko obraren zenbatekoaren % 20, obraren likidaziotik kenduko dena. Enpresa kontratistak berandutza izango du, aldez aurretik errekerimendurik egin behar izan gabe.
- Kontratistak atzerapena berreskuratzen duen hilabetean, aplikatutako zehapenak itzultzea erabaki dezake IRUNVIk.
- Lanaren eta segurtasunaren arloan kontratistak eta azpikontratistek dituzten legezko eta/edo kontratu bidezko betebeharrak betetzen ez badira, eta gainera arrisku larria badago, eta hori guztia Obren Segurtasun eta Osasuneko koordinatzaileak Gorabeheren Liburuan jasotako gorabehera batean egiaztatzen bada, obraren batez besteko ziurtapenaren zenbatekoaren % 5eko zigorra aplikatu ahal izango da, gehienez. Ez betetze horiek errepikatzen badira edo larriak badira, kontratua suntsiaraziko da, eta bermeak konfiskatuko dira. Egindako arau-hausteak zehapen administratibo edo penala badakarkio eraikitzaileari, aplikatutako zehapena itzuliko zaio.
- Kontratistak eta azpikontratistek ez badituzte betetzen lanaren eta segurtasunaren arloko jarraibideak –betiere Obren Segurtasun eta Osasuneko koordinatzaileak emanak badira legezko eta/edo kontratu bidezko betebeharrak betetze aldera–, eta aurreko paragrafoan aipatutakoez bestelako kasuetan, obraren batez besteko ziurtapenaren zenbatekoaren % 1eko zigorra aplikatu ahal izango da, gehienez.
- Soldatak ez badira behin eta berriz ordaintzen edo berandu ordaintzen badira, edo hitzarmen kolektiboaren ondoriozkoak baino soldata baldintza txikiagoak aplikatzen badira, eta hori larria eta dolozkoa bada, obraren batez besteko ziurtapenaren zenbatekoaren % 5eko zigorra aplikatu ahal izango da, gehienez.
- Esleitutako eskaintzan adierazitako baliabide materialak eta/edo giza baliabideetan ez betetzeak edo aldaketak gertatzen badira IRUNVIren baimenik gabe, obraren batez besteko ziurtapenaren zenbatekoaren % 3ko zigorra aplikatu ahal izango da, gehienez.
- Enpresa kontratistak ez baditu betetzen eskaintzan bere gain hartutako konpromisoak eta hobekuntzak, eta esleipen irizpideen bitartez baloratzen badira, obraren batez besteko ziurtapenaren zenbatekoaren % 5eko zigorra aplikatu ahal izango da, gehienez.
- IRUNVIk, zuzendaritza fakultatiboak edo erakunde ofizialek enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen eraikuntzako akats edo gabeziak konpontzeari buruz emandako jarraibideak betetzen ez badira, jarraibide horietan adierazitako gehieneko epearen barruan, Agirian aurreikusitakoa beteko da konponketak zuzenean egiteari dagokionez, atxikipenen edo bermeen kargura, eta prezioa % 10 areagotuko da, zigor gisa, edo esleipendunak aurkeztutako eskaintzaren ondoriozko %an.

- Azpikontratazioa egiteko ezarritako baldintzak betetzen ez badira, edo azpikontratistaren gaitasun eza egiaztatzen ez bada, obraren batez besteko ziurtapenaren zenbatekoaren % 1eko zigorra aplikatu ahal izango da, gehienez. Hasieran aurreikusitako azpikontratistak IRUNVIren baimenik gabe aldatzen direnean, eskaintzatik azpikontratatu den kapituluari dagokion aurrekontuaren % 5eko zehapena ezarriko da.
- Azpikontratazio baldintzen agiria edo azpikontratistei egindako ordainketak egiaztatzen dituen hiruhileko txostena ez bada epearen barruan aurkezten, edo azpikontratistek akats eta/edo anomalia larriak hautematen badituzte eta horien ondorioz ezinezkoa bada beharrezko informazioa jakitea, obraren batez besteko ziurtapenaren zenbatekoaren % 3ko zigorra aplikatu ahal izango da, gehienez.
- Ez betetze horiek errepikatuz gero, egindako eta egiaztatutako obraren aurrekontuaren % 3ko zehapena ezarriko da, gehienez, hiruhileko txostena aurkeztu ez den aldian.
- Hiruhileko txostenean frogatzen bada legezko ordainketa-epea ez dela bete, ordaindu gabeko azpikontrata biltzen duen kapituluaren guztizko zenbatekoaren % 3koaren baliokidea den zenbatekoko zigorra ezarriko da, gehienez, fakturak adierazten duen ehunekoaren gainean, ordainketen hiruhileko txostenean adierazten den bezala.
- Kapitulu eta hiruhileko berean faktura bat baino gehiago ordaindu gabe egonez gero, zehapena kalkulatzeko, hiruhileko horretan ordaindu ez diren fakturen artean indarrean dagoen aurrekontuaren gauzatze ehunekorik handiena aplikatuko da.
- Ordainketa egin dela egiaztatzen denean, kasuan kasu, aplikatutako zehapenaren % 50 itzuliko da.
- Ez ordaintze berak indarrean jarraitzen badu hurrengo txostenetan, eta kapitulua itxita badago, zehapena kontratari dagokion kapituluko egiaztatutako obraren guztizko metatuari aplikatuko zaio.

Zehapenen ondorioetarako, obraren batez besteko ziurtapenaren kontzeptua kalkulatzeko, obraren esleipenaren zenbatekoa (BEZik gabe) aurreikusitako epearekin zatituko da.

Zigor horiek ez betetze indibidual bakoitzagatik ezarriko dira, eta, hori errepikatuz gero, IRUNVIk berriro ezarri ahal izango ditu zigorrak, berriro ere ez betetzea gertatu dela hauteman ondoren. Ez betetzea jarraitua bada eta denboran irauten badu, IRUNVIk astean behin ezarriko ditu zigorrak ez betetzea amaitu arte.

Zigor horiek ezin izango dute gainditu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 192.1 artikuluan ezarritako muga.

Zigor horiek ordaintzeko, obratik ordaindu gabe dauden zerrenda baloratuak, IRUNVIren esku dauden edo eratu diren behin betiko bermeak eta berme osagarriak, edo enpresa kontratistak IRUNVIrekiko duen beste edozein kreditu eskubide hartuko dira kontuan. Zigorren zenbatekoa likidotzat, mugaeguneratutzat eta galdagarritzat joko da, konpentsazioaren ondorioetarako, kontratistaren alde dauden bestelako kredituekin edo kontratistari atxiki zaizkion edozein kontzepturen ondoriozko kopuruekin.

Zigor horiek aplikatu aurretik, ez betetzea jakinarazteko izapidea bete behar da, eta 10 egun balioduneko epea emango zaio enpresa kontratistari alegazioak aurkezteko. Funtsezko kontratu betebeharren bat edo batzuk behin eta berriz betetzen ez badira, kontratua suntsiarazi egingo da.

Ez betetze horiek errepikatzen badira edo larriak badira, kontratua suntsiaraziko da, eta bermeak konfiskatuko dira. Egindako arau-hausteak zehapen administratibo edo penala badakarkio eraikitzaileari, aplikatutako zehapena itzuliko zaio.

35. klausula. Errekurtsoak eta Auzitegiak

SPKLaren 44.1 artikuluan jasota ez dauden kontratuei dagokienez, emandako egintzen aurka Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako errekurtso arruntak aurkeztu ahal izango dira.
Errekurtsoen ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa baino ezin izango da jarri, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Kontratuak prestatu, esleitu eta aldatzearen arloan, azken horien aurkaratzea SPKLaren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoaren urraketan oinarritzen denean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da eskuduna, aipatutako errekurtso berezia ebatzi ondoren, eta nahitaezkoa izango da errekurtso hori aurkeztea, aipatutako agintaritzan aurkaratu aurreko izapide gisa. Jurisdikzio zibila arduratuko da kontratua betearazteaz eta horren ondorioez.

Esleipendunak berariaz egiten dio uko bere egoitzako foruari, eta sor daitezkeen gorabeherak eta erreklamazioak ebazteko eskumena duten Donostiako epaitegi eta auzitegien mende jartzen da.

36. klausula. Aldeen arteko komunikazioak

Aldeen artean egindako jakinarazpenak kontratua formalizatzean jasotako helbide, fax, helbide elektroniko eta telefono mugikorretara igorriko dira, edo koordinazio bileren akten bitartez, eta ondorio osoak izango dituzte, baldin eta modu frogagarrian egiten badira.

Komunikazioak jarraituak izan daitezen, kontratua formalizatzean adierazitako telefono mugikorraren eta faxaren zenbakiei, helbide elektronikoari eta posta helbideari eusteko konpromisoa hartzen dute aldeek, bai eta horietakoren bat aldatuz gero, 30 egun naturaleko epean, modu frogagarrian, beste aldeari jakinaraztekoa ere.

37. klausula. Datu Pertsonalen babesa

Enpresa esleipendunak kontratatutako zerbitzuei buruz jakin ditzakeen datu guztiak konfidentzialtzat joko dira, eta haien identitatea eta sekretua gorde beharko dira.

Enpresa esleipendunak kalte ordaina eman beharko die IRUNVIri eta eraginpeko pertsonei, isiltasun profesionalaren betebeharra urratzeak eragindako kalte eta galerengatik.

Enpresa esleipendunak tratatutako datu pertsonalak erabili behar baditu kontratua betetzeko, Pertsonen Datuak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 13ko 3/2018 Lege Organikoan eta hura garatzeko araudian xedatutakoa bete beharko da.

Enpresa esleipendunak ezin izango ditu aplikatu edo erabili kontratuaren ondorioz lortzen dituen datu pertsonalak kontratuan agertzen denaz bestelako xedeetarako, ezta datu horiek beste pertsona batzuei laga ere, gordetzeko bada ere.

Kontratuaren prestazioa betetakoan, tratatutako datu pertsonalak IRUNVIri entregatu beharko zaizkio.

III .02.- PREZIOA ETA ORDAINKETA

38. klausula. Honenbesteko prezioa

Obrak honenbesteko prezioaren sistemaren bitartez kontratatzen dira, eta ezin izango da inolako gorabeherarik izan lanek dirauten bitartean materialen edo eskulanaren prezioetan izandako aldaketengatik, edo unitate kopurua nahiz horien egiten diren neurketen kopurua edozein dela ere, obra guztiz amaituta uzteko beharrezkoak direnak, Kalitateen Memorian eta Proiektuan aurreikusitako kalitateekin, zehaztapenekin eta erabakiekin. Hala ere, lur mugimenduei, zimenduei, hormigoizko egiturari eta urbanizazioari dagokien obra zatian, benetan egindakoa neurtuko da.

Segurtasun eta Osasun Azterlanean aurreikusitako segurtasuneko eta osasuneko elementuen kostua ere honenbesteko prezioan izango da.

Enpresa lizitatzaileek Exekuzio Proiektuaren neurketak, partidak eta zehaztapenak egiaztatuko dituzte, eta beren eskaintzan kontuan hartuko dute eskatutako lanak eta unitate osoak behar bezala gauzatzeko beharrezkoa den guztia; beraz, exekuzio materialaren konplexutasunaren berri izan beharko dute, eta konplexutasun horrek ez du inoiz ere prezioa eta epea aldatzea eragingo, baldin eta hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa bada.

39. klausula. Prezioak berrikustea

Prezioen berrikuspena berariaz salbuesten da.

40. klausula. Prezioan sartutako kontzeptuak.

Prezio orokorrean, eta, hala badagokio, kontrata bidezko exekuzio prezio unitario bakoitzean, eraikina eraikitzeko beharrezkoak diren gastu guztiak (zuzenak, zeharkakoak eta orokorrak) sartuko dira (% 13). Halaber, mozkin industriala prezio horretan sartuta dago, ehuneko 6koa (% 6). Segurtasuneko eta osasuneko elementuen kostua ere barne hartuko da.

Prezioaren barruan sartzen dira obraren garbiketa (etxebizitzak, urbanizazioa...) eta urbanizazioaren mantentze lanak (ureztatzea, sega...), bai obrako lanak egiten diren bitartean, bai obra amaitzen denean. Obra ez da hartuko erabat garbi ez badago.

Eskainitako prezioan kontrol saiakuntzen kostua sartuta egongo da, eta segurtasunaren eta osasunaren kostua ere bai. Dagokion Segurtasun eta Osasun Azterlanean finkatutako zenbatekoa ezin izango da agiriko karatulan ezarritakoa baino txikiagoa izan.

Prezio guztietan sartzen dira, kontrakoa adierazi ezean, honako hauen hornidura, erabilera eta gastuak: makineria, eskulana, elementu osagarriak, garraioak, material guztien erremintak eta baliabide osagarriak, manipulazioak eta kasuan kasuko obra unitateak egiteko beharrezkoak diren zuzeneko eta zeharkako eragiketak.

41. klausula. Segurtasuneko eta Osasuneko aurrekontua

Segurtasuneko eta osasuneko kontzeptuan egindako eskaintza ezingo da izan karatulako 4. klausulan adierazitakoa baino txikiagoa.

42. klausula. Gastuak eta gestioak

Honako gastu hauek kontratistaren kontura izango dira, eta zerrenda hau ez da mugatzailea izango:

a) Behin-behineko eta behin betiko obrak eta instalazioak (hesiak, aldamioak, garabiak, ibiak, hartuneetarako galtzadak irekitzea, bide publikoa okupatzea eta abar) egiteko behar den edozein lizentzia edo baimen administratibo eskatu, kudeatu eta ordaintzea. Jabetzak kontzeptu horiengatik eskatzen den edozein ordainketa jasanarazi ahal izango dio kontratari.

b) Irungo Udalak 2021eko ekainaren 16an emandako lizentzian ezarritako fidantzak eratu beharko ditu esleipendunak:

Hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko fidantza, 3.223,20 euro.

10.000,00 euroko fidantza, berme gisa, lehendik dagoen urbanizazio periferikoari eragindako kalte posibleengatik, obrarako sarbideak kalte egin diezaiokeen urbanizazioagatik, bai eta obretako lanak egin bitartean jabari publikoa garbitzeagatik ere.

Fidantza horiek IRUNVIn gordailutu beharko dira kontratua sinatu aurretik..

c) Enpresa kontratista edo egindako obra bera zergapetu dezaketen edozein motatako tributu edo zergak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) izan ezik, hori partida independente gisa jasanaraziko baita.

d) Obrak egiteko beharrezkoak diren energia elektrikoko, gaseko, telefonoko, saneamenduko eta uretako instalazioen hartuneak, hornidurak eta kontsumoak kontratatzea eta egitea; horretarako, kontratistak xedapen guztiak hartu beharko ditu, eta beharrezkoak diren gestio guztiak egin beharko ditu zerbitzu eta erakunde eskudunei dagokienez.

e) Erakunde eskudunei eta konpainia hornitzaileei aurkeztu behar zaizkien proiektuen gestioak, gastu guztien ordainketak, tasak, arielak eta abar, dela alta eta funtzionamendu baimena lortzeko, dela behin-behineko eta behin betiko lotuneak eta harguneak egiteko (instalazio elektrikoa, iturgintza, suteen aurkakoa, saneamendua, egokitasun ziurtagiriak, EE homologazioa eta abar) eta, oro har,

instalazioen funtzionamendu egoki eta legalizaturako behar den guztia. Ez dira sartzen aipatutako behin betiko harguneen kontratazioei dagozkien ordainketak.

f) Zuzendaritza fakultatiboak egin beharreko saiakuntza eta proba guztien gastuak, Agiri honetan adierazitako baldintza eta mugekin.

g) IRUNVIk zehaztutako ezaugarriak dituzten obren identifikazio kartelak, bai eta hesi kartelak, obra etxolak, jantokiak, komunak eta bulegoak ere.

h) Honako hauek adierazteko beharrezkoak diren seinaleak: obra eremurako sarbidea, laneko eremuko zirkulazioa eta lanen ondorioz izan daitezkeen puntu arriskutsuak, bai eremu horretakoak, bai muga eta inguruetakoak.

i) IRUNVIk kontratatutako sukaldeko ekipamenduarekin lotutako jarduketak: deskargatzea, biltegiratzea, obrako banaketa, garbiketa, zaintza, instalazioa, unitateak martxan jartzea eta harrera egin arteko erantzukizuna.

j) Segurtasuneko eta osasuneko elementuak; ezin izango dira Agirian adierazitakoak baino txikiagoak izan, eta aplikatu beharreko legeriak eskatutako neurri guztiak bete beharko dituzte.

k) Lizitazioaren publizitate gastuak.

l) Agirian eskatzen diren bermeen kostua.

m) Obrako garbiketa.

n) Agiri honetan xedatutako beste edozein.

o) Jabetzak kontrakorik uste ez badu, kontratista arduratuko da energia instalazioak legeztatzeko eta abian jartzeko gestioez, bai eta kogenerazioetatik eta/edo sarerako instalazio fotovoltaikoetatik datorren elektrizitatearen salerosketa kontratua sinatzeko gestioak ere, eta eskatutako gastuak bere gain hartuko ditu.

43. klausula. Goren mugako prezioaren aldaezintasuna

Kontratua formalizatu baino lehen, esleipenak dokumentu bat sinatu beharko du bere eskaintzaren neurketak proiektuaren edukiarekin bat datozela adierazteko. Beraz, errealitatearekin alderatuta, gauzatu beharreko unitateen kopuruetan eta neurketetan sor daitezkeen aldeak, gorantz edo beherantz, ez dute inolako aldaketarik eragingo goren mugako prezio globalean.

Proiektuan aipatzen ez diren baina, eraikuntza egokiari buruzko arauen arabera, eraikinaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak eta ezinbestekoak diren unitate berriak behar badira eraikuntza lanetan, ez da prezio globala aldatuko.

44. klausula. "Neurketaren araberako" prezioa lur mugimenduetan, zimenduetan, hormigoizko egituran eta urbanizazioan

Lur mugimenduei, zimenduei, hormigoizko egiturari eta urbanizazioari dagokien obra zatian, benetan egindakoa neurtuko da. Zenbateko horren eta esleipendunaren eskaintzan

aurreikusitakoaren arteko aldea, haren aldekoa bada, transferentzia bidez ordainduko zaio esleipendunari, obrako zerrenda baloratuak onartu eta hurrengo 30 eguneko epean.

Bestela gertatzen bada, dagoen aldearen zenbatekoa kenduko zaio hitzartutako hurrengo hileko ordainketari dagokion zenbatekoari.

Diferentzia horien ordainketa edo kenketa honela egingo da: 1) lur mugimenduen, zimenduen eta hormigoizko egituren kasuan, obrako hiru zati horien multzoaren likidazio partziala egin ondoren, eta 2) urbanizazioaren kasuan, horren likidazio partziala egin ondoren. Hala ere, hilero egindako zerrenda baloratuetan, bereizi egingo dira proiektuan aurreikusitako obra zatia eta obrako lanetan sortutako soberakinak, halakorik balego.

45. klausula. Prezioa ordaintzea

Enpresa kontratistak egindako obra kobratzeko eskubidea izango du; horretarako, egindako obraren hileko zerrenda baloratuak prestatuko ditu eta, zerrenda horietan, hilabetean egindako obra eta eskaintza ekonomikoaren araberako balorazioa jasoko dira. Kontratistak ezin izango du inolako erreklamaziorik egin eskainitako prezioak aldatzeko, obrako lanen epea luzatu edo murriztuagatik, obrako lanak egiten ari diren bitartean neurketak aldatzeagatik edo proiektuko akatsengatik, obraren zuzendaritza fakultatiboaren erabakiengatik edo antzeko beste inguruabar batzuengatik, baldin eta jabetzak ez badu idatziz berariaz onartzen.

46. klausula. Transferentzia bidez ordaintzea

Obraren plangintzaren arabera egindako obrari dagokion zenbatekoa transferentzia bidez ordainduko du jabeak, obrako zerrenda baloratuak onartu eta 30 eguneko epean.

Enpresa kontratistak faktura IRUNVIko administrazio sailean garaiz eta behar bezala aurkezteko betebeharra bete beharko du.

47. klausula. Behin-behineko ordainketak eta kontura onerakoak

Egindako obrako zerrenda baloratu guztiak kontu onerakotzat eta azken ordainketaren aurrerakintzat hartuko dira, eta ez dute, inolaz ere, biltzen dituzten obren onarpen eta harrerarik ekarriko. Zerrenda baloratuak egitean gerta daitezkeen akatsek ez dute esan nahi zuzendaritza fakultatiboak, jabetzak edo kontratak onartzen dituenik; beraz, azken likidazioa eta ordainketa egiaztatzean zuzenduko dira, eta une horretan konponduta geratu beharko dute. Aurrekoa alde batera utzi gabe, akatsak obrak amaitu baino lehen eta azken zerrenda baloratua baino lehen antzeman badira, zuzendu egingo dira oker egindakoaren hurrengo zerrenda baloratuan.

Zerrenda baloratuak ordaintzeko, Agiri honetan xedatutakoari jarraituko zaio, epeak betetzeari eta zigorrak aplikatzeari dagokionez.

48. klausula. Azpikontratistei ordaintzeko baldintzak

48.1.- Enpresa kontratistak ezin izango du hitzartu azpikontratistekin abenduaren 29ko 3/2004 Legean (merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena)

aurreikusitakoak baino ordainketa epe kaltegarrienak; epe horiek onarpena edo egiaztapena egiten den egunetik hasiko dira zenbatzen, baldin eta azpikontratistak legez ezarritako epeetan entregatu badu faktura.

Onarpena gehienez ere 30 eguneko epean egin beharko da, lanak egin direnetik zenbatzen hasita denetik. Epe horren barruan aurkeztu beharko dira, hala badagokio, horrekin ados ez egoteko arrazoiak. Epe horretan egiten ez bada, obrako lanak onartu direla ulertuko da.

Azpikontratistei egindako ordainketa atzeratuz gero, eskubidea izango dute atzerapenagatiko interesak eta kobratzeen kostuengatiko kalte-ordaina jasotzeko, abenduaren 29ko 3/2004 Legean (merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena) aurreikusitakoaren arabera.

Azpikontratistek ezin izango diete baliozkotasunez uko egin, baliatu aurretik edo ondoren, SPKLaren 216. artikuluan aitortuta dituzten eskubideei; horri dagokionez, Kode Zibilaren 1110. artikulua ez da aplikatzekoa izango.

SPKLaren 216. eta 217. artikuluetan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe, eta betiere 215. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira, azpikontratistei ordainketak zuzenean egitea baimendu ahal izango du IRUNVIk.

Zuzeneko ordainketak jasotzeko IRUNVIren berariazko adostasuna duen azpikontratistak kobrantza eskubideak laga ahal izango ditu, 200. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Azpikontratistaren alde egindako ordainketak kontrata nagusiaren kontura egin direla ulertuko da, eta IRUNVIri dagokionez, obrako zerrenda baloratuen kontu onerako ordainketen izaera berdina izango du.

Enpresa kontratista nagusia azpikontratistak aurkeztutako fakturarekin ados ez egoteagatik ordainketa atzeratzen bada, hori ezin izango zaio, inolaz ere, IRUNVIri egotzi.

48.2.- Obra egin bitartean, egindako ordainketen laburpen txostenak aurkeztuko ditu enpresa kontratistak, eta honako eduki hauek izango ditu, gutxienez:

- Azpikontratistaren identifikazioa, bai eta identifikazio fiskaleko kodea edo zenbakia, izen soziala eta egoitza soziala ere.
- Fakturazio datuak: faktura zenbakia, kontzeptua, muga eguna eta ordainketa data.
- Fakturaren eraginaren ehunekoa, indarrean dagoen aurrekontuko kapituluaren arabera kalkulatua.
- Igorritako faktura guztien ehuneko metatua, indarrean dagoen aurrekontuko kapituluaren arabera kalkulatua.
- Eskaintza ekonomikoaren kapitulua(k), fakturaren kontzeptua barne hartzen du(t)ena(k).
- Azpikontratistaren sinadura eta zigilua.

Dokumentu hori hiru hilean behin aurkeztu beharko da obrak irauten duen bitartean, eta hilean behin, obra amaitu aurretik aurreikusitako epearen azken hiruhilekoan eta, betiere, hurrengo hileko lehen 10 egun naturalen barruan.

Gainera, enpresa kontratistak 67 egun natural izango ditu obra amaitzen denetik, epemuga geroagokoa duten eta aurreko ordainketen laburpen txostenetan sartuta ez dauden ordainketak justifikatzen dituen laburpena aurkezteko.

49. klausula. Ordaintzeko baldintza

Adostutako zerrenda baloratuak ordaindu ahal izateko, jabetzak egiaztatu beharko du lanak behar bezala egin direla, kontratak eskainitako eta kontratuan jasotako plangintzan aurreikusitako erritmoetan. Horretarako, egindako obraren hileko zerrenda baloratua onartuko du zuzendaritza fakultatiboak, Segurtasuneko eta Osasuneko eta kalitate kontroleko neurriak barne. Era berean, obren bilakaeraren eta plangintzaren betetze mailaren gaineko txostena ere egingo du. Dokumentazio hori ikusita, IRUNVIk, hala badagokio, dagokion zerrenda baloratuaren ordainketa onartuko du.

50. klausula. Zorrak konpentsatzea

Kode Zibilaren 1.195 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, IRUNVIk obrako zerrenda baloratuen ordainketa konpentsatu ahal izango du esleipendunak beste betebehar eta/edo kontratu batzuen ondorioz izan ditzakeen zorrekin, betiere artikulu horretan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen badira.

51. klausula. Kobrantza eskubideak eskualdatzea

IRUNVIri dagokionez kobratzeko eskubidea duen enpresa kontratistak eskubide hori laga ahal izango du zuzenbidearen arabera.

Kobrantza eskubidearen lagapena IRUNVIri dagokionez eraginkorra izan dadin, ezinbesteko baldintza izango da lagapen erabakia modu frogagarrian hari jakinaraztea.

Kontratistak lagatako kobrantza eskubideen bigarren eta hurrengo lagapenak eraginkorrak izan daitezen, aurreko paragrafoa bete beharko da.

IRUNVIk lagapen erabakiaren berri duenean, ordainketa agindua lagapen hartzaileari eman beharko zaio. Lagapenaren berri IRUNVIri eman baino lehen, enpresa kontratistaren edo lagatzailearen izenean egindako ordainketa aginduek kitatzeko ondorioak izango dituzte.

Kobrantza eskubidearen sorburu den harreman juridikoa sortu aurreko lagapenek ez dute ondoriorik izango IRUNVIri dagokionez. Nolanahi ere, IRUNVIk kontratu harremanaren ondoriozko kausazko salbuespen guztiei aurka egin ahal izango die, lagapen hartzailearen aurrean.

IRUNVIri dagokionez kobratzeko eskubidea duen enpresa kontratistak eskubide hori laga ahal izango du zuzenbidearen arabera.

III.03.- BERMEAK

52. klausula. Behin betiko bermeak eta berme osagarriak. Atxikitzea

52.1.- Esleipendunek behin betiko berme bat eratu behar dute, esleipen aurrekontuaren % 5eko zenbatekokoa (kontrata bidezko gauzatzea, BEZ gabe). Bermeen formari eta baldintzei dagokienez, SPKLko 114. artikuluan aurreikusitakoa bete behar da, bai eta APKLEOko 55., 56. eta 57. artikuluetan xedatutakoa ere, aipatu legean aurreikusitakoaren aurka ez doan heinean.

52.2.- Lehen aipatutako bermeez gain, eta berme osagarri gisa, IRUNVIk berme hauek izango ditu:

52.2.1.- Hileko zerrenda baloratu bakoitzaren % 10eko atxikipena, obra aurrekontuaren % 50etik aurrera ordaindu beharrekoa; atxikitako zenbatekoengatik ez da interesik ordainduko, inolaz ere.

52.2.2.- Abal bat, eskaintza ekonomikoaren beheratzearekin lotutako zenbatekokoa:

Eskaintza ekonomikoa, beheratzea (%) tasarekiko	Berme osagarria eskaintza ekonomikoarekiko (%)
Eskaintza 100, beheratzea 0	% 0
Eskaintza 100-90	% 1,5
Eskaintza 90-80	% 3
Eskaintza 80-70	% 4,5
Eskaintza <70	% 5

52.2.3.- Obraren harrera akta egiten denean, kontratistak 52.2.1 puntuko atxikipenaren ordez hainbat abal emango ditu, guztizko zenbateko honekin: atxikipenaren zenbateko osoa gehi eskaintza ekonomikoan egindako beheratzeari dagokion zenbatekoa, 52.2.2 puntuarekin bat etorriz.

Aurrerantzean, berme osotzat hartuko da 52.2.1 klausulako atxikipenaren batura gehi 52.2.2 klausulako beheratze ekonomikoari dagokion zenbatekoa.

52.3.- Kontratistak bere eskaintzan berme epeak hobetzen baditu, 52.2.3 puntuko behin betiko berme osoaren araubidea aplikatuko zaio, honela:

- Obra harrera oharrik gabea egiten denetik zenbatzen hasita 3,5 urteko epean akaberetako gorabeheren arreta eskaini bada. 52.2.3 atalean deskribatutako berme osoaren zenbatekoko abalak aurkeztu beharko dira, honela:

    - Berme osoaren % 50, abal bakar baten bidez.
    - Berme osoaren % 25, 50.000 eurotik beherako abalen bidez.
    - Berme osoaren % 25, 30.000 eurotik beherako abalen bidez.

- Obra harrera egiten denetik zenbatzen hasita 3,5 eta 5,5 urteko epean akaberetako eta bizigarritasuneko gorabeheren arreta eskaini bada, hurrenez hurren. 52.2.3 atalean deskribatutako berme osoaren zenbatekoko abalak aurkeztu beharko dira, honela:

    - Berme osoaren % 50, zenbateko bereko bi abalen bidez.
    - Berme osoaren % 25, 50.000 eurotik beherako abal kopuru bikoiti baten bidez.
    - Berme osoaren % 25, 30.000 eurotik beherako abal kopuru bikoiti baten bidez.

- Obra harrera egiten denetik 3,5, 5,5 eta 12 urteko epean akaberetako, bizigarritasuneko eta egiturako gorabeheren arreta eskaini bada, hurrenez hurren. 52.2.3 atalean deskribatutako berme osoaren zenbatekoko abalak aurkeztu beharko dira, honela:
- Berme osoaren % 50, zenbateko bereko bi abalen bidez.
- Berme osoaren % 25, 50.000 eurotik beherako abal kopuru bikoiti baten bidez.
- Berme osoaren % 20, 30.000 eurotik beherako abal kopuru bikoiti baten bidez.
- Berme osoaren % 5, abal bakar baten bidez.

52.4.- Kontratuzko erantzukizunari kalterik egin gabe, behin betiko bermeak eta berme osagarriak esleipendunak kontratutik etorritako betebehar guztiak leialki betetzeko izango dira, eta IRUNVIren onurarako geratuko dira, kasu hauetan erabiltzeko:

a) Egindako lanak kalitate txarrekoak direnean, kontratuaren baldintzak bete ez direnean, eta esleipendunak kontratua gauzatzean IRUNVIri kalte-galerak eragin dizkionean (lana uzteagatik eta/edo kontratua suntsiarazteagatik), bai eta betebeharrak berandu betetzeagatik gastuak eragin direnean ere.

b) Oro har, eraikuntzako edo exekuzioko akatsek eraikinean edo urbanizazioan kalte materialak eragin dituztenean, eta/edo eraikuntzako elementuetan edo instalazioetan kalte materialak eragin direnean, horien jatorria edozein dela ere, inolako mugarik gabe eta betiere esleipendunari egozteko moduko arrazoiengatik.

c) Obren akaberako edo bukaerako elementuei eragiten dieten exekuzioko akatsek kalte materialak eragin dituztenean, eta/edo eraikuntzako elementuen edo instalazioen akatsek kalte materialak eragin dituztenean, baldin eta harrera aktan edo obren berme epean antzeman badira, nahiz eta hirugarrenei kontratatu izan; bai eta funtzionamenduko akatsak daudenean eta kalte-galerak eragin dituztenean ere.

d) Zimenduei, euskarriei, habeei, forjatuei, karga hormei eta bestelako egitura elementuei eragiten dieten akatsek eraikinean kalte materialak eragin dituztenean, eraikinaren erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna zuzenean arriskuan jarriz Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 17.1.a artikuluaren arabera.

e) Eraikuntza elementuen edo instalazioen akatsek eraikinean kalte materialak eragin dituztenean, eta ondorioz ez badira betetzen Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 3. artikuluaren 1. paragrafoko c) idatz zatian ezarritako bizigarritasun baldintzak, aipatu Legearen 17.1 b artikuluarekin bat etorriz.

f) Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 17.6 artikuluan aipatzen diren akatsek kalte materialak eragin dituztenean.

g) Babes Ofizialeko Etxebizitzen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 24ko 2114/1968 Dekretuaren 111. artikuluan aipatzen diren eraikuntzako akatsek kalte materialak eragin dituztenean.

h) Esleipendunak kontratuagatik edozein motatako zorrak eta zehapenak dituenean, dagozkien errekarguekin eta interesekin; Administrazio Publikoaren aurrean erantzule solidarioa eta/edo subsidiarioa den aldetik, IRUNVIri dagokio horiek ordaintzea, esleipendunak eta/edo azpikontratistek zerga arloko, lan arloko, gizarte segurantzako eta laneko segurtasuneko eta osasuneko baldintzak ez betetzeagatik.

i) Azken likidazioa egitean IRUNVIk esleipendunari ordaindutako gehiegizko zenbatekoa ordaindu badio, hori itzultzeko.

j) Esleipendunari kontratua gauzatzearekin erlazionatuta zigorrak jarri zaizkionean.

k) Kontratua gauzatzean hirugarrenei kalteak eragin bazaizkie, esleipendunari egozteko moduko arrazoiengatik.

l) Enpresa kontratistaren lan betebeharrak betetzeko, bereziki istripu larria eta hilgarria gertatzen bada; beraz, lan betebeharrak betetzen ez badira, edo laneko istripu larria edo hilgarria gertatuz gero, ez da behin betiko bermea itzuliko harik eta langileek edo haien eskubidedunek erreklamazioak egiteko prozesua amaitu arte.

m) Enpresa kontratistari kontratua gauzatzearekin erlazionatuta zigorrak jarri zaizkionean, bereziki obrak berandu gauzatzeagatik, zerrenda baloratuetatik kendu ez badira.

n) Kontratutik etorritako betebeharrak ordaintzeko, bereziki akatsengatik eraikinean eragindako kalte materialak, enpresa kontratistak bere betebeharrak berandu betetzeagatik IRUNVIri eragindako gastuak, eta kontratua gauzatzearen ondorioz edo kontratua ez betetzeagatik sortutako kalte-galerak.

o) Kontratistak edozein arrazoirengatik IRUNVIri kalte-galerak eragin dizkionean.

p) Baldintza agiri honetan ezarritakoaren arabera kontratua suntsiarazten den kasuetan (bermea konfiskatzea).

q) Kontratistak edo azpikontratistak hirugarrenei kalteak eragin dizkienean, baldin eta kontratatutako polizak kalte horiek estaltzen ez baditu.

52.5.- Era berean, behin betiko bermeak eta berme osagarriak esleipendunak beste betebehar eta/edo kontratu batzuen ondorioz IRUNVIrekin dituen zorretarako ere izango dira, eta zor horiek Kode Zibilaren 1.195 artikuluan aurreikusitakoaren arabera konpentsatuko dira.

52.6.- Bermearen exekuzioa eta IRUNVIk atxikipenak hartzeko eskubidea ez dira inola ere etengo esleipendunaren ustez babestuta dauden ekintzengatik, eta IRUNVIren betebeharra izango da ezarritako zenbatekoak justifikatzea eta, hala badagokio, itzultzea.

52.7.- Behin betiko bermeekin eta berme osagarriekin kalte ordain edo zigor bat ordaintzen bada, esleipendunak hasierako zenbatekora arte osatu beharko du, IRUNVIri behar bezala justifikatuta. Bestela, IRUNVIk baldintza hori betetzea eska dezake, kontratuko zerrenda baloratuen arabera ordaintzeko dauden zenbatekoetatik zuzenean kenduta, edo kontratua suntsiaraz dezake.

52.8.- Kontratua aldatzearen ondorioz haren zenbateko osoa aldatzen bada, IRUNVIk bermea doitzeko eska dezake, aldaketaren berri eman eta 15 eguneko epean; horretarako, dagokion berme osagarria aurkeztu beharko du.

53. klausula. Berme epea

53.1.- Enpresa kontratistak 12 hilabeteko epe batez bermatuko du berak egindako obra, harrera akta positibo eta oharrik gabearen datatik zenbatzen hasita, giltzak eta beharrezko dokumentazioa ere entregatuta, erabilera, garbitasun eta funtzionamendu egoera egokian. Gainera, Kode Zibilean kasu hauetarako legez ezarritako epeak beteko ditu kontratistak: (1.591 artikulua) eraikina aurri egoeran badago, 10-15 urte, eta (1.694 artikulua) kontratuzko erantzukizuna dagoenean, 5 urte; bai eta Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legean ezarritakoak ere, 1, 3 eta 10 urte, arau horietan ezarritako irismenarekin, eta esleipendunak eskainitako epeei kalterik egin gabe.

53.2.- Era berean, enpresa kontratistak 5 urtez bermatuko du egindako obra, babes ofizialeko etxebizitzen behin betiko kalifikazioaren datatik zenbatzen hasita, eta epe horretan agertzen diren eraikuntzako akatsen erantzukizuna bere gain hartuko du, Babes Ofizialeko Etxebizitzen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 24ko 2114/1968 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

53.3.- Berme epeetan antzemandako eta/edo erreklamatutako akatsak konpondu arte, egindako atxikipenak eta/edo eratutako bermeak ez dira itzuliko, eta, kasu bakoitzean, ezarritako berme epea paralizatu egingo da.

53.4.- Berme epeetan ikusten bada obrako zenbait elementuk eta instalaziok akatsak dituztela eta enpresa kontratistak konpondu behar dituela, hasieran ezarritako berme epea bete beharko dute berriz ere, konponketen harrera egiten egun berritik zenbatzen hasita.

53.5.- Berme epea amaitu ondoren obra hondatu egiten bada edo kalte larriak agertzen badira, kontratistak kontratua bete ez eta eraikuntzako ezkutuko akatsak daudelako, kontratistak 15 urteko epean gertatzen diren kalteen eta galeren gaineko erantzukizuna hartuko du, obra harrera oharrik gabea egiten den egunetik kontatzen hasita.

Era berean, zimendu, euskarri, habe, forjatu, karga horma edo bestelako egiturazko elementuei eragiten dieten eta eraikuntzaren erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna zuzenean arriskuan jartzen duten akatsengatik obran sortutako kalte materialen aurrean ere, kontratistak 15 urteko epean erantzukizuna bere gain hartuko du, obra harrera oharrik gabea egiten den egunetik kontatzen hasita edo akatsak zuzentzen direnetik zenbatzen hasita.

53. 6.- Aurreko guztiari kalterik egin gabe, salbuetsita geratuko da, kasu guztietan, IRUNVIk Kode Zibileko 1.101, 1.124, 1.591, 1.902 artikuluen eta aplikatzekoak diren gainerakoen babesean egindako guztia.

54. klausula. Konponketak

Akatsak zuzentzea, etxebizitzak erabiltzaileei eman aurretik:

54.1.- Obra entregatu aurretik, IRUNVIk eta eraikitako etxebizitzak eskuratu dituztenek nabarmen antzeman daitezkeen akats guztiak identifikatu ahal izango dituzte, obra entregatu aurretik zuzendu daitezen. Horretarako, IRUNVIk edo etxebizitzak eskuratuko dituztenek zerrenda bat egingo dute, eta kontratistari emango diote, elementu bakoitzaren eskriturak egin aurretik konpontzeko.

54.2.- Obra harrera egin ondoren bertan bizitzen jarri diren erabiltzaileek, zuzendaritza fakultatiboak edo IRUNVIk akatsak antzematen badituzte, enpresa kontratistak beharrezko konponketa guztiak egin beharko ditu, eta horretarako, behar beste teknikari eta langile jarriko ditu IRUNVIren esku, doan, elementu bakoitzaren eskriturak egin aurretik konpontzeko.

Berme epean akatsak konpontzeko aginduak:

54.3.- Aurreko zenbakietan adierazitako berme epeetan, kontratistak lehenbailehen zuzendu edo konpondu beharko du, obrari ahalik eta kalte txikiena eraginez, eraikuntzako akatsei edo erabilitako materialen edo elementuen kalitate eskasari egotz dakiokeen edozein anomalia, kontuan hartuta zuzendaritza fakultatiboaren, IRUNVIren edo, hala badagokio, IRUNVIk saldu ondoko zerbitzua emateko kontratatutako enpresaren aginduak. Kontratistak, IRUNVIk edo, hala badagokio, saldu osteko zerbitzua emango duen enpresak eskatuta, kontratistak obrara joan beharko du, garrantzitsuak diren gorabeherak berrikustera.

54.4.- Berme epeetan kontratistari egotz dakizkiokeen eraikuntzako akatsak edo gabeziak agertzen badira, esleipendunak konpondu egin beharko ditu, IRUNVIk edo, hala badagokio, IRUNVIk saldu ondoko zerbitzua emateko kontratatutako enpresak larritasunaren arabera ezarritako epean, edozein bidetatik (faxa, posta arrunta, posta elektronikoa, posta elektroniko ziurtatua, burofaxa, etab.) jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita.

54.5.- Konponketa agindua IRUNVIko teknikarien irizpidearen arabera egingo da, eraikuntzako kaltea edo akatsa dagoen eta hori eraikuntza enpresari egotz dakiokeen ebaluatzean hausnartzen dutenaren arabera; hala ere, eraikuntza enpresari edo zuzendaritza fakultatiboari beste txosten batzuk eskatzeko aukera ere izango dute. Azken txosten horiek nahitaez eskatu beharko dira egin beharreko konponketaren kostuaren lehen aurreikuspena 75.000 €-tik gorakoa bada.

54.6.- Txostenak jaso eta baloratu ondoren, halakorik eskatuz gero, IRUNVIk konponketak egiteko eta justifikatzeko eskatuko dio arduradunari.

54.7.- Kontratistak aldizka jakinarazi beharko du eskatutako konponketen egoera, gehienera jota 15 egunean behin, eta IRUNVIk adierazitako formatuan. Jakinarazpen horiek egiten ez baditu, 100 euroko zigorra jarri ahal izango zaio jakinarazpen falta bakoitzeko.

Kontratistari egotz dakizkiokeen konponketak hirugarrenek egitea

54.8.- Konponketa agindua ez bada emandako epean betetzen edo konponketak ez badira behar bezala egiten, IRUNVIk hirugarren bat kontratatu dezake konponketak egiteko, eta horien kostua, gehi % 10eko zigorra, edo esleipendunaren eskaintzaren arabera dagokion ehunekoa, egindako atxikipenetik, jarritako bermetik edo kontratistari beste kontzeptu batzuengatik esleipendunari zor izan diezaiokeen beste zenbateko batzuetatik ordainduko du. Hori guztia, kalte-galerengatik eman beharreko kalte ordaina gorabehera, zeina modu berean deskontatu ahal izango duen.

54.9.- Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritzak edo beste erakunde ofizial batek eraikuntzako akatsak konpontzeko agindua ematen duenean, edozein dela ere eraikuntzako akats horien izaera edo garrantzia, IRUNVIk hirugarren bat kontratatu ahal izango du konponketak egiteko, aldez aurretiko errekerimendurik gabe, eskatzen duen aurrekontuaren arabera; zenbateko hori eraikuntza enpresari jakinaraziko zaio, akatsa berari egotz dakiokeenean.

55. klausula. Bermeak konfiskatzeko jarduera protokoloa

55.1.- Enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak adierazitako epean edo behar bezala konpontzen ez badira, edo, aurreko artikuluaren arabera, zuzenean IRUNVIk konpontzen baditu, horien kostua IRUNVIren esku dauden bermeetatik deskontatuko da.

55.2.- IRUNVIk konponketen fakturak egingo ditu, eta ez betetzeagatik dagozkion zigorrak jarri.

55.3.- Kontratistak konponketak egiteari uko egin ahal izateko, justifikazioko txosten teknikoa aurkeztu beharko du, eta bertan egiaztatu berak ez duela exekuzioko akatsik egin, eta, era berean, bere ustez gorabehera diseinuko edo mantenimenduko arazo batengatik izan dela azaltzen duten arrazoi zehatzak eman. Edozelan ere, IRUNVIk berehala egingo ditu dagozkion konponketak, eta, kontratistak emandako informazioa ikusita, erabaki arrazoitua hartuko du. Erabaki horren aurka, bere interesetarako egokitzat jotzen dituen neurri guztiak hartu ahal izango ditu kontratistak.

56. klausula. Behin betiko bermeak, berme osagarriak eta lizentzia itzultzea

56.1.- Behin betiko bermea indarrean egongo da, harik eta IRUNVIk indargabetzea erabakitzen duen arte:

a) Aurrekontu esleituaren % 5eko behin betiko bermea, BEZ gabe, obraren harrera akta oharrik gabea edo zuzenketa akta egiten den egunean itzuliko da, enpresa kontratistak baldintza agiri honen 52.2 klausulan deskribatutako berme osagarriari dagokion abala entregatu ondoren, eta 52.3 klausulan aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

   Era berean, berme epea amaitu aurreko 15 egunetan, obraren zuzendari fakultatiboak obren egoerari buruzko txostena egingo du. Txostena aldekoa ez bada, eta aurkitutako akatsak obran egindako hutsen ondorio badira, berme epeak dirauen bitartean zuzendari fakultatiboak dagozkion jarraibideak emango dizkio kontratistari, eraikitakoa behar bezala konpon dezan; horretarako, epe bat jarriko dio, eta epe horrek dirauen bitartean ere bera izango da obrak kontserbatzeko arduraduna, eta ez du inolako

eskubiderik izango berme epea luzatu zaiola eta inolako ordainik jasotzeko. Itzultzeko epea akatsak subsumitzen direnetik hasiko da zenbatzen, dagokion aktan dokumentatu ostean.

b) Hileko zerrenda baloratu bakoitzaren % 10eko atxikipena (obra aurrekontuaren % 50etik aurrera ordaindu beharrekoa) egin beharrean, zenbateko bereko abala entregatuko da, eskaintza ekonomikoan egindako beheratzearen (52.2.2 puntuan adierazitakoa) zenbatekoa gehituta.

Berme osagarri hori gehienez ere 12 hilabeteko epean itzuliko da, obraren harrera akta oharrik gabea egiten den egunetik zenbatzen hasita, betiere edozein motatako eraikuntza akatsik ez badago, eta esleitutako eskaintzaren edukiaren arabera kontratistak eskainitako hobekuntzen arabera itzulketa egiteko aplika daitekeen epeari kalterik egin gabe.

Edozein motatako eraikuntza akatsak egonez gero, horiek subsumitzen direnetik aurrera zenbatuko da epea, nahitaezko aktan jasota.

c) Kontratistak bere eskaintzan berme epeak hobetu baditu:

- Obra harrera oharrik gabea egiten denetik zenbatzen hasita 3,5 urteko epean akaberetako gorabeheren arreta eskaini bada. Berme osoaren abala 3,5 urteko gehieneko epean itzuliko da, obraren harrera akta oharrik gabea egiten den egunetik zenbatzen hasita, betiere edozein motatako eraikuntza akatsik ez badago. Akatsak baldin badaude, abalaren zati bat bakarrik itzuliko da, akats horien konponketaren zenbatekoaren arabera, bai eta IRUNVIk egin behar izan ditzakeen konponketen zenbatekoaren arabera ere.

- Obra harrera egiten denetik zenbatzen hasita 3,5 eta 5,5 urteko epean akaberetako eta bizigarritasuneko gorabeheren arreta eskaini bada, hurrenez hurren. Berme osoaren % 50eko abalak 3,5 eta 5,5 urteko gehieneko epean itzuliko dira, hurrenez hurren, obraren harrera akta oharrik gabea egiten den egunetik zenbatzen hasita, betiere edozein motatako eraikuntza akatsik ez badago. Akatsak baldin badaude, abalaren zati bat bakarrik itzuliko da, akats horien konponketaren zenbatekoaren arabera, bai eta IRUNVIk egin behar izan ditzakeen konponketen zenbatekoaren arabera ere.

- Obra harrera egiten denetik 3,5, 5,5 eta 12 urteko epean akaberetako, bizigarritasuneko eta egiturako gorabeheren arreta eskaini bada, hurrenez hurren. Berme osoaren % 50eko, % 45eko eta % 5eko abalak 3,5, 5,5 eta 12 urteko gehieneko epean itzuliko dira, hurrenez hurren, obraren harrera akta oharrik gabea egiten den egunetik zenbatzen hasita, betiere edozein motatako eraikuntza akatsik ez badago. Akatsak baldin badaude, abalaren zati bat bakarrik itzuliko da, akats horien konponketaren zenbatekoaren arabera, bai eta IRUNVIk egin behar izan ditzakeen konponketen zenbatekoaren arabera ere.

Edozein motatako eraikuntza akatsak egonez gero, horiek subsumitzen direnetik aurrera zenbatuko da epea, nahitaezko aktan jasota.

Berme epeetan, kontratistak eraikuntzaren akatsen, erabilitako materialen kalitate txarraren, material desegokien erabileraren edo ezarritako baldintzak ez betetzearen ondoriozko akatsak, kalteak edo anomaliak konpondu eta zuzendu beharko ditu. Kasu horretan, jabetzak zuhurtziazko epe bat jarriko dio kontratistari antzemandako akatsak konpon ditzan, eta betetzen ez badu, jabetzak bere kabuz konpon dezake, atxikitako zenbatekoen kontura ez ezik, baita kontratistari beste kontzeptu batzuengatik zor izan diezazkiokeen beste zenbateko batzuen kontura ere. Hori guztia, kalte-galerengatik eman beharreko kalte ordaina gorabehera, zeina modu berean deskontatu ahal izango duen.

56.2.- Irungo Udalak 2021eko ekainaren 16an emandako lizentzian ezarritako fidantzak itzultzea.

Fidantza horiek itzultzeko, Irungo Udalaren aldeko txostena beharko da, non ziurtatuko den fidantzak jartzean ezarritako betebeharrak behar bezala bete direla. IRUNVIk ezingo ditu fidantza horietako zenbatekoak atxiki kontratuko baldintzak ez betetzeagatik, non eta ez den hondakinak behar bezala ez kudeatzegatik, edo urbanizazio periferikoan kalteak egin izateagatik obrarako sarbideen ondorioz, edo obrak egin bitartean jabari publikoan egindako garbiketa lanengatik.

III.03.bis- SALDU OSTEKO JARDUKETA NEURRIAK

57. klausula. Kontratistaren saldu ondoko zerbitzua

57.1.- Lizitatzaileak bere erakundean integratuta saldu ondoko laguntza zerbitzu propioa duela egiaztatu beharko du, edo hirugarren batekin azpikontratatzeko konpromisoa hartu, aplikatu beharreko araudiaren arabera Eraikuntza Antolatzeko Legeak arautzen dituen epeetan edo lizitazio honetan eskainitako epeetan konpontzeko eska dakiokeen gorabeherei aurre egiteko.

57.2.- Kontratistak epe osoan eskaini beharko du zerbitzu hori, eta, gutxienez, baldintza agirian ezarritako berme epean, edo bere eskaintzan ezarritakoan, aurrekoa baino handiagoa bada.

57.3.- Zerbitzu horren bidez, halaber, galdarak, berokuntza eta etxeko ur beroa gainbegiratuko da, eskainitako epean. Elementu horien bermeak gutxienez 2 urterako izango dira, instalazio horien mantentze lanak jabeen erkidegoari transmititzen zaizkionetik kontatzen hasita.

57.4.- Zerbitzua kontratistak kasuan-kasuan izendatzen dituen langileek emango dute, eta nahitaezko baldintza izango da obran erantzukizunak izan dituzten langileen izendapen nominala egiteko konpromisoa hartzea, horrela zuzenean obraren berri dutela ziurtatzen delako. Esleipendunak arduradun tekniko bat izendatu beharko du IRUNVIrekin solaskide gisa jarduteko (eta zerbitzuak irauten duen artean mantenduko dela bermatu).

57.5.- Saldu ondoko zerbitzuak baldintza agirian aurreikusitako prozedura beteko du gutxienera jota, baina esleipendunak egokitzat jotzen dituen hobekuntza guztiak egin ahal

izango dira. Esleipendunari prozedura espezifiko bat zehazteko eskatuko zaio, 24 orduko laguntza bermatzeko eta lan ordutegitik kanpo (gauez, asteburuan, jaiegunetan, etab.) gertatzen diren gorabeherei/matxurei behin betiko edo behin-behineko konponbidea eman ahal izateko.

III.04.- OBRA EGITEKO EPEA ETA ZIGORRAK

58. klausula. Obra egiteko epea

Eskaintzan guztizko epe bat jarriko da obra guztietarako, eta epe partzialak obrako kapitulu bakoitza amaitzeko eta mugarri hauetarako: zimenduak berdintzea, estalkia amaitzea, trenkada amaitzea, obra amaiera. Epe horiek justifikatzeko, dagokion obra plana aurkeztu beharko da. Plan horren edukia eta xehetasunak baldintza agiri honetan zehaztutakora egokituko dira.

Kontratak proposatuta, IRUNVIk beste obra plan bat onartzen badu lanak egiten ari diren bitartean, baldintza agiri honetan atzerapenagatik aurreikusitako zigorrak jarri ahal izango dira, atzerapenaren erantzukizuna zehazten den bitartean.

59. klausula. Obren hasiera

Obrak kontratua sinatu eta hurrengo hilabetean hasi beharko dira. Aldez aurretik, zuinketa egiaztatzeko akta egingo da. Era berean, ezin izango da obra hasi segurtasun eta osasun plana onartu eta aurkeztu arte.

60. klausula. Obrak etetea

60.1.- IRUNVIk beretzat gordetzen du beharrezkotzat jotzen dituen obrak aldi baterako, osorik edo zati batean etetea erabakitzeko eskubidea.
60.2.- IRUNVIk kontratua etetea erabakitzen badu, akta bat egingo da, ofizioz edo enpresa kontratistak hala eskatuta, non jasoko baitira etetearen arrazoia eta egoera.

60.3.- Behin etetea adostuta, egiaz jasan dituen kalteak eta galerak ordainduko dizkio IRUNVIk enpresa kontratistari, arau hauen arabera:

a) Jarraian adierazitako kontzeptuak bakarrik ordainduko dira, betiere 1.etik 4.era bitarteko puntuetan modu frogagarrian egiaztatzen bada haien benetakotasuna, eraginkortasuna eta zenbatekoa:

   1. Behin betiko bermea mantentzeko gastuak.
   2. Enpresa kontratistak kontratua betetzeko egin dituen lan kontratuak (obrak etetean indarrean daudenak) azkentzeagatik edo eteteagatik eman beharreko kalte ordainak.
   3. Obrak etenda dauden bitartean nahitaez kontratuari atxikita egon behar duten langileen soldata gastuak.

4. Makina, instalazio eta ekipoen alokairuak edo mantentze kostuak, betiere enpresa kontratistak egiaztatzen badu baliabide horiek ezin dituela erabili etendako kontratua gauzatzea ez den bestelako helburuetarako.

5. Kontratistak etenaldian egin behar izango zituen lanen prezioaren % 3, lan programan edo kontratuan bertan aurreikusitakoaren arabera.

6. Kontratistak sinatutako aseguru polizen gastuak, kontratuaren xedeari lotutako administrazio klausulen agirian aurreikusitako eran.

b) Dagokion aktan dokumentatu diren etenaldietarako bakarrik emango dira kalte ordainak. Enpresa kontratistak akta hori egiteko eskatu ahal izango du. IRUNVIk eskaera horri erantzuten ez badio, eta kontrako frogarik ezean, etenaldia kontratistak bere eskaeran adierazitako egunean hasi dela joko da.

c) Erreklamazioak egiteko eskubidea urtebeteko epean preskribatzen da, kontratistak berriz lanei ekiteko agindua jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

61. klausula. Kontratua suntsiaraztea epeak ez betetzeagatik

Obraren exekuzioaren atzerapena ezin izango da, inola ere, obraren exekuzio epe osoaren (edo eskaintzan mugarri hauetarako ezarritako epe partzial bakoitzaren: zimenduak berdintzea, estalkia amaitzea, trenkada amaitzea, obra amaiera) EHUNEKO HOGEI (% 20) baino handiagoa izan; beraz, gehieneko muga horretara iristean, IRUNVIk kontratua suntsiarazi ahal izango du, kontratistak bete ez duelako.

III.05.- OBRA EGITEA

62. klausula. Proiektua

Obrak ARRUABARRENA GREEN H ABEE merkataritza sozietateak idatzitako egikaritze proiektuaren arabera egingo dira, eta IRUNVIk izendatuko duen zuzendaritza fakultatiboak unean-unean ezartzen dituen jarraibideen arabera. Exekuzio proiektuko dokumentu guztiak karatulako 10. klausulan jasotako fakultatiboek idatzi dituzte, eta kontratu izaera izango dute.

Proiektua osoa dela, eraikina eta urbanizazio osagarria eraikuntzako jardunbide egokien arabera egiteko behar diren partida guztiak jasotzen dituela, eta idazteko unean nahitaez bete beharreko araudiari men egiten diola jotzen da.

Obrak baldintza agiri honen II. eranskinean jasotako erreferentziazko irizpidearen arabera egingo dira, akaberei eta gehieneko tolerantziei dagokienez.

63. klausula. Arriskua eta mentura

63.1.- Kontratistak bere gain hartuko du obra gauzatzeko arrisku eta mentura.

63.2.- Kontratua betetzeko, kontratistak onartzen du obrak egingo diren lekua bisitatu duela, eta egiaztatu duela lurzatiak dituen zerbitzuak, egoera fisikoa eta aurreikusitako egokitzapenak egokiak direla obrak behar bezala egiteko.

64. klausula. Eraikuntza enpresaren betebeharrak

Hauek dira eraikuntza enpresaren betebeharrak:

a) Lanak proiektuaren, aplikatu beharreko legediaren eta obra zuzendariaren eta obra gauzatzeko zuzendariaren jarraibideen arabera egitea, proiektuak eskatzen den kalitatea izan dezan.

b) Eraikuntza enpresa gisa jarduteko eskatzen diren baldintzak betetzeko gaitzen duten tituluak edo lanbide gaitasunak izatea.

c) Obran eraikuntza enpresaren ordezkari teknikoa izango den obra burua izendatzea. Hark, duen titulazioa edo esperientzia kontuan hartuta, gaitasun nahikoa izan behar du, obraren ezaugarrien eta konplexutasunaren arabera.

d) Obraren garrantziaren arabera beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak jartzea.

e) Obraren zati edo instalazio jakin batzuk azpikontratatzea, baldintza agiri honetan eta kontratuan ezarritako mugen barruan.

f) Zuinketa akta edo hasierako akta eta obraren harrera akta sinatzea.

g) Gauzatutako obraren dokumentazioa egiteko behar diren datuak ematea obra zuzendariari.

h) Obra Plana eta epe partzialak eta osoak betetzea.

i) IRUNVIk zuzenean kontratatutako azpikontratistei beren lana erraztea, behar den guztian lagunduz.

j) Segurtasuneko eta osasuneko koordinatzaileak edo laneko eta prebentzioko teknikari laguntzaileek eskatzen duten dokumentazio guztia idatziz ematea.

65. klausula. Zuinketa akta

Kontratua sinatu eta hurrengo hilabetean zuinketa akta sinatu eta obrak hasi beharko ditu kontrata esleipendunak, IRUNVIk deialdia egin ondoren.

66. klausula. Proiektuko aldaketak

66.1.- Enpresa kontratistak ezin izango du, inolaz ere, aldaketarik egin proiektuan, non eta ez den IRUNVIren berariazko onespenarekin, zuzendaritza fakultatiboak txostena egin ondoren.

66.2.- Eraikuntza egokiari buruzko arauen arabera eraikinaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak izan daitezkeen obrako aldaketak ez dira proiektuaren aldaketatzat hartuko, eta beraz, ez dute inolako aldaketarik eragingo goren mugako prezio orokorrean. Zehazki, aldaketa hauek ez dute eraginik izango hasieran itundutako goren mugako prezioan:

a) Egikaritze proiektuan egindako omisioak edo aurreikuspenak, baldin eta planoak egitean, memorietan eta abarretan egindako akatsengatik izan badira; kasu horretan, eraikuntza enpresak eskaintza aurkezteko azterketa fasean akatsaren berri eman izango dio sustatzaileari eta zuzendaritza fakultatiboari, kontratua sinatu aurretik zuzentzeko.

b) Egin beharreko unitate kopuruan eta neurrietan egon daitezkeen aldeak. Ez dute eraginik izango goren mugako prezio orokorrean, prezioa neurketen arabera ezartzen den obra zatian izan ezik.

c) Eraikuntzan beharrezkoak diren unitate berriak, proiektuan jaso ez direnak edo behar ez bezala sartu direnak, baldin eta ezinbestekoak badira eraikuntzak behar bezala funtzionatzeko, eraikuntza egokiari buruzko arauen arabera.

d) Erakunde ofizialek (tokikoek, autonomikoek eta/edo konpainia hornitzaileek: telefonoa, ura, elektrizitatea, gasa, suteen aurkako instalazioak, etab.) ezarritako preskripzioetatik etor daitezkeen obrako aldaketak.

e) Egikaritze materiala kontratistak hasieran aurreikusitakoa baino konplexuagoa denean, berari baitagokio: 1) proiektu teknikoko neurketak, partidak eta zehaztapenak egiaztatzea, bere eskaintzan eskatutako lanak behar bezala egiteko behar den guztia kontuan hartuta; 2) egikaritze materialaren konplexutasuna ezagutzea; 3) konponbide funtzionalak, osoak, zuzenak eta iraunkorrak ematea, nahiz eta egikaritze proiektuan jasota ez egon, osatu gabe egon edo zuzenak ez izan.

66.3.- Egin beharreko aldaketak IRUNVIk zehaztuko ditu betiere, obren zuzendaritza fakultatiboaren bidez, eta zuzendaritza horrek, beharrezkoak diren agiriak, planoak edo datuak emango dizkio kontratistari.

66.4.- Baldintza giri honetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, jabetzak proiektuan aldaketak egitea erabakitzen badu, nahitaez honela jokatuko da:

a) Izapideak eta beharrezko formalitateak:

- Kontraesaneko akta egin beharko da, eta bertan, hala badagokio, kontratak jaso beharreko prezio berria edo eskainitako prezioaren aldaketa finkatu beharko da, unitate berri horren edo proiektukoa aldatzearen ondorioz.
- Akta horretan zehaztuko da, halaber, unitate berri hori gauzatzeak edo proiektukoa aldatzeak obrak egiteko ezarritako epea luzatzea dakarren ala ez, eta, hala bada, luzapenaren iraupena zehaztuko da.
- Aktarekin batera, aldaketa zehazten duten planoak edo dokumentu grafikoak aurkeztuko dira, bai eta aldatutako zehaztapenak ere.

- Zuzendaritza fakultatiboari dagokio unitate berria justifikatzeko edo proiektukoa aldatzeko erabakiak hartzea.

- Kontraesaneko akta nahitaez sinatu beharko du jabetzaren ordezkariak, hura aplikatzeko eta baliozkoa izateko ezinbesteko baldintza gisa, eta ez da baliozkoa izango zuzendaritza fakultatiboak soilik sinatzea.

- Obra unitate berriak egiten badira edo proiektatuak aldatzen badira eta lehen aipatutako kontraesaneko akta egiten ez bada, hori egintza propiotzat eta enpresa kontratistaren aitorpen lotesletzat hartuko da, eta beraz, kontratistak uko egingo dio unitate berri hori egiteagatik edo hasieran proiektatua zegoena aldatzeagatik inolako zenbatekorik erreklamatzeari, bai eta obrak egiteko ezarritako epea luzatzeko eskatzeari edo luzapena lortzeari ere. Ordainetan, kontratistak ez du aldaketa edo unitate berria egin beharko kontraesaneko aktan jabetzaren ordezkariaren sinadura agertzen den arte.

b) Aplikatu beharreko prezioak zehazteko arauak:

- Elementu bereizi, kapitulu edo partida oso bat ezabatzen bada, ezabatu den zenbateko osoa obraren prezio bakar, orokor, egiazko eta itxi gisa kontratatutako zenbatekotik kenduko da; kasu horretan, kontratistak ezabatutako kapituluaren edo partidaren prezioaren % 19 jasoko du (prezio itxian kontratatzen den obra zatian bakarrik aplikatuko da hau).

- Elementu bereizi, kapitulu edo partida oso baten ordez elementu horretarako hasieran kontratatutakoa baino prezio txikiagoa duen beste elementu bat jarriz gero, kontratistak zenbateko hauek jasoko ditu:
    - Aldea % 2tik beherakoa bada, prezio berriaren zenbatekoa, prezio horren % 19arekin.
    - Aldea % 2tik gorakoa bada, prezio berriaren zenbatekoa, prezio horren % 19arekin gehi ordeztutako prezioaren % 19arekin. Prezio berriak ezingo du izan ordeztutako prezioa baino handiagoa.

- Elementu bereizi, kapitulu edo partida oso baten ordez elementu horretarako hasieran kontratatutakoa baino prezio handiagoa duen beste elementu bat jarriz gero, kontratistak prezio berria bakarrik jasoko du, prezio horren % 19arekin.

- Prezio berria finkatzeko, proiektuko antzeko partiden kontratuzko prezioa hartuko da oinarritzat ahal den guztietan, eta beraz, partida baten prezio berria hasierako partida baten prezio sinplifikatua bada, hura baino txikiagoa izan beharko du nahitaez.

- Aurreko erreferentziarik ez badago, kontratistak dagokion aurrekontua aurkeztuko du, “prezio deskonposatuen” metodoaren arabera, eta zuzendaritza fakultatiboaren eta jabetzaren adostasuna beharko du.

- Aurrekontuko prezio unitarioetan antzeko unitaterik edo materialik ez badago, ezta erreferentziarik ere, horien zenbatekoa adostuko dute sustatzaileak eta eraikuntza enpresak, erreferentzia gisa hartuta Irungo Udalean eraikuntza lizentziak lortzeko aurkeztutako proiektuetako prezioak; zentzu horretan, proiektu berrienetako batezbestekoa kalkulatu eta KPIaren arabera eguneratuko da.
- Prezio unitario berriak banakatuta eta deskonposatuta egon behar du; dena delako kontzeptua ezin bada baloratu tresna horietako baten laguntzarekin, jabetzak dagokion elkargo profesionalaren arbitrajea eskatzeko eskubidea izango du, eta kontratistak haren erabakia onartu beharko du.

66.5.- Atal honetan ezarritakoa urratuz edozein aldaketa egiten bada, horrek ez du eraginik izango IRUNVIk obra aurrekontuan ezarritakoaren arabera ordaintzeko duen eskubidean, ez eta obra proiektuaren arabera gauzatua izateko eskubidean ere, eta hala badagokio, enpresa kontratistaren kontura eraitsi beharko da, eta hura ezingo da babestu dagokion asteko aktan jasota ez dauden aginduetan.

66.6.- Unitate edo material berriak, behin prezioa eta neurketak onartuta, kontratuaren parte izango dira ondorio guztietarako, eta erabakitze prozesua dela eta (gehienez ere 15 egunekoa prezio berriak ezartzeko) ezingo da obraren exekuzioa atzeratu, ezta prezio berriek eragina duten unitateena ere, non eta, zuzendaritza fakultatiboaren iritziz, aldaketak ez dion eragiten obraren bide kritikoari.

66.7.- Sustatzaileak ez badu prezio berria onartzen, obra unitate horiek beste enpresa kontratista batzuei enkargatzeko eskubidea izango du, eta lan horiek kontratarekin batera egin ahal izango dira, baina horrek ez dio obrari eragingo, ez epeetan, ez jada kontratatuta dagoenaren kostuan ere.

67. klausula. Neurketak handitzea eta likidazioa

Goragoko 44. klausulan adierazitako neurketak handitu arren, ezingo da inola ere handitu enpresa kontratistak eskainitako epea.
Neurketetan egindako aldaketak aipatutako 44. klausulan adierazitakoaren arabera likidatuko dira.

68. klausula. Obren koordinazioa eta jarraipena

68.1.- Asteko bilerak. Obren koordinazioa eta jarraipena egiteko, zuzendaritza fakultatiboak eta kontratistak asteroko bileren sistema bat ezarriko dute, eta bilera horietan alde bakoitzetik ordezkari kualifikatu batek parte hartu beharko du, nahitaez. Bileretan, obren garapenari eta martxari buruz hitz egingo da, eta agertzen diren arazoak aztertu eta konponduko dira. Bilera bakoitzaren akta egingo da, aldeek sinatuta, eta kontratuari erantsiko zaio. Bereziki garrantzitsua izango da obrak behar bezala egiten direla zaintzea, plangintzan aurreikusitako lan erritmoaren arabera.

068.2.- Bileren aktak. Asteroko bileretan ebatziko dira egon daitezkeen desadostasunak, edo ezarriko dira dagozkion aldaketak, edozein motatakoak direla ere, alde bakoitzak proposatuta; hori guztia akta sinatuetan jasoko da, eta akordioa lortzen den kasuetan loteslea izango da, baldin eta IRUNVIri jakinaraztean hark oniritzia ematen badu.

69. klausula. Obra osatugabeak, akastunak, onartezinak, etab.

69.1.- Obra osatugabea. Osatu gabeko obra bat baloratu behar denean, kontratistaren eskaintzan agertzen diren prezioak hartuko dira kontuan, eta baldintza agiri honetan adierazten den moduan jardungo da. Kontratistak ezin izango du eskatu obra unitate zatikatu bat ezarritakoa ez den modu batean baloratzeko.

69.2.- Obra akastuna. Obra akastun bat baloratu behar denean, zuzendaritza fakultatiboaren iritziz onargarria bada, zuzendaritza horrek zehaztuko du haren prezioa, kontratistari entzun ondoren. Kontratistak erabaki dezake obra horrela onartzea, amaitzea edo berregitea. Kasu horretan, jabetzak prezio unitarioak ordainduko ditu, baina zati osatugabeen edo akastunen zenbateko osoa kenduko du.

69.3.- Obra akastun onartezina. Obra bat akastuna bada eta onartezintzat jotzen bada egikaritze proiektuko baldintza teknikoen agirien arabera, kontratistak eraitsi eta berregin beharko du, nahiz eta proiektua idatzi duen taldeak edo jabetzak obra aztertu eta ontzat eman izan egiten ari zen bitartean, eta, are gehiago, likidazio partzialetan ordaindu izan. Kasu horretan, atzera botatako obra unitateak ez gauzatutzat joko dira epearen ondorioetarako, harik eta baldintza agirien arabera berregiten diren arte. Hori betetzen ez bada, jabetzak atzera botatako unitateak eraitsi eta berak edo hirugarren batek berregin ahal izango ditu, kontratistaren kontura, ezarritako exekuzio epea inola ere luzatu gabe.

69.4.- Ezkutuko akatsak. Zuzendaritza fakultatiboak edo jabetzak arrazoi sendoak baditu egindako obretan eraikuntzako akats ezkutuak daudela pentsatzeko, edozein unetan eta behin betiko harrera egin baino lehen, akastuntzat jotzen diren lanak aztertzeko beharrezkoak diren eraispenak egiteko aginduko du. Eraiste eta berreraikitze gastuak kontratistaren kontura izango dira, baldin eta benetan akatsak zeudela ikusten bada. Bestela, jabetzaren kontura izango dira.

69.5.- Garrantzi handiko hutsuneak. Obraren konponketak edo eraberritzea teknikoki ezinezkoak badira, kontratistari hutsegiteen balorazioaren zenbatekoko zigorra jarriko zaio, obrarako nahi den akabera mailarekin, zuzendaritza fakultatiboaren erabakiaren arabera eta jabetzaren adostasunarekin. Akatsak garrantzi handikoak direnean, jabetzak, zuzendaritza fakultatiboaren aholkua jaso ondoren, kontratua suntsiarazteko ahalmena izango du, kalte-galerengatik kontratistari jar dakizkiokeen zigorrei kalterik egin gabe.

69.6.- Gai teknikoak. Izaera teknikoko gai guztietarako, eraikuntza enpresak eta jabetzak proiektuetan eta dokumentu osagarrietan jasotakoa beteko dute, bai eta zuzendaritza fakultatiboaren aginduak ere.

70. klausula. Ikuskapenak eta erabilitako materialak

70.1.- Ikuskapenak eta probak. Enpresa kontratistak onartzen du behar diren baliabide guztiak jarri behar dituela zuzendaritza fakultatiboak edo horrek edo IRUNVIk izendatutako langileek obrak ikuskatu ditzaten obraren edozein fasetan. Beraz, ez du aldamio, plataforma, eskailera

edo, oro har, altuerako edo lurpeko obretara iristeko baliabiderik kenduko, eta ez ditu fabrikak edo instalazioak estaliko haien ikuskapena egin baino lehen.

Bestela, ikuskapena beharrezkotzat jotzen den xehetasunarekin egiteko baliabideak bere kargura eman beharko ditu, eta ikuskapenaren ondorioz hondatu diren elementuak edo estaldurak ere bere kontura jarri beharko ditu. Oro har, obraren zati guztiek irisgarri egon beharko dute, zuzendaritza fakultatiboak ikuskatu bitartean.

Hemen aipatutako aldea edo aldeak ados ez badaude, kontratistak bere kontura birjarri beharko ditu.

Zuzendaritza fakultatiboak zehaztuko du zein diren zaintza berezia behar duten obrak, eta baldintza hori betetzen denean baino ez dira egingo obra horiek.

IRUNVIk edo zuzendaritza fakultatiboak ikuskapenen bat egiten ez badute ere, kontratistak bere erantzukizunak eta bermea bete beharko ditu.

70.2.- Materialen kalitatea. Eraikuntza enpresak erabilitako material guztiek proiektuan ezarritako kalitatekoak izan beharko dute. Saiakuntzak kontratuari proiektuaren dokumentazioaren zati gisa erantsiko zaion kalitatea kontrolatzeko programaren arabera egin beharko dira.

Obraren zuzendaritza fakultatiboak, gainera, egokitzat jotzen dituen probak eta saiakuntzak eskatu ahal izango ditu eraikuntzaren kalitatea egiaztatzeko, eta kostua kontratak ordainduko du.

IRUNVIk edo zuzendaritza fakultatiboak egin ditzaketen ikuskapenak, probak eta saiakuntzak kontratistarekin koordinatuta egingo dira, obraren martxa orokorrean atzerapenik eta interferentziarik ez eragiteko. Dena den, halakoren bat gertatzen bada, ezingo da kalte ordainik eskatu, ez eta exekuzio epea luzatu ere.

71. klausula. Baliabide teknikoak eta giza baliabideak

Obrari atxikitako baliabide teknikoak eta giza baliabideak kontratistaren eskaintzan zehaztutakoak izango dira, gutxienez.

Horietan edozein aldaketa egiteko, IRUNVIk baimena eman beharko du. Aldaketak gorabehera, ez da onartuko eskaintzaren baldintzetan ezarritakoa baino kualifikazio, titulazio edo esperientzia txikiagoa izatea.

Eskainitako edozein elementu ordezteko, bereziki obra burua, IRUNVIk eskatutako kaudimena ziurtatu beharko da.

Aurkeztutako dokumentazioaren edukia, bai obrari atxikitako makinei, giza baliabideei eta enpresa kontratistak azpikontratatuko dituen obra zatien aurreikuspenei buruzkoa, kontratu agiriak izango dira, eta proposamenean adierazitako baldintzetan mantendu beharko dira, jabetzak horrela baloratu izango baititu.

Alde horretatik, enpresa kontratistaren betebehar saihestezina izango da obrari atxikitako makinak eta langileak etengabe obran egotea, lan baldintza egokietan. Makina eta langile horiek kontratuko obretarako baino ez dira izango, eta ezin izango dira eraman obra zuzendaritzaren idatzizko baimenik gabe. Obra zuzendaritzak ikusten badu kontratistak ez dituela betetzen bere proposamenean planteatutako baldintzak edo paragrafo honetan adierazitako betebeharrak, eta egokitzat jotzen badu baldintza horiek betetzea, idatziz jakinaraziko dio, eta epe bat emango dio antzemandako akatsak zuzentzeko. Epe hori igarotzean kontratistak ez baditu beharrezko neurriak hartu, IRUNVIk kontratua suntsiarazi ahal izango du, eta kontratistak ezingo du inolako erreklamaziorik egin.

72. klausula. Urbanizazioa

Kontrataren ardura izango da urbanizazioa obra hastean zegoen egoera berean uztea, eta beraz, bere kontura konponduko du urbanizazio horretan eragindako edozein kalte (zoladurak, bideen garbiketa, etab.), ahalik eta lasterren eta, gehienez ere, obra amaitzen den egunerako.

73. klausula. Lursail mugakideak

Obra egiten den lursailen mugakide diren lurrak erabili behar badira, jabetzak berariaz onartu beharko du, baldin eta lursail horiek IRUNVIren jabetzakoak badira. Horrek esan nahi du lur horietan ezingo direla txabolak, makinak, material pilak eta abar jarri, ezta behin-behinean ere, eta ezingo direla erabili ibilgailuak igarotzeko edo maniobrak egiteko, goian aipatutako onespenik gabe.

74. klausula. Zabortegiak

Kontratistak zabortegiak erabili behar baditu jabetzaren lurzatiaren barruan, zuzendaritza fakultatiboaren eta jabetzaren adostasunarekin egingo da, eta baimen hori emateko baldintzekin bat etorriz.

75. klausula. Instalazioak

Obrak egiteko behar diren instalazio eta elementu guztiak kontratistaren kontura izango dira, eta zuzendaritza fakultatiboaren eta jabetzaren edo haren ordezkariaren lanak egiteko behar diren instalazioak jarri beharko ditu obran eta haren kargura, behar bezala hornitutako bulego bat eta guzti.

76. klausula. Obrak jabetzak nahi bezala egitea

Enpresa kontratistak obra guztia egingo du, eta IRUNVIri behar bezala funtzionatzen duela entregatuko dio. Kontratu honen barruan sartuko dira eraikina egiteko beharrezkoak diren obra guztiak –erabat amaituta– (baita zerbitzuen behin betiko hartuneak eta lurzatien urbanizazioa ere), lehen aipatutako proiektuaren arabera. Zuzendaritza fakultatiboari dagokio epaitzea unitateak noiz dauden behar bezala gauzatuta eta kontratu honen xede diren obrak barne hartzen dituzten instalazioak ongi dabiltzala.

77. klausula. Publizitatea

Enpresa kontratistak jabetzaren onespena beharko du esleitutako obrei buruzko edozein komunikazio, iragarki eta argazkien publizitatea egin aurretik. Era berean, kontratistak betekizun bera jarriko die azpikontratistei eta hornitzaileei.

Gainera, kontratistak, azpikontratistek edo hornitzaileek ezingo dute obran publizitaterik jarri, non eta ez den IRUNVIren berariazko baimenarekin.

III.06- SEGURTASUN NEURRIAK ETA HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEAK

78. klausula. Segurtasun eta osasun plana

78.1.- Enpresa kontratistak segurtasun eta osasun plana egingo du, eta segurtasuneko koordinatzaileari aurkeztuko dio, onar dezan.

78.2.- Kontratistak egiten duen segurtasun eta osasun planean, oinarrizko azterlanean edo azterlanean jasotako aurreikuspenak aztertu, garatu eta osatuko dira, obra gauzatzeko bere sistemaren arabera. Segurtasun eta osasun plana kontratistak izendatutako teknikari gaitu batek egingo du, eta betetzen dela zainduko du. Planean sartuko dira, hala badagokio, teknikariak proposatzen dituen prebentzio neurri alternatiboak, haien justifikazio teknikoa eta guzti, inolaz ere azterlanean aurreikusitako babes mailak murriztu gabe. Era berean, obran bertan benetan zenbat denbora igaroko den adierazi beharko da planean, kontratista esleipendunaren prebentzio zerbitzuak segurtasuneko eta osasuneko zereginak bete ditzan.

78.3.- Segurtasun eta osasun azterlana aplikatuz segurtasun eta osasun planean proposatutako prebentzio neurri alternatiboen balorazio ekonomikoa ere egingo da, eta proposamen horiek ezingo dute inolaz ere azterlanean jasotakoaren guztizko zenbatekoa murriztea eragin.

78.4.- Segurtasun eta osasun plana obra hasi aurretik onartu beharko du obra gauzatzen den bitartean segurtasun eta osasun arloko koordinatzaile izango denak.

78.5.- Kontratistak segurtasun eta osasun plana aldatu ahal izango du, obra gauzatzeko prozesuaren, lanen bilakaeraren eta obrak irauten duen bitartean egon daitezkeen gorabeheren edo aldaketen arabera. Horretarako, aurreko ataleko irizpideari jarraituko zaio –segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileak onartzea–.

78.6.- Segurtasun eta osasun planaren kopia bat obran egongo da etengabe, lanean diharduten pertsonen, gai horretan erantzukizuna duten pertsonen eta organoen eta langileen ordezkarien eskura.

78.7.- Kontratistak osasuna zaintzeko zerbitzua hitzartu dela ziurtatuko du, eta, horrekin batera, obran bere zerbitzura lanean arituko diren langileek lanposturako gaitasuna dutela ere egiaztatuko du.

78.8.- Obretan lanen bat egiten duten enpresa guztiek segurtasun eta osasun arloko arduradun bat izendatu beharko dute, laneko arriskuen prebentzioko prestakuntza espezifikoa duena.

78.9.- Kontratistak eta azpikontratistek unean-unean eman beharko diote segurtasun eta osasun arloko edozein gorabeheraren berri segurtasuneko eta osasuneko koordinatzaileari.

79.10.- Benetan egiten den segurtasun lana bakarrik ordainduko da. Lan arriskuen prebentziorako aurrekontu partidak zuzendaritza fakultatiboaren zerrenda baloratuen bidez ordainduko dira, eta zerrenda horietan berariaz adieraziko da segurtasuneko eta osasuneko koordinatzailearen adostasuna, ordainketa justifikatzeko neurrien egoera barne. Era berean, osasun zerbitzuek, higiene zerbitzuek, aldagelek eta abarrek segurtasun eta osasun planean zehaztutako ezaugarriak dituztela egiaztatuko du koordinatzaileak. Baldintza horiek betetzen ez badira, zuzentzeko eskatuko die enpresei, gorabehera horren berri emango dio IRUNVIri, eta ez du horretarako partidarik ordainduko.

78.11.- Koordinazio bileretan, kontratistak eta azpikontratistek gertatutako lan istripuen, horien ikerketaren eta hartu beharreko neurri zuzentzaileen berri emango dute. Horren guztiaren berri hilero emango zaio IRUNVIri.

78.12.- Segurtasuneko eta osasuneko koordinatzaileak dagozkion zigorrak proposatuko ditu segurtasun planean aurreikusitako segurtasun neurriak ez aplikatzeagatik edo prebentzioko jarraibideak ez betetzeagatik, eta zigor horien arrazoiak azalduko ditu.

79. klausula. Enpresa jardueren koordinazioa

Kontratistak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen 24. artikuluan eta enpresa jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan aurreikusitako koordinazio neurriak bete beharko ditu. Kontratistak, azpikontratistek eta langile autonomoek lan arloko eta segurtasun eta osasun arloko lege eta kontratuzko betebehar guztiak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak helaraziko zaizkio IRUNVIri, sustatzaileak enpresa jarduerak koordinatzeko dokumentuak kudeatzeko daukan plataformaren bidez.

80. klausula. Gorabeheren liburua

80.1.- Segurtasuneko eta osasuneko koordinatzaileak emango du gorabeheren liburua.

80.2.- Segurtasun eta osasun planaren kontrol eta jarraipen helburuekin zerikusia duten pertsonek edo organoek eskuratu ahal izango dute gorabeheren liburua, eta bertan oharrak egin ahal izango dituzte, indarrean dagoen araudiaren arabera.

80.3.- Liburuan idazpen bat egin ondoren, idatziz jakinaraziko zaie IRUNVIri, kontratistari eta langileen ordezkariei.

81. klausula. Segurtasun neurriak

81.1.- Esleipenduna da laneko segurtasun baldintzen arduraduna, eta lan ikuskaritzak, gainerako erakunde eskudunek eta IRUNVIk agindutako neurriak bete behar ditu. Era berean, Lan Ikuskaritzarekin edozein gorabehera izanez gero, horren berri eman behar dio IRUNVIri.

81.2.- Enpresa kontratistak unean-unean indarrean dagoen legedian ezarritako segurtasun neurri guztiak bete behar ditu obran, eta zuzendaritza fakultatiboak arlo horretan jarritako arauak bete. Istripuak saihesteko beharrezko neurriak hartuko ditu, eta bere langileei eta enpresa kolaboratzaileetakoei betetzeko eskatuko dizkie, aldamioetan ez ezik, obrako leku arriskutsu guztietan ere.

81.3.- Aipatutakoa ez betetzeagatik, IRUNVIk zenbatekoren bat ordaindu behar badu, kontzeptu horrengatik ordaindutakoa eraikuntza enpresaren kontura izango da, bai eta sortzen zaizkion gainerako gastu guztiak ere, kontratatutako prezioetan sartuta egongo baitira legezko xedapenak behar bezala betetzeko gastu guztiak.

82. klausula. Istripuak

82.1.- Langileek istripuren bat izaten badute, kontratatu honen xede diren obrak egiten diren bitartean edo horien ondorioz, eraikuntza enpresak indarreko legedian xedatutakoari jarraituko dio, eta hura izango da legedia bete ez izatearen erantzule bakarra. Jabetzak ez du inolako erantzukizunik izango, eta eraikuntza enpresari zigorra ezartzen badiote, haren zenbatekoa eta prozesu judizialak eragindako gastu guztiak enpresaren kontura izango dira.

82.2.- Eraikuntza enpresa izango da esperientzia faltagatik, axolagabekeriagatik edo zabarkeriagatik obrak egiten diren eraikinean nahiz aldamenekoetan gertatzen diren istripu guztien erantzule bakarra.

83. klausula. Hirugarrenentzako kalte ordainak

Era berean, eraikuntza enpresaren kontura izango da kontratu honen xede den obra gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte guztien ordaina.

III.07.- ZERGA, LAN, GIZARTE SEGURANTZA ETA ASEGURUEN ARLOKO LEGEZKO XEDAPENAK BETETZEA

84. klausula. Zerga, lan, gizarte segurantza eta aseguruen arloko legezko xedapenak betetzea

Eraikuntza enpresak, kontratatutako obrak egiteko arduradun bakarra den aldetik, zergen, lanaren, gizarte segurantzaren, laneko segurtasunaren eta osasunaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dauden edo kontratua indarrean dagoen bitartean eman daitezkeen betebehar guztiak beteko ditu. Betebehar horiek betetzen ez baditu, bera izango da erantzule bakarra, eta IRUNVIk ez du inolako ardurarik izango.

Eraikuntza enpresak agintzen du emakumeen eta gizonen artean ez duela bereizketarik egingo ordainsarietan, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dauden betebeharrei eta xedapenei buruzko informazio egokia lortu ahal izango du, kontratua gauzatzen den bitartean kontratatutako lanei aplikatzeko, erakunde honetan: Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea.

85. klausula. Tributuen Lege Orokorreko 43. artikuluaren arabera emandako ziurtagiria egiaztatzea

85.1.- Esleipendunak, obrako lehen zerrenda baloratua aurkeztu aurretik, zerga arloko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri espezifiko bat aurkeztu beharko dio IRUNVIri; ziurtagiria Zerga Administrazioak egin beharko du, ondorio horietarako, obrako zerrenda baloratua aurkeztu aurreko hamabi hilabeteetan, Tributuen Lege Orokorreko 43. artikuluaren arabera. Ziurtagiri espezifiko hori berriro aurkeztu beharko da azkenekoz aurkeztu zenetik hamabi hilabete igaro ondoren. Betebehar hori betetzen ez bada, esleipendunak obrako zerrenda baloratutik egindako lanen zenbatekoaren ordainketa eten ahal izango du IRUNVIk, esleipenduna egunean jarri arte.

85.2.- IRUNVIk noiznahi eskatuta, esleipendunak egunean dagoela eta aurreko paragrafoan deskribatutako betebeharrak (indarrean daudenak edo kontratua indarrean dagoen bitartean eman daitezkeenak) benetan bete dituela justifikatu beharko du. Era berean, laneko betebeharrak betetzen dituela egiaztatu beharko du, langileen nominak ordaindu izanaren egiaztagiriak aurkeztuta. Gainera, eraikuntza enpresak zenbait partida gauzatzeko beste enpresa batzuk azpikontratatzen baditu, betebehar berberak jarriko dizkie, eta, kasu horretan ere, edozein betebeharretik edo erantzukizunetik salbu geratuko da IRUNVI.

85.3.- Administrazio Publikoaren aurrean erantzule solidarioa eta/edo subsidiarioa den aldetik, IRUNVIk ordainduko ditu esleipendunak zerga arloko, lan arloko, gizarte segurantzako eta laneko segurtasuneko eta osasuneko baldintzak ez betetzeagatik sortutako zorrak eta zehapenak, eta gero, esleipendunak IRUNVIri itzuli beharko dio horien zenbatekoa, dagozkien errekarguekin eta interesekin.

86. klausula. Lan prekarietatea

Langileei aplikatu beharreko gutxieneko hitzarmena –transnazionala barne– haien jarduerari dagokion sektorean eta obra egiten den lurralde historikoan aplikatu beharrekoa izango da, eta ordaindutako soldata ez da inola ere hura baino txikiagoa izango. Nolanahi ere, aurreko paragrafoan adierazitakoa betetzen dela bermatuko du kontratistak, eta ordainsarietan emakumeen eta gizonen arteko bereizketa egitea saihestuko du.
Kontratua gauzatzean emakumeen eta gizonen artean ordainsarietan bereizketarik ez dagoela egiaztatzeko eta horretan laguntzeko, 120.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuetan, enpresa esleipendunak agiri hauek bidali beharko dizkio urtero kontratuaren arduradunari:

- Erantzukizunpeko adierazpena, kontratua betetzeko kontratatutako pertsonen zerrenda nominalarekin, sexua bereizita eta zenbakituta, eta honako hauek adierazita: lanbide kategoria, oinarrizko soldata eta bakoitzaren osagarriak.

- Enpresa kontratistaren Langileen Altako Txostena (ITA) eta Kotizazio Datuen Txostena (IDC), gehienez ere hamabost egun lehenago egindakoak.

III.08.- AZPIKONTRATAZIOA

87. klausula. Azpikontratatzeko baldintzak

87.1.- Kontratistak hirugarrenak kontratatu ahal izango ditu obra unitate jakin batzuk egiteko, betiere SPKLko 215. artikuluan ezarritako mugarekin.

Kontratista nagusiak idatziz jakinaraziko dizkio IRUNVIri kontratu nagusia gauzatzen den bitartean azpikontratistei buruzko informazioan egon litekeen edozein aldaketa eta azpikontratista berriei buruz behar den informazio guztia.

Eskaintzan izen-abizenez adierazitakoak ez diren beste enpresari batzuekin sinatu direlako edo eskaintzan adierazitakoak ez diren beste prestazio zatiei buruzkoak direlako eskaintzan adierazitakoarekin bat ez datozen azpikontratuak ezin izango dira sinatu jakinarazpena egin eta justifikazioak aurkeztu direnetik hogei egun igaro arte, non eta aldez aurretik ez dauden berariaz baimenduta, eta, betiere, IRUNVIk epe horretan ez badu jakinarazten horien aurka dagoela. Araubide bera aplikatuko da, halaber, azpikontratistak lanbide profila deskribatuta identifikatu badira eskaintzan.

Aurreko atalean azpikontratatzeko ezarritako baldintzak hausten badira, eta azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzen ez bada, SPKLan aurreikusitako ondorioen artetik hauetakoren bat izango du, kontratuaren exekuzioan izandako eraginaren arabera, baldintza agirietan hala aurreikusi bada:

a) Enpresa kontratistari azpikontratuaren zenbatekoaren % 50erainoko zigorra jartzea.

b) Kontratua suntsiaraztea.

87.2.- Kontratistak bere gain hartzen ditu, kontratu honen arabera eta IRUNVIk baimendutako azpikontratazioei dagokienez, Eraikuntzaren Sektoreko Azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legeak horri buruz ezarritako betebeharrak. Kontratistak azpikontratazio liburu bat izan beharko du, Legeko 8. artikuluan ezarritako moduan.

87.3.- Kontratistak eta azpikontratistek langile finkoen ehuneko jakin bat izan beharko dute enpresan, haien profesionaltasuna eta jarraitutasuna bermatzeko. Ehuneko hori honela zehaztuko da: kontuan hartuta Eraikuntzaren Sektoreko Azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legea 2007ko apirilaren 19an sartu zela indarrean, gutxieneko ehunekoak honako hauek izango dira: % 10, Legearen indarraldiko lehen 18 hilabeteetan; % 20, hemeretzigarren hilabetetik hogeita hamaseigarren hilabetera; eta % 30, hogeita hamazazpigarren hilabetetik aurrera.

88. klausula. Beto eskubidea

88.1.- IRUNVIk beretzat gordetzen du kontratistak eskaintzan zerrendatutakoak ez diren azpikontratistei betoa jartzeko ahalmena, bai eta, azpikontratistekin kontratua formalizatu

ondoren, kontratistari azpikontratista jakin batzuk ordezteko eskatzeko ahalmena ere, azpikontratak lan edo prebentzio arloko betebeharrak larriki bete ez dituelako. Kontratistak gehienez ere 10 egun naturaleko epean beteko du IRUNVIk eskatutakoa, eta ez badu hala egiten, baldintza agiri honetan kontratistaren funtsezko betebeharren klausulan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

88.2.- IRUNVIk bereziki betoa jarriko die azken bi urteetan bi zehapen larri edo gehiago jarri zaizkien azpikontratei, eta beraz, ezingo dute lan egin IRUNVIren obretan.

88.3.- IRUNVIren beto eskubidea berdin-berdin aplikatu zaie nortasun juridikoa aldatuta lan erantzukizunak saihesten dituzten enpresei.

88.4.- IRUNVIk kontratuaren arduradunaren bidez gauzatuko du beto eskubidea.

89. klausula. Kontratak azpikontratistekin dituen betebeharrak

Azpikontratistek soilik kontratista nagusiaren aurrean izango dituzte obligazioak; beraz, kontratistak hartuko du bere gain kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa IRUNVIren aurrean, betiere administrazio klausula partikularren agirietan edo dokumentu deskribatzailean jasotakoa eta sinatzen den kontratuan adierazitakoa hertsiki betez, ingurumeneko, lan arloko edo arlo sozialeko betebeharrak barne.

IRUNVIren berariazko baimenarekin zuzeneko ordainketak egiteko aukera alde batera utzi gabe, azpikontratistek ez dute zuzeneko akziorik izango IRUNVIren aurrean, kontratu nagusia eta azpikontratuak betetzearen ondorioz kontratistak haiekin hartutako betebeharrengatik.

90. klausula. Azpikontratistek lan eta gizarte arloko araudia betetzea

90.1.- Eraikuntza enpresak, kontratu honen xede diren obretan lan egiten duten langileei dagokienez, unean-unean lan eta gizarte arloko legedian indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, eta partida jakin batzuk gauzatzeko azpikontratatzen dituen enpresei ere betebehar berak eskatuko dizkie.

Kontratak langileei eragiten dien laneko legedia ez betetzearen ondoriozko edozein erantzukizunetik salbu utziko du jabetza. Betebehar hori ez betetzeagatik, IRUNVIk erantzukizunen bat ordaindu behar badu, eraikuntza enpresari jasanaraziko dio kontzeptu horrengatik ordaindutakoa, bai eta sortzen zaizkion edozein motatako gastuak ere.

90.2.- Enpresa azpikontratistek arriskuen ebaluazioa egin beharko dute kontratatutako lanak egin ahal izateko, eta kontratistak, segurtasun planaren hasierako prestaketan, kontuan hartu beharko du enpresa azpikontratistek arriskuei buruz eman behar dioten informazioa.

90.3.- Kontratistak segurtasun eta osasun plana eman beharko die azpikontratistei, eta beharrezkoa bada, edukiari buruzko aholkuak emango dizkie, ulertzen laguntzeko eta sor daitekeen edozein zalantza argitzeko.

90.4.- Kontratistak, enpresa azpikontratatuak hala eskatuta, segurtasun eta osasun plana aldatu ahal izango du, betiere egikaritze faseko segurtasun eta osasun koordinatzailearen onespenarekin.

90.5.- Azpikontratistek, bereziki instalatzaileek, beren arriskuen ebaluazio eta prebentzio plangintza aurkeztu beharko dituzte. Hori egikaritze faseko segurtasun eta osasun koordinatzaileak onartu beharko du, eta obraren Segurtasun Planean txertatu.

90.6.- Azpikontratistek segurtasuneko eta osasuneko arduradun bat izendatu beharko dute, gutxienez, eta obran egon beharko du etengabe.

90.7.- Azpikontratistek prebentzio zerbitzu propioa edo mankomunatua izan beharko dute, horretarako zenbait langile izendatuta edo kanpoko prebentzio zerbitzu bat itunduta, dagozkion prebentzio jarduerak egiteko.

90.8.- Enpresa azpikontratatu bakoitzak osasuna zaintzeko zerbitzua hitzartu duela ziurtatuko du, eta, horrekin batera, obran bere zerbitzura lanean arituko diren langileek lanposturako gaitasuna dutela ere egiaztatuko du.

90.9.- Kontratistak eta enpresa azpikontratatuek edozein azpikontratazio kontraturen berri eman beharko diete langileen legezko ordezkariei, eta honako hauek jakinarazi: sozietate izenak, kontrataren xedea eta iraupena, langileen izenak, eta arriskuen prebentzioaren eta lan baldintzen arloko koordinazio neurriak.

91. klausula. Azpikontratazioko bermeak

Kontratistak bere azpikontratistekin sinatutako kontratuetan, nahitaez jarri beharko da klausula bat, non kontratistak eta azpikontratistak, batera eta modu solidarioan, egin beharreko instalazioaren kalitatearen ardura hartuko duten beren gain, eta 12 hilabeteko berme epea emango dute, obrak erabat amaitzen direnetik zenbatzen hasita.

92. klausula. Azpikontratazioaren mugak

Enpresa kontratistak hirugarrenekin itundu ahal izango du prestazioaren zati bat, baldintza agirietan xedatutakoaren arabera.
Ondoz ondoko edo kateko azpikontratazioari dagokionez, Eraikuntzaren Sektoreko Azpikontratazioa arautzen duen 32/2006 Legearen 5.2 artikuluan ezarritako mugak errespetatuko dira.

93. klausula. Eskubideak eta betebeharrak lagatzea

Kontratistak ezin izango dizkio beste pertsona edo erakunde bati laga edo eskualdatu obrak esleitzean eta kontratua sinatzean jasotako eskubideak eta betebeharrak, non eta ez den jabetzaren baimenarekin. Eraikuntza enpresak zazpi egunez baino gehiago obrak justifikaziorik gabe gelditzen baditu edo bertatik joaten bada, edozein arrazoirengatik, klausula hau bete ez duela joko da, kontratua automatikoki suntsiaraziko da, eta dagokion zigorra jarriko zaio.

III.09.- OBRA HARRERA

94. klausula. Obra harrera egin aurreko jarduketak

94.1.- Hogei eguneko aurrerapenarekin, kontratistak idatziz jakinaraziko die IRUNVIri eta zuzendaritza fakultatiboari sinatutako kontratuan oinarrituta zer egunetan amaituko den obra, hura egiaztatzeko eguna eta ordua finkatu ahal izateko.

94.2.- Epe horretan, zuzendaritza fakultatiboak eta IRUNVIren ordezkari batek obrak zehatz-mehatz berrikusiko dituzte kontratistarekin batera, eta hala badagokio, zuzendu beharreko akatsen, osatu beharreko unitateen eta gainditu ez diren proben zerrenda egingo dute, eta zuzentzeko epe bat finkatu.

Epe hori amaitzean, zuzendaritza fakultatiboak eta IRUNVIk, kontratistaren aurrean, zehatz-mehatz aztertuko dute obren egoera, eta egiaztatuko dute obrek arau teknikoak eta kontratuko klausulak betetzen dituzten, bai eta aurretik elkarrekin egindako ikuskapenean antzemandako akatsak zuzendu diren ere.

Aipatutako zuzenketak ez badira egin –emandako epearen barruan–, IRUNVIk hirugarren bati agindu ahal izango dio zuzenketa horiek egitea, kontratistari egindako prezioaren atxikipenaren kontura.

94.3.- Zuzendaritza fakultatiboak egiaztatzen badu obra unitate guztiak amaituta daudela eta zehaztutako proba guztiak behar bezala egin direla eta hautemandako akatsak zuzendu direla, obra amaierako ziurtagiria egingo du.

Obra amaierako ziurtagiria egin ondoren, IRUNVIk sustapeneko elementu guztiak berrikusiko ditu (zuzenean edo saldu ondorengo zerbitzua ematen duen enpresaren bidez). Berrikuspen horren ondoren, zuzendu beharreko gorabeheren zerrenda bidaliko da posta elektronikoz. Gorabehera horiek obra harrera egin aurretik konpondu beharko dira, eta kontratistak aldian-aldian jakinarazi beharko du konponketak zer egoeratan dauden.

94.4.- Obra amaierako ziurtagiria egin eta bisatu ondoren, esleipendunak idatziz eskatu beharko dio IRUNVIri, ziurtagiria jaso denetik hurrengo 30 egunen barruan, zer egunetan egingo den obra harrera; gehienez ere, harrera eskaera jakinarazi eta laurogeita hamar (90) eguneko epean egin beharko da harrera, hain justu. Obra harreraren idatzizko eskaerarekin batera, enpresa kontratistak azalpen eta justifikazio memoria bat aurkeztu beharko du. Bertan, berariaz adieraziko du lanak egitean esleipen irizpide gisa onartutako betebeharrak eta baldintzak eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko baldintza sozialak bete dituela.

94.5.- Obra amaierako ziurtagiria lortu ondoren, erakunde ofizial eskudunek ikuskapen teknikoa egingo dute babes ofizialeko etxebizitzen behin betiko kalifikazio zedula eta eraikinaren lehen erabilerako lizentzia emateko. Ikuskapen horiek zer egunetan egin diren ikusita, IRUNVIk kontratistari eta zuzendaritza fakultatiboari jakinaraziko die obra harrera zer egunetan eta ordutan egingo den.

94.6.- Harreraren eskaria egin eta 90 eguneko epean obra harrera ez bada berariaz egin, IRUNVIk harrera isilbidez egin duela joko da.

95. klausula. Obren garbiketa

95.1.- Lanen azken fasean, obrak behar bezala garbitu beharko dira, IRUNVIk izendatutako arduradunek etxebizitzak behar bezala berrikusi ahal izateko.

95.2.- Eraikuntza enpresak eraikina (etxebizitzak, trastelekuak, garajeak eta elementu komunak) gutxienez bi aldiz garbitu beharko du bezeroei eskriturak egin aurretik, honako une eta era hauetan:

a.- IRUNVIk izendatutako langileek eraikina berrikusteko fasean, berrikuspen lanak behar bezala egin ahal izateko: hautsa, mortero hondarrak, obrako materialaren hondarrak, pintura hondarrak eta bernizak garbitu, bistan nahiz ezkutuan (harrasken azpian, etxetresna elektrikoak jartzeko zuloetan, etab.) dauden eremuetan.

b.- IRUNVIk izendatutako teknikariek eskatutako konponketak egin ondoren eta etxebizitzen eskriturak egin aurretik: hautsa, mortero hondarrak, obrako materialaren hondarrak, pintura hondarrak eta bernizak garbitu, bistan nahiz ezkutuan (harrasken azpian, etxetresna elektrikoak jartzeko zuloetan, etab.) dauden eremuetan, baina bereziki bistan dauden eremuetan, eraikina osatzen duten bistako elementu guztien gainazala nabarmentzeko moduan.

95.3.- Sustapeneko (etxebizitzak, trastelekuak, garajeak eta elementu komunak) elementu hauek utzi behar dira aipatutako garbitasun egoeran:

- Azulejuak
- Zeramikazko, arroka naturalezko, hormigoizko eta bestelako zolak
- Zurezko zoladurak eta/edo sintetikoak
- Barruko zurezko arotzeria eta kanpoko zurezko edo aluminiozko arotzeria
- Komunak eta txorrotak
- Sukaldeak eta etxetresna elektrikoak
- Paramentu bertikalak eta horizontalak, kanpokoak zein barrukoak, edozein akabera dutela ere
- Beirak
- Sarrailak
- Terrazak eta kanpoko eremuak
- Etab.

95.4.- Garbiketak egitean, ez da erabiliko emateko unean nahiz elementuen balio bizitzan haien gainazalak hondatzen dituzten produktuak edo tresnak.

96. klausula. Obren harrera

96.6.- Harrera akta hiru aletan egingo da, eta kontratak, sustatzaileak eta obra zuzendaritzak sinatuko dute. Aktan honako hauek jasoko dira:

a) Esku hartzen duten aldeak.
b) Obra amaieraren ziurtapenaren data.
c) Obraren exekuzio materialaren kostua.
d) Obraren harrera egin izanaren adierazpena, oharrekin edo oharrik gabe, eta, hala badagokio, hautemandako akatsak zuzentzeko epea.
e) Hala badagokio, eraikuntza enpresari bere erantzukizunak ziurtatzeko eskatzen zaizkion bermeak.

Harrera aktari obra amaierako ziurtagiriaren kopia erantsiko zaio, bai eta hautemandako akatsen edukia jasotzen duen aktarena ere, akatsik izanez gero.

96.2.- Obrak egoera onean ez badaude, akatsak ikusten badira edo kontratuaren baldintzen arabera egin ez badira, harrera aktan jasoko da obrak oharrekin jaso direla; gero, horiek modu objektiboan zehaztuko dira, eta esleipendunari epe bat ezarriko zaio akatsak zuzentzeko. Epe horrek ez du esleipenduna salbuetsiko kontratuaren epeak betetzearen ondorioz dagozkion betebeharretatik. Hautemandako akatsak zuzendu ondoren, aparteko akta batean jasoko da, eta harreraren sinatzaileek sinatu beharko dute.

96.3.- Esleipendunari hautemandako eta onartutako akatsak zuzentzeko ezarritako epea igarota, obrak ez badatoz bat kontratuaren baldintzekin, IRUNVIk behin betiko luzapen bakarra eman ahal izango du, obrak egiteko. Epe hori igarotakoan, egoki deritzon moduan zuzenduko ditu obrak, esleipendunaren kontura eta arriskura, eta likidaziotik kenduko zaio zuzenketaren kostua, gainerako kopurua eskatzeko aukera ezertan eragotzi gabe, baldin eta, likidazioan ordaintzeke dagoen zenbatekoa nahikoa ez bada. Kostu hori atxikipenetatik eta/edo bermeetatik kendu ahal izango da.

96.4.- Halaber, IRUNVIk obraren harrerari uko egin diezaioke, obra amaituta ez dagoela edo kontratuaren baldintzetara egokitzen ez dela kontsideratzen duelako. Nolanahi ere, uko egitea idatziz arrazoituko da aktan, eta bertan beste epe bat ezarriko da harrera egiteko, eta horren beste akta bat egingo da.

96.5.- Kontratista, zitazioa jaso arren, obren harrera aktara joaten ez bada, zuzendaritza fakultatiboak egindako eta IRUNVIk osatutako aldebakarreko aktak izango dituen ondorioak kontratistak sinatu izan balu bezalakoak izango dira. Modu berean jardungo da obra amaierako ziurtagiria egin ondoren kontratistak obren harrera eskatzeari uko egiten badio.

96.6.- Esleipendunak atzerapen horrek harrera aktan eragiten dituen kalteen gaineko erantzukizuna izango du, bereziki aseguru entitateari aurkezteko, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legeak eskatutako bermeen epeak zenbatzeari begira.

96.7.- Kontratistak beharrezkotzat jotzen badu alderdi tekniko edo ekonomikoren batean ados ez dagoela adieraztea, hala jasoko du aktan bertan, eta bertan adieraziko ditu desadostasun hori eragin duten arrazoiak ere, eta, ondoren, sinatu egingo du.

Aldeen arteko desadostasunak ez du inola ere eragingo kontratistak obra atxikitzea. Kontratistak bere eskubideak betetzeko eskatu ahal izango du eskura duen beste edozein bitarteko edo prozedura juridikoren bidez.

98.8.- Obren harrera egitean, egindako obraren % 100 fakturatuko da, dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne hartuta, berme osagarrien kontzeptuko atxikipenak itzuli gabe geratu daitezkeen arren. Kasu horretan, kontratistak berme osagarriari dagokion BEZaren zenbatekoa aurreratuko du.

97. klausula. Instalazioak martxan jartzea

97.1.- Obren harrera egin aurretik, ekipoen eta instalazioen funtzionamendua egiaztatuko da, baita horiek martxan jarrita ere, IRUNVIren ordezkari teknikoak eta instalazioa egin duen kontrata eta/edo azpikontrata bertan direla. Martxan jartze horren akta egin, eta parte hartzaileek sinatuko dute. Akta horretan zerbitzuan jarri izana eta hautemandako gorabeherak jasoko dira.

97.2.- Enpresa kontratistak beharrezko baliabideak jarri beharko ditu, instalazioak martxan eta funtzionamenduan jartzeko proba horiek higiezinaren etorkizuneko bizitza erabilgarriaren antzeko baldintzetan egin daitezen.

97.3.- Lehenengo paragrafoan aipatutako aktaren eranskin gisa, enpresa kontratista orokorraren kontura, instalazio bakoitzaren etorkizuneko mantentze eta konponketa lanak egin ditzaketen merkatuko enpresen zerrenda jasoko da, eta nahitaezkoa izango da enpresa horiek lan horiek egiteko behar bezala homologatuta egotea. Etorkizuneko jabeek mantentze eta konponketa zerbitzuak libreki kontratatu ahal izango dituzte zerrenda horretako edozein enpresarekin edo hirugarren batekin.

98. klausula. Obren likidazioa

98.1.- Obren likidazioa obren harrerarekin batera egin beharko da.

98.2.- Saldoa kontratistaren aldekoa bada, gehienez ere hilabeteko epean ordainduko da, likidazio aktatik zenbatzen hasita, obrako zerrenda baloratuekin egiten den moduan.

98.3.- Obrak likidatzeko unean, egindako obraren % 100 fakturatuko da, nahiz eta atxikipenak itzuli gabe gera daitezkeen berme osagarrien kontzeptuan.

99. klausula. Obren harrera, kontratua suntsiaraziz gero

99.1.- Kontratua suntsiarazten bada, jabeak edo kontratistak hala eskatuta, kontratistak ordura arte egin edo eraiki dituen obren harrera egingo da, eta jabeak lan horien gainean izan dezakeen adostasuna edo eragozpenak jasoko dira.

Harrera horren akta egingo da, suntsiarazpenaren unean obra zer egoeratan zegoen adierazita, gehienez ere 15 eguneko epean, suntsiarazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Beraz, kontratistak epe horretan entregatu beharko ditu obrak, inolako aitzakiarik gabe, eta une

horretatik aurrera baimena emango zaio jabeari beharrezkoak diren xedapenak har ditzan; era berean, jabeak obra libre uzteko eta kontratista berriari sartzen uzteko baimena izango du.

99.2.- Kontratistak beharrezkotzat jotzen badu alderdi tekniko edo ekonomikoren batean ados ez dagoela adieraztea, hala jasoko du aktan bertan, eta bertan adieraziko ditu desadostasun hori eragin duten arrazoiak ere, eta, ondoren, sinatu egingo du. Aldeen arteko desadostasunak ez du inola ere eragingo kontratistak obra atxikitzea. Kontratistak bere eskubideak betetzeko eskatu ahal izango du eskura duen beste edozein bitarteko edo prozedura juridikoren bidez.

99.3.- Suntsiarazpenak baimena emango dio jabeari obrekin jarraitzeko, eta kontratistak jabearen esku jarri beharko ditu. Hala, jabeak obrak erabat amaitu arte erabili ahal izango ditu kontratistak obran jarritako baliabide lagungarriak, eta ezarrita dauden baldintza ekonomikoak mantenduko ditu.

99.4.- Amaitu gabeko obraren bat alferrikakoa izateaz gain, hirugarren pertsonentzat edo obra berarentzat kaltegarria edo arriskutsua bada, kontratistak obra horiek kontratuaren baldintzetan amaitu beharko ditu. Uko eginez gero, arrisku edo kalte hori ezabatzeko beharrezkotzat jotzen dituen lanak egingo ditu jabeak, eta horien balioa kontratistak egindako obren likidaziotik kenduko du.

100. klausula. Obren likidazioa, kontratua suntsiaraziz gero

100.1.- Obren harrerako akta formalizatzen den aldi berean, enpresa kontratistaren behin betiko likidazio akta egingo da, eta bertan berariaz adieraziko da kontratistak, likidatutako obra dela-eta, hirugarrenekin hartutako konpromiso guztiak ordaindu dituela edo ordaintzeko betebeharra duela.

100.2.- Horretarako, aldeek akta sinatuko dute beren ordezkarien bidez, eta kontratistaren ordezkaria ez bada agertzen, aldez aurretik behar bezala zitatuta egonda ere, notarioak esku hartuko du. Jarraian, zuzendaritza fakultatiboak egindako obra neurtu eta likidatuko du.

100.3.- Likidazioan, egindako eta ordaindu gabeko obren neurketa bakarrik hartuko da kontuan, kontratistaren eskaintzaren prezio unitarioen eta bereizien zerrendan jasotako prezioetan baloratuta, eta kontratistak pilatutako edo biltegian jasotako materialak kobratzeko eskubiderik ez da egongo, ez eta eraikuntza ekipoa edo aldi baterako instalazioak jartzeko edo kentzeko kostuak kobratzeko eskubidea ere.

Ateratzen den saldoa kontratistari jakinarazi eta eskainiko zaio, aldez aurretik kontratistaren kontura dagozkion kenkariak egin ondoren eta kontratu honen arabera bermeari lotuta egin beharreko atxikipenak ezertan eragotzi gabe, eta hark uko egiten badio, notariotza edo epaiketa bidez kontsignatuko da.

Une horretatik aurrera, jabeak jarraipena hirugarren batekin kontratatzeko askatasuna izango du. Hori guztia, obrak zein egoeratan geratu diren kontuan hartuta, Jabeak obrari edo hirugarrenei kalte handiagoak saihesteko egin ditzakeen premiazko neurriak edo jarduerak albo batera utzi gabe.

100.4.- Kalte-galeren ordaina Enpresa eraikitzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua hutsaltzen bada, ordura arte egindako obren zenbatekoa ordainduko zaio enpresari,

eta obren % 20 kenduko zaio kalte-galeren ordain gisa. Halaber, hutsaltze horrekin batera fidantza galduko du, berme funts gisa.

100.5.- Kontratistaren ez-betetzeak kontratua suntsiaraztea eragiten badu, kontratistari zor zaizkion kopuruak, behin betiko fidantzarekin batera, sortutako kalte-galerak ordaintzeko erabiliko dira, kalte horiek justifikatzen diren neurrian.

100.6.- Kontratua hutsaltzeko arrazoia edozein dela ere, likidazio gastuak kontratistaren kontura izango dira.

101. klausula. Obraren jabetza eta erabilera

Obrak hasten diren unetik aurrera, IRUNVIk finka erabiltzeko baimena ematen dio eraikuntza enpresari, kontratatutako obrak egin ditzan, baina sustatzaileak finkaren jabea izaten jarraituko du, nahiz eta haren zaintza eta erabilera eraikitzailearena izango den obra egin bitartean. Obra amaitzen edo kontratua suntsiarazten ez den bitartean, eraikuntza enpresa jabetzaren zerbitzari gisa eratzen da.

Sustatzaileak finka erabiltzen eta obra egiten utzi behar dio erakuntza enpresari, obra amaitu arte edo kontratua suntsiarazi arte Eraikuntza enpresak finkaren erabilera itzuliko du lanak amaitzean, edo, kontratua suntsiarazten bada, aldeetako edozeinek besteari kontratua suntsiarazteko erabakia jakinarazten dion unean.

Aldeen arteko desadostasunak ez du inola ere eragingo eraikuntza enpresak obra atxikitzea. Eraikuntza enpresak bere eskubideak betetzeko eskatu ahal izango du eskura duen beste edozein bitarteko edo prozedura juridikoren bidez.

102. klausula. Obrara sartzea

Eraikuntza enpresak sustatzaileari obretara sartzen utziko dio, eta sustatzaileak ezingo ditu oztopatuko lehenengoaren jarduerak.

Eraikuntza enpresak obran sartzeko aukera emango die Kontrol eta Kalitate Bulego Teknikoko langileei eta lankidetzan arituko da haiekin, bulego horrek bere eginkizunak bete ditzan. Era berean, IRUNVIk dibulgazio edo prestakuntza xedez baimentzen dituen kanpoko langileek obran sartzeko aukera izango dute, eta gehienez 5 bisita egingo dituzte.

III.10.- KONTRATUA ALDATZEA, SUNTSIARAZPEN ETA KALTE ORDAINEN KASUETAN

103. klausula. Kontratua, azterlanak, zerbitzuak edo lan osagarriak aldatzea

103.1- Behin kontratua burututa, IRUNVIk aldaketak egin ahal izango ditu kontratua osatzen duten elementuetan, baldin eta premia berriek edo behar bezala justifikatutako ustekabeko arrazoiek eragindakoak badira, eta aplikatu beharreko araudiak eskatutako mugak eta prozedura betez.
Esleipendunak bere gain hartu beharko ditu IRUNVIk egokitzat jotzen dituen aldaketak, horiek ezarritako unitate prezioetara egokituta edo, halakorik ezean, prezio berriak adostuta, baldin

eta aldaketek kontratuaren hasierako prezioa % 20 baino gehiago aldatzen ez badute, gorantz edo beherantz, eta SPKLaren 204. artikuluan ezarritakoarekin bat badatoz; baldintza horiek bete ezean, kontratua suntsiaraztea eskatu ahal izango da.

103.2.- Kontratuaren aldaketak onartuko dira, baldin eta aldaketa horien jatorria honako arrazoi hauetakoren bat bada:

1. Eremu edo gune batean, azterlan geoteknikoan aurreikusita ez dauden arroka geruzak, kareharri trinkoak, buztinak, lurzoru kutsatuak (kudeaketa espezifikoa behar dutenak), labainketak, asentamenduak, lurpeko ibaiak, lurpeko metakinak eta abar agertu izatea.
2. Udal zerbitzu teknikoek eta konpainia hornitzaileek emandako datuetan oinarrituta proiektuan jaso gabe utzitako hiri zerbitzuak agertu izatea (saneamendua, hornidura, elektrizitate banaketa, gasa, etab.).
3. Obren inguruko jabetzei edo komunitateei kalterik ez eragiteko lanak eta/edo jarduketak egin behar izatea, lanen ondorioz (obrarako edo kaltetuentzat aurreikusi gabeko behin-behineko sarbideak egitea, lan jakin batzuen ordutegiak mugatzea, etab.).
4. Obren inguruko jabetzei edo komunitateei kalterik ez eragiteko lanak eta/edo jarduketak egin behar izatea, sustapenean hasieratik parte hartzen duen eragileren batek –IRUNVI ez dena– horiekin hartutako erabakien edo konpromisoen ondorioz (proiektua onartzean horren berri eman ez bazen).
5. Proiektuan egindako aldaketengatik zenbait lan eta/edo jarduketa egin behar izatea, sustapenean hasieratik parte hartzen duen eragileren batek –IRUNVI ez dena– horiekin hartutako erabakien edo konpromisoen ondorioz (proiektua onartzean horren berri eman ez bazen).
6. Proposatutako zimendu sistemen arteko korrelazioa aldatzea, lursailean azterlan geoteknikoko aurreikuspenekin guztiz bat ez datozen geruzak agertu direlako, edo zimendu sistema eta/edo lurrari eusteko sistema definitzeko oinarri izan zen lurzatiaren aldez aurreko egoera partzialki edo osorik aldatu delako (betelanak egitea edo hustea, ezpondak aldatzea, lursailaren egoeraren lerrokadurak aldatzea, etab.).
7. Eraikinaren estankotasun soluzioak aztertzeko oinarri izan den azterlan geoteknikoan aurreikusitakoez bestelako sestra azpiko kotetan ura agertu delako lanak egin behar izatea, hala nola, azpipresioko lauzak, bufa ganberak, iragazgaizte lanak, ura biltzea eta ponpatzea, etab.
8. Lehendik dauden azpiegiturei (kostaldea, trenbideak, errepideak, ibai arroak, sare elektrikoa…) aurreikusi gabeko eran eragin izateagatik lan konplexuagoak egin behar izatea.
9. Egikaritze proiektuan nahitaez bete beharreko arau aldaketak egotea, baldin eta eguneratze horiek obrak amaitu (aurreikuspenen arabera) eta hurrengo hamabi hilabeteen barruan jarriko badira indarrean.
10. Egikaritze proiektuan nahitaez bete beharreko arau aldaketak egotea, baldin eta, arestian aipatutakoa bete ez arren, sustatzaileak uste badu etorkizuneko erabiltzaile-jabeentzat ona izango dela araudi berrian jasotako aldaketak egitea.

11. Estamentu publikoek proposatutako aldaketak inplementatzea, behin betiko baimenak eman aurretik (behin betiko kalifikazioa, lehen erabilerako lizentzia, etab.). Proposatutako aldaketa horiek hasieran onartutako proiektuak aldatu beharko dituzte (behin-behineko kalifikazioa, obra lizentzia, etab.).

12. Zerbitzuen banatzaileek (elektrizitatea, ura, telekomunikazioak, gasa, etab.) edo sozietate kudeatzaileek (ur hornidura, saneamendua, etab.) Udalaren obra lizentzia lortu ondoren eskatutako aldaketak ezartzea.

13. Zortasunak ezartzeko lanen kostua, helburua edozein dela ere (ikuspegiak, igarobideak, etab.), eta zortasunpeko onibarra nahiz onibar nagusia dela ere.

Inguruabarrak objektiboki egiaztatzeko metodoa: obraren zuzendaritza fakultatiboaren justifikazio memoria eta IRUNVIren txosten teknikoa.

Irismena eta mugak: aldaketa beharrezkoa egiten duten arrazoi objektiboei erantzuteko ezinbestekoak diren aldaketak sartzea, lizitazioaren eta kontratuaren esleipenaren funtsezko baldintzak aldatu gabe.

103.3.- Honako hauek ez dira aldaketatzat hartuko:

i. Gehiegizko neurketak, hau da, obra behar bezala egin bitartean benetan gauzatutako unitate kopuruan bakarrik egindako aldaketak, betiere hasierako kontratuaren prezio orokorra % 10etik gora handitzea eragiten ez badute.

   Gehiegizko neurketa horiek obraren amaierako ziurtagirian jasoko dira.

ii. SPKLan eta hura garatzeko arauetan ezarritako prozedurek modu kontraesankorrean finkatutako prezio berriak sartzea, baldin eta kontratuaren prezio osoa ez badute handitzen, eta ez badiete eragiten kontratuaren jatorrizko aurrekontuaren % 3tik gorako obra unitateei.

Proiektuan edo kontratuan agertzen ez diren baina aurreikusi gabeko inguruabarren ondorioz nahitaez gauzatu behar diren azterlan, zerbitzu edo lan osagarriak egin behar direnean, kontratista esleipendunari agindu ahal izango zaizkio hasierako kontratuko prezioekin edo, hala badagokio, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako baldintzekin kontraesanean finkatuta daudenekin.

104. klausula. Suntsiarazteko arrazoiak

104.1.- Kontratua suntsiarazteko kausa izango dira honako hauek:

a) Kontratistaren heriotza edo ezgaitasuna, edo eraikuntza enpresak nortasun juridikoa galtzea.

b) Konkurtsoa deklaratzea edo beste edozein prozeduratan kaudimenik eza adieraztea.

c) Jabetzak eta kontratistak hala adostea.

d) Kontratista epeak betetzen berandutzea. Obra planarekin alderatuta justifikaziorik gabe atzeratzea, kontratuaren hasierako iraupenaren herena baino gehiago, balizko luzapenak barne.

e) IRUNVIk ordainketa 6 hilabetetik gora atzeratzea.

f) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

g) IRUNVIk atzera egitea.

h) Kontratistak bermea epe barruan ez ematea edo birjartzea, kontratua epe barruan ez formalizatzea, edo kontratistak zuinketa eta dagokion akta egiteari uko egitea.

i) Kontratistak kontratuaren xede diren obrak bertan behera uztea edo etetea, justifikatu gabe, zazpi egunetik gorako epean.

j) Kontratistak obran ez edukitzea obrak gauzatzeko behar beste langile edo bitarteko osagarri.

k) Kontratuan edo agiri honetan jasotako klausulak ez betetzea; bereziki, kontratuan kontratistari ezarritako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

l) Zuzendaritza fakultatiboari edo haren ordezkaritzari men ez egitea edo hark agindutakoa ez betetzea.

m) Kontratistak edo bere azpikontratistek segurtasun eta osasun arloko edo lan arloko arau hauste larriak edo oso larriak egitea.

n) Kontratua aldatzea, baldin eta egindako aldaketek kontratuaren esleipen prezioa % 20 edo gehiago handitzea edo txikitzea eragiten badute; ondoz ondoko aldaketen kasuan, aldaketa guztien artean ezingo da muga hori gainditu.

104.2.- Kontratua suntsiarazteko baldintzak eta ondorioak.

Kasu horietan, kontratuaren suntsiarazpena SPKLko 212. eta 213. artikuluen arabera egingo da, prozedurari eta ondorioei dagokienez.

105. klausula. IRUNVIk atzera egitea

105.1.- IRUNVIk kontratua atzera egite hutsagatik suntsiarazten badu, obrak hasi baino lehen, kontratistak kalte ordaina jasotzeko eskubidea izango du eragindako kalteengatik, kontzeptu guztietan, aldez aurretik justifikatuta; kalte ordaina kontrata bidez esleitutako egikaritze aurrekontuaren ehuneko hirura (% 3) artekoa izango da, BEZ gabe.

105.2.- Era berean, IRUNVIk kontratuan atzera egin ahal izango du obrak hasi ondoren. Kasu horretan ere, kontratistak kalte ordaina jasotzeko eskubidea izango du eragindako kalteengatik, kontzeptu guztietan, industria onura gisa; kalte ordaina egin gabe utzitako obren prezioaren ehuneko seikoa (% 6) izango da, BEZ gabe. Egin gabe utzitako obrak zein diren jakiteko, hasierako kontratuan eta haren aldaketetan jasotako obren eta atzera egitearen jakinarazpena egindako egunera arte gauzatu direnen arteko alderaketa egin beharko da.

106. klausula. Kontratistak kontratua suntsiaraztea

106.1.- Enpresa kontratistak kontratua suntsiarazi ahal izango du honako arrazoi hauengatik:

a) Elkarren segidako hileroko bi zerrenda baloratu ez ordaintzea, justifikaziorik gabe
b) IRUNVIri egotz dakiokeen zuinketa egiaztapenaren berandutzea.
c) Obren hasiera lau hilabetetik gora atzeratzea.
d) Hasitako obrak zortzi hilabetez baino gehiagoz etetea.

106.2.- IRUNVIri egotz dakiokeen zuinketa egiaztapenaren berandutzea. Kontratistak kontratua suntsiarazi ahal izango du, baldin eta zuinketaren egiaztapena atzeratzen bada IRUNVIri egotz dakizkiokeen arrazoiengatik; horretarako, aldez aurretik IRUNVIri zuinketa egiteko eskaera egin beharko dio. Eskaera egin denetik hilabete igaro eta zuinketa sinatu ez bada, kontratistak kontratua suntsiarazi ahal izango du, IRUNVIri modu frogagarrian jakinarazita.

Kasu horretan, kontratistak esleipenaren prezioaren % 2ko kalte ordaina jasotzeko eskubidea baino ez du izango, BEZ gabe.

106.3.- Obren hasiera lau hilabetetik gora atzeratzea. Enpresa kontratistak kontratua suntsiarazi ahal izango du, IRUNVIk obren hasiera etetea erabakitzen badu, obren zuinketa egin ondoren. Kontratuaren suntsiarazpena egin ahal izateko, kontratistak aldez aurretik IRUNVIri eskatu beharko dio obrak hasteko. Eskaera egin denetik hilabete igaro ondoren obrak hasi ez badira, kontratistak kontratua suntsiarazi ahal izango du, IRUNVIri modu frogagarrian jakinarazita.

Kasu horretan, kontratistak esleipenaren prezioaren % 3ko kalte ordaina jasotzeko eskubidea baino ez du izango, BEZ gabe.

106.4.- Hasitako obrak zortzi hilabetez baino gehiagoz etetea. Enpresa kontratistak kontratua suntsiarazi ahal izango du, IRUNVIk hasitako obrak 8 hilabetez baino gehiagoz eteten baditu.

Kontratuaren suntsiarazpena egin ahal izateko, kontratistak aldez aurretik IRUNVIri eskatu beharko dio obrak hasteko.

Eskaera egin denetik hilabete igaro ondoren obrak hasi ez badira, kontratistak kontratua suntsiarazi ahal izango du, IRUNVIri modu frogagarrian jakinarazita.

Kasu horretan, egin ez diren obren prezioaren % 6ren baliokidea den kalte ordaina jasotzeko eskubidea izango du kontratistak, industria onura gisa (BEZ kanpo). Egin gabeko obratzat hartuko dira honako hauek: hasierako kontratuan eta onetsitako aldaketetan jasotako obren eta etena jakinarazi arte egindako obren arteko diferentzia.

106.5.- Segurtasun arrazoiengatik edo eraikitakoa honda ez dadin, beste enpresaburu batek, premiaz, obrak jarraitu behar baditu, kontratazio organoak, kontratistari egindako obren likidazioa jakinarazi ondoren, obrak egiten jarraitzea erabaki ahal izango du, kontratistak IRUNVIk egindako balorazioari dagokionez izan dezakeen desadostasuna ezertan eragotzi gabe.

106.6.- Kontratistak artikulu honetan aurreikusitako kasuetan kontratua suntsiarazteko eskubidea baliatzen ez badu, eragin zaizkion kalte-galerak IRUNVIren aurrean egiaztatu beharko ditu, modu frogagarrian eta zalantzarik gabe. Nolanahi ere, dagokion kalte ordaina

ezingo da izan aurreko puntuetan zehaztutakoaren arabera kontratua suntsiaraztea aukeratu izan balu legokiokeena baino handiagoa.

106.7.- Aurreko puntuetan ezarrita dagoen moduan, kontratistaren eskaeraz kontratua suntsiarazteko artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen ez diren kasuetan, kontratistari eragindako kalte-galerak ere modu berean egiaztatu beharko dira, eta aurreko puntuan ezarritako kalte ordainerako muga berbera aplikatu beharko da.

I ERANSKINA: PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN ETA FORMULAK APLIKATUTA AUTOMATIKOKI EBALUATZEN DIREN IRIZPIDEEN EREDUA

_____ jaun/andreak (helbidea:_____; NANa:_____), bere izenean edo _____ enpresaren izenean (helbidea:_____ kalea, PK:_____, telefonoa:_____ eta IFZ:_____, honako hau

ADIERAZTEN DU

I.- «IRUNGO 6.3.01 ALARDE EREMUKO C PARTZELAN 10 BOE ETA HORIEN ERANSKINAK ERAIKITZEKO EXEKUZIO-PROIEKTUA»n aurreikusitako obren exekuzioa xedetzat duen kontratua esleitzeko lizitazio-iragarkiaren berri izan du, Irungo 6.3.01 Alarde eremuan kokatutako C partzelan 10 BOE eta horien eranskinak eraikitzeko. Proiektua ARRUABARRENA GREEN HUTE enpresak idatzi du PASSIVHAUS estandarren arabera.

II.- Proiektuak eta horien edukia, baldintzen agiria eta kontratua arautzen duten gainerako agiri guztiak ezagutzen ditu, eta espresuki bere gain hartzen eta onartzen ditu, inolako salbuespenik gabe.

III.- Ordezkatzen duen enpresak bete egiten ditu indarrean dagoen araudiak haren irekitze, instalazio eta funtzionamendurako eskatzen dituen baldintza eta betebehar guztiak.

IV.- Eskaintza honen obrari dagokionez, hura egitearen truke jarraian adierazten diren zifrak proposatzen ditu, ulertuta horietan sartuta daudela kontzeptu guztiak, hots, zerga, gastu, tasa eta ariel guztiak, bai eta enpresa kontratistaren mozkina ere:

NEURTU BEHARREKO KAPITULUAK	
LURSAILA PRESTATZEA	
ZIMENDUAK JARTZEA	
LOTUTAKO URBANIZAZIOA	

GAINERAKO KAPITULUAK	
EGITURA	
FATXADAK	
INSTALAZIOAK	
ALTZARIAK ETA EKIPAMENDUA	
BANAKETAK	
ESTALKIAK	
ESTALDURAK	
HONDAKINEN KUDEAKETA	3.606,49 €
SEGURTASUNA ETA OSASUNA	
KALITATEAREN KONTROLA	13.022,35 €

EXEKUZIO MATERIALA GUZTIRA (EMA)	
Gastu orokorrak (GO=EMAren % 13)	
Mozkin industriala (MI=EMAren % 6)	

KONTRATA GUZTIRA	
BEZa (% 10)	

KONTRATA GUZTIRA, BEZ-AREKIN (KEP+BEZ)	

V.- Era berean, konpromiso hauek hartzen ditut: *(markatu x batekin proposatzen dituzun konpromisoak)*

1.- <u>Bermealdia eta bermea atxikitzeko epea luzatzea</u>: (markatu gehienekoa)

☐ *Akaberetako intzidentzien arreta (urtebete Eraikuntza Arautzeko Legearen arabera) 3,5 urtera arte luzatzea erreserbarik gabe obra jasotzen denetik, eta berme osagarria epe hori igaro arte mantentzea.*

☐ *Akaberetako intzidentzien arreta (urtebete Eraikuntza Arautzeko Legearen arabera) 3,5 urtera arte luzatzea erreserbarik gabe obra jasotzen denetik eta berme osagarria epe hori igaro arte mantentzea eta bizigarritasuneko intzidentzien arreta (hiru urte Eraikuntza Arautzeko Legearen arabera) 5,5 urtera arte luzatzea erreserbarik gabe obra jasotzen denetik eta berme osagarriaren % 50 epe horren amaierara arte mantentzea.*

☐ *Akaberetako intzidentzien arreta (urtebete Eraikuntza Arautzeko Legearen arabera) 3,5 urtera arte luzatzea erreserbarik gabe obra jasotzen denetik eta berme osagarria epe hori igaro arte mantentzea eta bizigarritasuneko intzidentzien arreta (hiru urte Eraikuntza*

Arautzeko Legearen arabera) 5,5 urtera arte luzatzea erreserbarik gabe obra jasotzen denetik eta berme osagarriaren % 50 epe horren amaierara arte mantentzea eta egiturazko intzidentzien arreta (10 urte Eraikuntza Arautzeko Legearen arabera) 12 urtera arte luzatzea erreserbarik gabe obra jasotzen denetik eta berme osagarriaren % 5 mantentzea epe hori amaitu arte.

2. Salmenta osteko konponketen zehapena errekargu-ehuneko honekin handitzea: (markatu gehienekoa)

- ☐ % 20*
- ☐ % 30*

3. Berdintasunaren alorreko klausula hauek aplikatzea: (markatu x batekin aplikatuko diren neurriak)

- ☐ Kontratua gauzatu bitartean, sexu-jazarpenari edo sexuaren ondoriozko jazarpenari aurrea hartzeko eta hari aurre egiteko protokolo bat edo neurri espezifikoak onartzea eta zabaltzea.
- ☐ Kontratua gauzatu bitartean _____ enpresako hitzarmen kolektiboa aplikatzea, zeinak emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausula espezifikoak baititu.
- ☐ Kontratua gauzatzeko, _____ enpresako hitzarmen kolektibo hau xedatzea eta aplikatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausula espezifikoak jasotzen dituena; edo norberaren bizitza, lana eta familia bateragarri egiteko neurriak xedatu eta aplikatzeko konpromisoa hartzea kontratua gauzatzen duten langileentzat, hala nola:

    - Indarrean dagoen lege-araudiak ezarritako baimenak, lizentziak edo eszedentziak hobetzea edo zabaltzea.
    - Lanaldia edo lan-ordutegia malgutzea eta/edo egokitzea.
    - Lana eta familia bateratzen laguntzeko zerbitzuak.

Lekua eta data:_____

Stua.:

TOLERANCIAS MÁXIMAS **

<table>
<tr><th>ELEMENTO</th><th>Norma aplicación</th><th>CRITERIO ACEPTACIÓN /RECHAZO</th></tr>
<tr><td>Paramentos verticales tabique cartón yeso</td><td>NTE-PTP</td><td>Planeidad diferencias de resaltes ≤ 5mm medida con regla de 2m
Desplome: ≤ 5mm en 3 m de altura</td></tr>
<tr><td>Paramentos verticales cerámica</td><td></td><td>Planeidad diferencias de resaltes ≤ 8mm medida con regla de 2m
Desplome: ≤ 5mm en 10 m de altura</td></tr>
<tr><td>Paramentos horizontales techos</td><td></td><td>Planeidad diferencias de resaltes ≤ 5mm medida con regla de 2m</td></tr>
<tr><td>Alicatados</td><td>NTE-RPA
UNE-CEN/TR 13548:2007 IN</td><td>Planeidad diferencias de resaltes ≤ 2mm medida con regla de 2m

Regla 2m: 2mm</td></tr>
<tr><td>Alineación juntas paramentos</td><td>NTE-RSR Y
NTE-RPA</td><td>
Regla 1m: 1mm</td></tr>
<tr><td>Pintura en paredes</td><td>NTE_RPA</td><td>Aspecto y color distinto al especificado. Descolgamientos, cuarteamientos, desconchados, bolsas y falta de uniformidad</td></tr>
<tr><td>Pintura en techos</td><td>NTE_RPP</td><td>Aspecto y color distinto al especificado. Descolgamientos, cuarteamientos, desconchados, bolsas y falta de uniformidad</td></tr>
<tr><td>Solados cerámicos</td><td>NTE-RSR

UNE: CEN TR/13548: 2007
UNE: CEN TR/13548:2007</td><td>Aspecto y color distinto al especificado. Descolgamientos, cuarteamientos, desconchados, bolsas y falta de uniformidad
Ausencia de lechada en juntas

Planeidad suelo Regla 2m: 3mm

Horizontalidad pavimento: ± L/600</td></tr>
<tr><td>Solados flotantes laminados</td><td>NTE-RSR
UNE 14472-3
UNE 14472-3
UNE 14472-3</td><td>Horizontalidad: ≤ 5mm por metro medido con regla 2mm
Horizontalidad pavimento: 0,5%
Planeidad: 1mm medida con regla 20cm
Anchura máxima juntas</td></tr>
<tr><td>Rodapiés</td><td>NTE-RSR</td><td>Separación rodapié y paramento ≤ 2mm</td></tr>
<tr><td>Puertas interiores</td><td>NTE-FCM</td><td>Correcta apertura y cierre
Desplome <4mm en un metro. La puerta debe quedarse quieta en cualquier posición

UNE 56810:2010 separación entre pavimento y rodapié ≤ 2mm
UNE 1530:2000tabla 1 (DF debe indicar que clase de puerta hay)
<table>
<tr><td>Tolerancias mm</td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Clase</td><td>Torsión</td><td>Inclinación</td><td>Hundimiento</td></tr>
<tr><td>0</td><td>*</td><td>*</td><td>*</td></tr>
<tr><td>1</td><td>10</td><td>10</td><td>6</td></tr>
<tr><td>2</td><td>8</td><td>8</td><td>4</td></tr>
<tr><td>3</td><td>4</td><td>4</td><td>2</td></tr>
<tr><td>4</td><td>2</td><td>2</td><td>1</td></tr>
</table>
UNE 1529 (DF debe indicar que clase de puerta hay)
<table>
<tr><td>Tolerancias mm</td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Clase</td><td>Altura/anch</td><td>Espesor</td><td>Escuadria</td></tr>
<tr><td>0</td><td>*</td><td>*</td><td>*</td></tr>
<tr><td>1</td><td>±2,0</td><td>±1,5</td><td>±1,5</td></tr>
<tr><td>2</td><td>±1,5</td><td>±1,0</td><td>±1,5</td></tr>
<tr><td>3</td><td>±1,0</td><td>±0,5</td><td>±1,0</td></tr>
</table></td></tr>
<tr><td>Jambas y tapajuntas</td><td>NTE-FCM</td><td>Separación entre jambas y paramento nunca > 2mm</td></tr>
<tr><td>Horizontalidad de bañeras y duchas</td><td></td><td>
1mm por metro</td></tr>
<tr><td>Lavabo y fregadero</td><td></td><td>Nivel 1cm y caída frontal ≤ 5mm</td></tr>
<tr><td>Inodoros, bidés y vertederos</td><td></td><td>
Nivel 1cm y caída frontal ≤ 2mm</td></tr>
<tr><td>Holgura entre revestimiento y ducha o bañera</td><td></td><td>

≤ 1,5mm. Sellado con silicona neutra o pasta selladora elástica y sanitaria</td></tr>
<tr><td>Mecanismos eléctricos</td><td></td><td>Horizontalidad 1%</td></tr>
<tr><td>Tabique yeso laminado:</td><td></td><td></td></tr>
</table>

separación entre placas y suelo terminado		entre 10 y 15 mm
Tabique yeso laminado: juntas entre placas		≤ 3mm. Emplastecido con pasta selladora
Carpintería		Correcta apertura y cierre Resalto con el paramento <2mm. Deben sellarse
Vidrios		Espesor especificado ± 1mm. Dimensiones restantes ± 2mm Ausencia de poros, pelos o roturas Sellado no transparente

UNE: CEN TR/13548:2007 Reglas generales para diseño e instalación de baldosas cerámicas es más reciente que NTE. Donde no haya otra referencia, utilizar NTE

** Salvo existencias de normativa de obligado cumplimiento que sea más restrictiva

III. ERANSKINA: BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO KONPROMISOA.

ADIERAZTEN DU

BAT.- Kontratua gauzatzeko karatulako 17.4 klausulan jasotako giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa hartzen duela, bai eta C gutun-azalean jasotakoak ere, Agiri honetako 21. klausulan xedatutakoaren arabera.

BI.- Konpromisoa hartzen duela baliabide horiek kontratua gauzatzeko aldi osoan erabiltzeko.

Lekua eta data:_____

Sinadura:

IV. ERANSKINA: ABALAREN BERMEAREN EREDUA

_____ erakundeak (kreditu-erakundearen eta elkarri bermea emateko sozietatearen izen soziala) (IFZ:_____, jakinarazpen eta errekerimenduetarako helbidea:-_____) eta, haren izenean, _____ jaun/andreak (ahaldunaren izen-abizenak), egintza honetara behartzeko nahikoa ahalorderekin, dokumentu honen azpiko aldean dagoen eskuordetzearen egiaztapenaren arabera,

ABALA EMATEN DIO

_____(r)i (abalatuaren izen-abizenak edo izen soziala) (IFZ:_____), BEHIN BETIKO BERME gisa, Irungo 6.3.01 Alarde eremuko C partzelan 10 BOE eta horien eranskinak eraikitzeko obren kontratua gauzatzean sortzen diren betebeharrei erantzuteko, batik bat honako hauei dagokienez:

a) Kontratua burutzerakoan kontratistari ezarritako zigorrak ordaintzeko, batik bat lanak egiterakoan sortutako atzerapenengatik, ziurtapenetatik kendu ez zaizkionean.

b) Kontratutik eragindako obligazioak ordaintzeko, bereziki ondasunean bizioengatik edo akatsengatik eragindako kalte materialak;Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa /Sociedad Pública de Vivienda de Irun SAUri (IRUNVI) eragiten zaizkion gastuak ordaintzeko, kontratista bere betebeharrak betetzean berandutzeagatik eta kontratua betetzen ez bada eragindako kalte-ordainak ordaintzeko.

c) Edozein arrazoi dela-eta kontratistak a Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa /Sociedad Pública de Vivienda de Irun SAUri (IRUNVI) eragiten dizkion kalte-ordainak ordaintzeko.

d) Plegu honetan ezarritakoaren arabera, kontratua deuseztatzearen ondoriozko konfiskazioa ordaintzeko.

e) Kontratistak edo azpikontratistek hirugarrenei eragindako kalteak ordaintzeko, kontratatzen den polizak estaltzen ez dituenean.

Zenbatekoa:
(letraz)……
.....euro (zenbakiz)……

Abal hau indarrean egongo da harik eta Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa /Sociedad Pública de Vivienda de Irun SAU (Irunvi) sozietate publikoak bermatutako obligazioa azkendu dela eta abala bertan behera geratu dela espresuki deklaratzen duen arte. Abala modu solidarioan ematen da obligaziodun nagusiari dagokionez, espresuki uko egiten zaio eskusio-onurari eta Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa /Sociedad Pública de Vivienda de Irun SAU (IRUNVI) sozietate publikoak eginiko lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartzen da.

..(lekua eta data)……
.....(erakundearen izena).....
…….(ahaldunen sinadura)

ORDEZKARITZAREN EGIAZTAPENA, GORDAILUEN KUTXA NAGUSIAREN AHOLKULARITZA JURIDIKOAK EDO ESTATUAREN ABOKATUTZAK EGINDAKOA

Probintzia: Data: Zenbakia edo kodea:

V. ERANSKINA KAUZIO-ASEGURUAREN ZIURTAGIRI BIDEZKO BERMEAREN EREDUA

Ziurtagiri-zenbakia:.....
(1)..... aseguru-erakundeak (aurrerantzean, aseguru-emailea) (jakinarazpen eta errekerimenduetarako helbidea:.....; IFK:.....), (2)..... jaun/andreak behar bezala ordezkatuta, zeinak egintza honetara behartzeko nahikoa ahalorde baitu, dokumentu honen azpiko aldean jasotako ordezkaritzaren egiaztapenaren arabera, honako hau

ASEGURATZEN DU

(3)..... (IFZ/IFK.....), aseguru-hartzaile gisa, (4).....(r)en aurrean, aurrerantzean aseguratua, (5)..... zenbatekora iritsi arte (letraz eta zenbakiz), Sektore Publikoaren Kontratuen Legean, garapenerako arautegian eta (6)..... kontratua arautzen dituen administrazio-klausula berezian jasotako baldintzetan, behin betiko berme gisa, aseguratuari begira aurretik aipatutako arauen eta gainerako administrazio-baldintzen arabera sor litezkeen betebeharrei, kalte-galerei eta beste gastuei aurre egin ahal izateko

Aseguratuak bere erantzukizunpean adierazi du bete egiten dituela Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren 57.1 artikuluan eskatutako betekizun guztiak

Saria dela bakarra, lehenengoa edo hurrengoak, ordaindu ez arren, aseguru-emaileak ez du eskubiderik izango kontratua ebazteko, eta kontratua ez da iraungiko, aseguru-emailearen estaldura ez da etenda geldituko, eta aseguru emailea ez da bere betebeharretatik aske geratuko, baldin eta aseguru-emaileak bermea eman behar badu.

Aseguru-emaileak ezingo dizkio egotzi aseguratuari aseguru-hartzailearen aurka dagozkiokeen salbuespenak.

Aseguru-emaileak konpromisoa hartzen du aseguratuari kalte-ordaina emateko Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa /Sociedad Pública de Vivienda de Irun SAU (IRUNVI) sozietate publikoak eginiko lehen errekerimenduan, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legeak eta hura garatzeko arauek ezarritako terminoetan.

Aseguru hau indarrean egongo da harik eta (7) .....(e)k edo bere izenean horretarako legez gaitutakoak bermea kitatzeko edo itzultzeko baimena eman arte, Sektore Publikoaren Kontratuen Legean eta legeria osagarrian ezarritakoari jarraikiz.

Lekua eta data:.....

Sinadura:
Aseguru-emailea

ORDEZKARITZAREN EGIAZTAPENA, GORDAILUEN KUTXA NAGUSIAREN AHOLKULARITZA JURIDIKOAK EDO ESTATUAREN ABOKATUTZAK EGINDAKOA

Probintzia: Data: Zenbakia edo kodea:

Eredua betetzeko argibideak
(1) Erakunde aseguru-emailearen izen sozial osoa idatziko da.
(2) Ahaldunen izen-abizenak
(3) Aseguru-hartzailearen izen-abizenak/izen soziala.
(4) Kontratazio-organoa.
(5) Asegurua osatzen duen zenbatekoa.
(6) Banaka identifikatu nahikoa daturekin (izaera, mota...) kauzioa emateko kontratua, kontratuan aurreikusitako luzapen posibleak adierazita.
(7) Zer erakunderentzat osatzen den bermea.

VI. ERANSKINA: SEKTORE PUBLIKOAREN KONTRATATZEKO DEBEKU ETA BATERAEZINTASUNIK EZ IZATEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

jaun/andreak (NAN-zenbakia:.....), bere izenean edo ..... enpresa ordezkatuz (IFK:.....), enpresa horren ..... delarik, honako hau

ADIERAZTEN DU:

I.- Aipatutako sozietateak, haren legezko administratzaile eta ordezkariek eta sinatzaileak berak ez dutela kontratatzeko debekurik edo bateraezintasunik, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 71. artikuluan xedatutakoaren arabera, arau horretan adierazitako termino eta baldintzetan.

Lekua eta data:.....

Stua.:

VII. ERANSKINA: KONTRATISTEN ERREGISTROAN JASOTAKO DATUEN INDARRALDIAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

..... jaun/andreak (kargua:....., NAN-zenbakia:.....), bere izenean edo ..... enpresa ordezkatuz (IFK:....., ...ko kontratisten erregistroan izena emanda dago ..... zenbakiarekin) IRUNVIk deitutako ..... kontratazioan parte hartzeko, bere erantzukizunpean, honako hau

ADIERAZTEN DU:

A) Kontratisten Erregistroan enpresa honi buruz jasota dauden datuak ez dira aldatu, eta bat datoz Erregistroko ziurtagiriarekin.

B) Kontratisten Erregistroan enpresa honi buruz jasota dauden datuak aldatu egin dira, jarraian adierazten den aldaketekin eta eransten diren dokumentuen bidez egiaztatuta, eta gainerakoek ez dute aldaketarik izan eta bat datoz Erregistroko ziurtagiriarekin.

Aldatu diren datuak:

Erantsitako egiaztagiriak:

Lekua eta data:.....

Stua.:

VIII. ERANSKINA: Kontratazio-agiri europar bakarraren (KAEB) inprimaki normalizatua eta aholku-batzordearen jarraibideak

Europako Batzordeak eskainitako KAEB elektronikoaren doako online zerbitzuaren bidez dokumentu hau elektronikoki bete daiteke interneteko helbide honetan: https: //visor. registrodelicitadores. gob. es/espd-web/filter? lang=es, jarraian adierazten den moduan:

- KAEB elektronikoaren zerbitzuarekin, kontratazio-organoak prozedura honetarako KAEB eredu bat sortuko du, eta lizitatzaileen esku jarriko da XML formatu normalizatuan, deialdiaren gainerako dokumentuekin batera (hala nola, dokumentazio osagarria), kontratatzailearen profilean.

- Lizitatzailean bere ordenagailuan gorde beharko du XML dokumentu hori eta, ondoren, KAEB elektronikoaren zerbitzura sartu. Handik, dokumentua inportatuko du, beharrezko datuak beteko ditu, inprimatuko eta sinatuko du, eta KAEBa lizitazioko gainerako dokumentu guztiekin batera aurkeztuko du.